

puntua
+ **KALXO**
+ **ANJOJ**

Elkarbizitza
aniztasunetik
marrazten

Juanjo San Miguel
irradi-esatariari
elkarriketa



TXOKOLATEAREN BIDEZ ARTEA ETA MEMORIA HISTORIKOA ALDARRIKATU

Euskal Gozogileak elkartean batutako Euskal Herriko 40 bat gozogilek egindako Picassoren 'Guernica'-ren txokolatezko erreplika Oñatin jarri dute ikusgai / 34

Oñatiko Santa Ana antzokian izango da ikusgai artelana; atzo egin zituzten muntatze-lanak.

MARKEL ARRAYAGO



**Txakur batek
aurpegian kosk egin
eta zauriak eragin
dizkio postari bati,
banaketan ari zela** / 21

SINADURAK

	MIGUEL LAZPIUR / 25
	RAFA MUNGIA / 8
	RAMON MARTIN / 35
	ITSASO ERRETOLATZA / 12
	MIKEL IRIZAR / 48

**8.000 kutsatuen
langa gairitu du
Debagoienak, eta 110
kasu izan dira aste
honetan** / 2

**Oheen %63 gordeta
dute, eta iazkoa baino
abuztu hobia espero
dute eskualdeko
ostatueta** / 6

**Bergarako San Pedro
elizako Stoltz Freres
organoa berritzeko
468.103 euro lortu
dituzte** / 24

**Arrasate Blues
jaialdia hasi da,
Jesusi Etxebarria
gitarra irakasleari
omenaldia eginda** / 41

Arrasatekoak gara

Otalora Lizentziaduna, 18 | Tel.: 943 79 29 95 | ARRASATE

Kontu/tatu optikari konpainiaren ezagueriak.

Ikusmen azterketa
doan
+
opariak eta deskontuak

www.multiópticas.com


MULTIÓPTICAS

50 urte zuen ikusmena zaintzen

8.15. 9/1/20

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak 1.000 biztanleko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	57	14	3.190	144	321
Oñati	38	5	1.446	126	374
Bergara	16	18	1.639	109	226
Aramaio	14	7	193	130	1.418
Antzuola	13	9	267	122	1.009
Eskoriatza	10	2	411	100	292
Aretxabaleta	9	5	812	114	197
Elgeta	4	0	68	60	353
Gatzaga	1	0	12	48	427
GUZTIRA	162	60	8.038	124	342

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Kasuak eta intzidentzia hirukoiztu egin dira, eta 8.000ko langa gainditu

Azken bi hilabeteetako kutsatu kopuru handiena baieztatu dute: 162. Ildo beretik egin du gora intzidentzia-tasak ere, eta joan den astekoa hirukoiztu egin da –atzo, 342 zen–. Egoerak okerrera egin duela-eta, neurriak hartu ditu Labi instituzionalak

Maialen Santos ARRASATE

Parke, plaza, hondartza eta gainerako eremu publikoetan ezin- go dira elkartu bizikide ez direnak 00:00ak eta 06:00ak bitartean. Labi instituzionalak eguaztenean online egindako bileraren ondotik hartutako erabakia da hori, eta helburua da jende pilaketak saihestea.

Dekretua atzo, eguna, argitaratu zuten eta gaur, egubakoitza, sartuko da indarrean. Dena den, adierazi zuten mugikortasuna ez dela murriztuko ordu tarte horretan. Era berean, prebentziorako protokoloak eta neurriak betetzen ez dituzten ekitaldi jendetsuetan ez parte hartzeko esan zuten.

Labi teknikoko adituek egotza epidemiologikoa aztertu zuten bileran, eta, neurri murriztaileak mantentzea adostu bazuten ere,

Labi instituzionalari "neurri osagarriak" proposatu zizkieten.

POSITIBO BERRIAK

162 KUTSATU IZAN DIRA ASTE BAKARREAN; 52, EGUAZTENEAN

Pandemiaren bilakaerak okerrera egin du azken asteetan, eta kutsatu berriek gora egin dute, oro har, Hego Euskal Herri osoan. Debagoienean ere okerrera egin dute datuek, eta azken zazpi egunetan 162 lagun kutsatu dira; horietako 52 eguaztenean egindako probek hauteman zituzten. Joan den astean baino 102 positibo gehiago izan dira, hortaz –60 izan ziren–. Iazko martxoa ezker 8.038 pertsona harrapatu ditu COVID-19

gaitzak, eta azpimarratzekoa da eskualdeak atzo gainditu zuela 8.000 kutsatuen langa; apirilaren 22an 7.000 kutsatu erregistratu eta 84 egunetara, hain zuzen ere. Azken hilabeteetako denborarik luzeena da hori; izan ere, gehieze ere 52 egun behar izan dira orain artean 1.000 kutsatu izateko –abenduaren 8an 4.000 kutsatu izan ziren eta urtarrilaren 29an, berriz, 5.000–.

Hildakoak 172 izan dira Debagoienean, nahiz eta azken astean ez den heriotzarik gertatu.

Herriz herri, Arrasatek baieztatu ditu kasu gehien (57), eta jarraian daude Oñati (38), Bergara (16), Aramaio (14), Antzuola (13), Eskoriatza (10), Aretxabaleta (9), Elgeta (4) eta Leintz Gatzaga (1). Aipatzekoa da Arrasaten eta Oñatin, hurrenez hurren, eguaztenean egindako

probek hamasei eta hogei kutsatu –hurrenez hurren– eman zituztela egun bakarrean. Gainera, azken astean bailarako herri guztietan izan dituzte positibo berriak, eta, ildo horretatik, nabarmendu behar da Leintz Gatzagan maiatzaren 28a ezker ez dutela kasurik baieztatu aste honetara arte; eta Elgetan, aldiz, ekainaren 1a ezker ez zegoen positibo berririk.

Debagoieneko Ospitaleari dagokionez, bi lagun daude gaitzak harrapatuta ingresatuta.

INTZIDENTZIA-TASAREN EBOLUZIOA

ESKUALDEKO TASA IA HIRUKOIZTU EGINDA ASTE BATEAN: 342 ZEN ATZO

EAEko azken hamalau egunetako 100.000 biztanleko intzidentzia-tasak izugarri egin du gora, eta batez bestekoa 415,55era iritsi zen atzo, eguenean. Hala, 400etik gorako tasarekin, Euskal Autonomia Erkidegoa eremu gorriara igaro zen.

Horretaz gain, nabarmentzekoa da Gipuzkoak 500 kasu metatuen langa gainditu zuela, eta lurraldearen azpitik dagoela Debagoiena eskualdea, nahiz eta zazpi egunetan ia hirukoiztu egin den tasa; joan den egunean 117an zegoen eta atzo, ostera, 342an. Maiatz erdialdean erregistratu zen azkeneko 300etik gorako intzidentzia-tasa.

Araban eta Bizkaian motelago egin du gora intzidentziak, eta Debagoienaren antzera zeuden atzo. Azkenik, Nafarroak izan du igoerarik handiena, eta 700ndik gorako tasa zuen atzo.

Datu epidemiologikoen eboluzioaren harira, Iñigo Urkullu lehendakariak egin zuen agerraldian, maskararen erabilera indartzeko dei egin zuen. Pandemiaren bilakaerak okerrera egin duela jakitun, "maskara, maskara eta maskara", azpimarratu zuen. Arauak arau, momentu honetako "indargunea" da babes-neurri hori erabiltzea eta norbanakoen erantzukizuna nabarmendu zuen.


TXERTAKETA-KANPAINA

ASTELEHENEAN HASIKO DA 16 ETA 29 URTE ARTEKOEN TXERTAKETA

Astelehenen abiatuko da ofizialki 16 eta 29 urte bitarteko txertaketa, nahiz eta aste honetan ere batzuk ari diren ziztatzen, agendak betetzeko. Gotzone Sagardui Osasun sailburuak arrakastatsutaz jo du deialdia; izan ere, joan den egubakoitzean hitzordua hartzeko aukera ireki eta lehen 24 orduetan 78.300 pertsona baino gehiagok hartu zuten. "Gauerdian 1.600 pertsona baino gehiago sartu ziren segundoko. Txertoaren onarpeneren erakusle da", esan zuen.

Baieztatutako positibo metatuak Debagoiengan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



Osasun Sailaren arabera, EAEk jaso dituen 2.643.900 dosietatik, 2.361.197 jarri ditu Osakidetza, eta 1.401.144 lagunek jaso dute ziztada bat gutxienez. Bestetik, 1.092.502 dira dagoeneko immunitate handiena lortu dutenak –herriarren %57,8–.

Bestetik, orain arteko datuek erakusten dutenez, %1,8 izan dira txertoa jarri ez dutenak, kontraindikazioengatik edo uko egin diotelako.

PANDEMIAKO ITXIALDIA

KONSTITUZIONALAK LEGEZ KANPOKOTZAT JO DU PANDEMIAKO LEHEN ITXIALDIA

Vox alderdiak alarma egoera baimentzen duen dekretuaren aurkako helegitea jarri zuen

Auzitegi Konstituzionalean. Eguaztenez, sei magistraturen aldeko botoekin –eta kontrako bostekin–, dekretuaren hainbat artikulua baliogabetu zituzten; hala nola espazio eta bide publikoetan ibilgailuen joan-etorria debekatzen duena eta ostalaritza, kultur eta aisialdi arloetako jardueretan murrizketak ezartzeko eskumena Osasun Ministerioari esleitzen diona. Gainerako artikuluetan, baina, Madrilgo Gobernuari eman zion arrazoiak Auzitegi Konstituzionalak.

Itxialdia indarrean jarri aurretik Kongresuan onartu behar zela argudiatu du Konstituzionalak, hain zuzen. Edozelan ere, epaia eta boto partikularrak ez dira datozen egunetara arte argitaratuko, eta, hortaz, ezin da jakin zeintzuk diren ondorioak.

Halere, zenbait hedabidek interpretatu dutenez, besteak beste, kolokan egon daitezke alarma egoera jarritako isunak.

Era berean, itxieraren eraginez kaltetutako sektoreek ere erreklamazioen bidea hartzeko aukera izan dezakete.

DATUEN ERREGISTROA OTORDUETAKO MAHAIKIDEEN DATUAK HIRU ASTEZ GORDE BEHARKO DIRA

Osasun Sailak ostalaritzako establezimenduetan ezarri beharreko protokoloa eguneratu du, eta, kontaktuen bilaketa "errazteko", bazkari edo afarietan harremanetarako pertsona baten datuak erregistratu beharko dira mahai-talde bakoitzeko; izen-abizenak eta telefono zenbakia gorde beharko dituzte, alegia, hiru astez.

Bestetik, Osasun Sailaren arabera, kutsatzeko modu nagusia aerosolen transmisioa da, eta, horren harira, protokoloan jaso du terrazetan erretzea ez dela "gomendagarria. Aerosolak arnasa hartzean eta hitz egitean sortzen dira. Karga askoz handiagoa da airea indar handiagoz igortzen duten jarduerak egiten direnean, hala nola kantatzea, oihukatzea edo erretzea". Zigarroi, lurrungailuei, ur-pipei, pipei eta antzekoez aritu da Osasun Saila.

"Lehenengoetakoa izan naiz, izugarritzko zortea izan dut"

ANE URRESTARAZU GAZTEA

Martitzen honetan bertan jarri diote txertoa

M.S. OÑATI

16 eta 29 urte arteko herritarren txertaketa ofizialki astelehenean hasiko bada ere, dagoeneko badago txertoa hartu duen gazterik. Osakidetza agendak betetzeko eman die hitzordua, eta, beraz, aste honetan jaso dute lehen dosia batzuek; tartean, Ane Urrestarazu 24 urteko oñatiarra.

Noiz hartu duzu txertoa?

Martitzen arratsaldean eman zidaten; Pfizer konpainiaren txertoa, zehazki. Oñatiarra naitzen arren, Zumarragako Ospitalean eman zidaten hitzordua.

Nolatan eman zizuten?

Joan den egubakoitzean zabaldu zuten hitzordua hartzeko epea, baina nik neuk ez nekien horretarako aukerarik izango ote nuen; izan ere, duela sei hilabete, positibo eman nuen. Hori horrela, aste honetan bertan amaitzen zizaidan immunitatea, eta ez nekien oraindik itxaron egin beharko ote nuen.

Ez zenuen itxaron beharrik izan...

00:00etan, oheratu aurretik, Osakidetza webgunera sartu nintzen, baina ez nuen ikusi hitzordua hartzeko aukerarik. Beraz, zalantza argitzeko deitu nuen txertaketarako egokitutako telefonora, eta suertatu zitzaidan harrerako langileak berak eskaini zidala hitzordua. Jakina, baietz esan nion, pentsatu ere egin gabe. Edozelan ere, esan zidan Zumarragako Ospitalera joan beharko nuela. Egia esan, ez zidan axola izan Debagoieneko Ospitalera beharrean Zumarragara gerturatzeak. Lehenengoetakoa izan naiz, izugarritzko zortea izan dut.

Noiz hartuko duzu bigarren dosia?

Ez dut hartuko. Koronabirusa pasa nuenez, dosi bakarrarekin nahikoa dudala esan zidaten. Alegia, ziztada bakarrarekin amaitu dut txertaketa zikloa, eta esan zidatenez, datozen egu-



Txertoa hartu berri. A.U.

netan lortuko dut immunitate handiena.

Irakaslea zara. Txertoa hartuta beharko zenuke honezkero...

Eskolako lankideek apiril inguruan hartu zuten, eta hala egitekoa nintzen ni ere. Baina urtarrilean positibo izan nintzen, eta itxaron egin behar izan dut.

Nola zaude orain, txertoa hartu berritan?

Izugarri ondo. Ez dit inolako albo-kalterik eragin; ez dut sukarrik, ez eta besoko minik ere.

Zer ekarriko dizu txertoak?

Lasaitasuna, batez ere. Ezagutzen ditut erizain batzuk, eta haiek aholkatu zidaten hartzea. Hori horrela, kasu egitea erabaki nuen, eta ez nuen inolako zalantarik izan.

Uda lasaiagoa pasako duzu, beraz?

Zalantarik gabe. Are gehiago, astelehenean Balearretara, Menorcara, noa oportet, eta bi daiaitu ahal izateko COVID pasaportea aktibo izatea edota bidaiatu aurreko 48 orduetan PCR negatiboa izatea eskatzen dute. Dagoeneko pentsatuta nuen PCR proba egitera joatea –pasaportetik atera ezin nuelako–. Ez nuen uste oportetara joan aurretik txertoa hartzera iritsiko nintzenik, baina aurreikuspen guztiak hautsi eta halaxe izan da azkenean. Orain, prest nago oportetara lasai joateko.

Neurriak hartzen jarraituko duzu?

Jakina. Oraindik herritar asko geratzen dira txertoa hartzeko, eta uste dut bien bitartean kontu handiz jarraitu behar dugula. Nik neuk segurtasun neurriak mantendu egingo ditut.

Test azkarrek, mediku agindu gabe

Osasun Ministerioak iragarri du farmazietan autodiagnostikoko testak mediku errezeta gabe saltzea baimenduta egongo dela.

Carolina Darias Osasun ministroak iragarri duenez, farmazietan medikuaren agindurik gabe saldu ahal izango dira koronabirusa atzemateko test azkarrek, "positibo susmagarrien identifikazioa errazteko". Datorren martitzenean onartuko du Ministroen Kontseiluak horien salmenta, eta dagoeneko herritar ugari test azkarrekiko interesa agertu dutela adierazi du Bergarako Estella farmaziako farmazialari Joseba Vicentek: "Are gehiago, hilabeteak daramatza jendeak galdezka, eta, azkenerako, iritsi zaigu baimena". Gehitu du autodiagnostikorako izango diren heinean, nork bere buruari egin beharko diola testa.

"EZ NUEN USTE OPORTETARA JOAN AURRETIK TXERTO HARTZERA IRITSIKO NINTZENIK"



Bailarako udal ordezkariak eta Ekiola proiektuaren sustatzaileak, martitzenean, Debagoieneko Mankomunitatean. HASIER LARREA

Ekiola kooperatiba aurkeztu dute bailaran

Proiektuak aukera ematen die herritarrei tokiko energia sortzeko kooperatibetan parte hartzeko, eta bat dator Europako Batasunaren ildo nagusiekin; 2030erako, kontsumitzen den energiaren %32k jatorri berriztagarria izan dezan lortu gura dute

Maialen Santos ARRASATE

Ekiola sustatzen duten erakundeek, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta Krean ingeniartza sustatzaileak, bilera egin zuten martitzenean Debagoieneko herri guztietako udal ordezkariekin –Aramaio izan ezik–. Proiektuaren berri eman zuten batzarrean; izan ere, aukera ematen die herritarrei tokiko energia sortzeko kooperatibetan parte hartzeko, plaka fotovoltaiko bidez, autokontsumorako.

Kontsumo aldaketa, beharrezko

Ekiola bezalako kooperatibak sortzeak, herrialdearen balioekin eta egitura ekonomikoarekin bat egiteaz gain, herritar asko inplikatu dituzten proiektu handiagoak eratzea ahalbidetu duela esan zuten bileran. Eta gizarteak erregai fosilen kontsumotik eguzki energiaren kontsumora eman beharreko pausoa nabarmendu zuen Jose Ignacio Asensiok, Aldundiko Ingurumen diputatuak: "Gure

etxeetan eta tokiko komertzio eta enpresa txikietan kontsumoa aldatu behar dugu".

EEEko zuzendari nagusi Iñigo Ansolak gaineratu zuenez, "eredu hori Debagoienean ere aplikatu ahal izango da", eta energia-azpiegitura esanguratsuak sortzea ahalbidetuko du –1 MW eta 5 MW arteko potentzia duten eguzki-parkeak–, hurbileko energia sortuko dutenak; zero kilometrokoak, alegia.

Eredu bideragarriagoak

Egun, Gipuzkoako garraioak eta industriak kontsumitzen duen energiaren –%43 eta %38, hurrenez hurren– oinarritzen da erregai fosiletan. 2030era begira, bideragarriagoak diren ereduak

**URTEBETE BARRU
EKIOLA PROIEKTUA
MARTXAN EGONGO
DELA AURREIKUSTEN
DUTE**

sustatzea da asmoa; bereziki, energia fotovoltaikoa. "Nahi guke energia berriztagarrien kuota %8tik %21era pasatzea", esan zuen Asensiok.

Ekiola egitasmoa diseinatzeaz LKS Krean enpresa arduratu da, eta bertako kide Hodei Arzakek eman zituen familien etxeetan eguzki energia bideratzeko azalpenak. Sortzen den kooperatiba bakoitzak 400 etxebizitzaren parte hartzea eskatuko luke, gutxienez; horregatik, bakoitza herri batean baino gehiagotan jartzea aukera bat izan daitekeela esan zuen. Fase ugari pasa beharko lituzke egitasmoak: bideragarritasun analisiak, baimen administratiboak, ingurumen azterketak... "Espero dugu urtebete barru kooperatiba martxan izatea", zehaztu zuen Arzakek.

Proiektuan parte hartzeko interesa erakusten dutenek epe luzerako inbertsioa egin beharko lukete, era horretan errentagarria izan dadin.

"Gaztelerarekin laguntzeko boluntarioak behar ditugu"

ARANTZA CHACON LARRAÑA ETXEKO ZUZENDARIA
Gaztelera ikasteko laguntza behar dute errefuxiatuek

Maialen Santos OÑATI

CEAR Euskadik kudeatzen duen Oñatiko Larraña Etxean bizi diren errefuxiatuei gaztelaniazko eskolak ematen eta mintza-praktikan laguntzen herritar ugari aritu dira ikasturtean zehar, baina opor garaian haiek ordezkaturako lituzketen boluntarioak behar dituzte. Irailetik aurrera ere eskertuko lukete euren laguntza, gainera.

Zertarako behar dituzue boluntarioak, zehazki?

Gure zentroan bizi diren pertsona asilo eskatzaileei laguntzeko. Zehazki, gaztelerarekin lagundu dezaketen lagunak biltzen ari gara.

Zein ezaugarri behar dira laguntza hori emateko?


Ez dugu aparteko formakuntza edo titulaziorik eskatzen. Edonork lagundu ditzake bertan bizi direnak. Boluntario batzuek mintzapraktika egiten jardungo dute, adibidez, eta formakuntza handiagoa dutenek idazten eta irakurtzen lagun dezakete, bestetik. Boluntarioen eta zentroko erabiltzaileen profilen arabera joango gara hori zehazten, beharren arabera.

Noiz izango dira eskolak?

Hori ere boluntarioen disonibilitatearen arabera izango da. Aztertuko ditugu aukerak, eta zehaztuko ditugu orduak.

Boluntario izan gura duenak nora jo behar du?

Larraña Etxean lanean ari garenekin jar daiteke harremanetan zuzenean, eta horretarako



Arantza Chacon. A.C.

bi telefono zenbaki ahalbidetu ditugu: 688 72 90 79 edota 688 81 30 06. Horietara deitzea eskertuko guke.

Nola dago zentroa orain?

Duela hilabete inguru, 48 lagun bizi ziren Larraña Etxean, eta orain, dagoeneko 75 inguru dira; beraz, aste gutxian 30 lagun gehiago ditugu harrera zentroan. Familian, bikoteka edota banaka bizi dira, eta jatorri askotarikoa dira: georgiarrak, pakistandarrek, magrebtarrak...

Zergatik horren aldaketa handia?

Muturreko egoeran zeudelako asko eta asko. Pandemiak zaildu egin du laguntza eske datozenak mugitu ahal izatea. Edozelan ere, mugikortasun mugak malgutu izanak jendea gudanaino iristea erraztu du orain, eta horregatik iristen ari dira asko, lur zein itsasorik. Hegazkinez oraindik ez dira iristen ari.

AP-1 eta AP-8 arteko tunela itxi egingo dute gaur gauean

Gipuzkoako Foru Aldundiak aditzera eman duenez, gaur, egubakoitza, gauerdetik larunbateko 05:00ak arte, Eibarren, Maltzaga parean, AP-1 eta AP-8 autobideen arteko lotunea itxita egongo da Bilborako noranzkoan. Azaldu dute Arrizabalaga eta Barrundia tuneletako horma pikoak garbitzeko lanak egingo dituztela denbora tarte horretan,

eta hori egin ahal izateko "ezinbestekoa" dela tunela ixtea hiribururako noranzkoan.

Bitarte horretan Gasteiztik Bilborantz doazen ibilgailuek bi aukera izango dituztela ere azaldu dute: batetik, AP-1eko Bergara hegoaldeko 133. irteeran atera eta GI-627 errepidetik Eibarko AP-8ko sarreran berriro autobidea hartzea; eta, bestetik, Elgoibarko AP-8ko 64. irteeraino jarraitzea eta biribilgunean autobidera sartzeko, Bilborako noranzkoan.

Berrituta dator Euskal Herriko jolasguneen gida

Goienaren, Olgetaren eta Txatxilipurdi elkartearen ekimenez sortu zen 'jolasparkeak.eus', duela lau urte, baina berrikuntzak egin eta atalak gehitu dizkiote. Debagoiengan aire zabalean jolasteko hamabi espazio zerrendatu dituzte

Maialen Santos ARRASATE

2017an sortu zuten *jolasparkeak.eus* ataria, Euskal Herriko jolasguneen gida, Goienaren, Olgetaren eta Txatxilipurdiren ekimenez. Pixkanaka elikatuz joan dira, eta Euskal Herriko zazpi lurraldeetako aire zabaleko jolaserako espazioak zerrendatu dituzte; familia, hezitzaile, talde edo norbanakoentzako proposak. Txatxilipurdi elkarteak Lander Juaristik esan du azken hilabeteetan bultzada emateko lanetan ibili direla: "Dagoeneko ibilbide bat egin du atariak, eta berrikuntzak egin dizkiogu".

Lau multzotan sailkatutako espazioak zerrendatu dituzte:



Goienako, Olgetako eta Txatxilipurdiko ordezkariak, ataria erakusten. 'JOLASPARKEAK.EUS'

jolas parkeak, herri guztietan jolasteko aproposak diren aire zabaleko espazioak; jolasguneak, jolaserako espresuki sortutako parkeak; urguneak, ura elementu nabarmen moduan duten jolaserako guneak; eta heziguneak, haur guztientzako aukera zabala eta esperientzia esanguratsuak eskaintzen dituzten eta erabilera publikoa duten espazioak. Azken atal hori berria dela zehaztu du Juaristik: "Hainbat ikastetxetako patioak eraldatzearen aldeko mugimendua dago Euskal Herrian, eta heziguneen atalean sartu ditugu horiek. Batu gura izan ditugu patio horiek, baina, betiere, erabilera publikoa dutenak".

Espazioekin eta bertako dinamikekin lotutako hausnarketa eta berriak biltzeko blog bat ere sortu dute, gainera. "Jolaserako espazioen inguruan dauden hausnarketak batzea garrantzitsua dela uste dugu. Herriak edo bertako horietako zehatz batzuk jolasteko aproposak izan behar direla sinesten dugu, eta atal horretan askotariko iritziak jaso gura ditugu", adierazi du.

Debagoiengan, hamabi espazio Bailerara etorrita, hainbat dira *jolasparkeak.eus* webgunean zerrendatuta ageri diren jolasguneak –gehiago ere badaude–. Bergarako San Martzial dago jolasgune proposamen moduan, eta baita Labegarietako aisialdigunea eta Usondo parkea ere. Elgetako jolasguneak ere badaude; esaterako, Bolatokiko parkea eta Asentzio ingurua. Oñatiri dagokionez, Usako urgunea aproposa izan daiteke edonoren gozamenerako, eta Baratzeko Pikua izeneko jolas parkea ere proposatu dute webgunearen sortzaileek. Atxorrotx jolasgunean eta Torrebaso jolas parkean ere jolastu daiteke, Eskoriatzan. Arrasateko Dragoia jolas parkea ere badago eskualdekoen zerrendan, eta Monterron parkea jolasgune gisara hartu dute. Azkenik, Aretxabaletako Otala Zelai ere jolasgune da.

"Webgunea bizia izango da elikatuz bagoaz, eta horregatik eskatu gura diogu jendeari gune aproposak ikusten baditu argazkiak atera eta webgunearen bitartez bidaltzeko", esan dute.

san pedrokobidea
Elxe Turistikoa

NATURAZ INGURATUTA

12 OHE EROSO

FAMILIENTZAT EZIN HOBEA

JARDUERAK

San Pedroko bidea 25
31800 Altsasu

www.sanpedrokobidea.com

sanpedrokobidea@gmail.com

+34 650 02 36 98



Alex Perez, Gorosarri landetxeko arduraduna, eraijinaren aurrean. A.P.



Maite Aristegi, Bergaran duen Lamaino landetxearen kanpoaldean. XABI GOROSTIDI

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Turismo sektorean diharduten debagoiendarrek esperantza dute aurtengo abuztua "iazkoa baino hobexeagoa" izan dadin. *Hobexagoa* edo *askoz hobexagoa* izateko egarrit daude, baina tentuz erabiltzen dute *hobexegoa* hitza, jakin badakitelako oraindik zalanza izpi asko daudela.

"Gorabeherak alde batera utzita, iaz baino hobeto gaude, eta aurtengo abuztuan mugimendu gehiago egotea aurreikusten dugu. Ez da pandemia aurreko abuztu horietako bat izango, baina ea pixkanaka gerturatzaren garen", dio Goiko-benta ostatu-ko Miren Maiztegik.

%63ko erreserba maila

Bailarako hotelen, landetxeen eta antzeko negozioen atea jo du GOIENAK, abuzturako dituzten aurreikuspenei termometroa jartzeko. Horietako 23k eman-dako erantzunen batez bestekoa aintzat hartuz, une honetan, abuztuko erreserben %62,87 eginda dituzte. Zifra horren barruan, orde, askotariko erreallitateak daude: hiruk, adibidez, %90 eta %100 arteko erreserba maila dute; txanponaren beste aldean, berriz, bi negozio daude erreserba maila %11tik behera dutenak.

Esan bezala, aste honetako argazkiko zifrak dira horiek,

**"GURE BEZEROEN
%80 ATZERRITARRA
IZAN DA; ORAIN,
ALDIZ, %20"**

ALEX PEREZ,
GOROSARRI LANDETxea

Oheen %63, erreserbatuta

Hori da Debagoieneko landetxeek eta ostatuak une honetan duten argazkia abuztura begira. Bezeroen artean azken orduan erreserbatzeko joera handitu egin dela diote, eta erreserbak bertan behera uzteko malgutasunak "ezegonkortasuna" dakarrela ere

baina azken unean erreserba gehiago jasoko dituztela diote gehienek. Horren harira, zera adierazi du Eskoriatzako Gorosarri landetxeko Alex Perezek: "Beste urte batzuetan baino beranduago ari gara erreserbak jasotzen. Normalean, Aste Santua heldu orduko abuztuko erreserba ia guztiak eginda egoten dira. Baina aurten, aurrerapen gutxiagorekin dabilta bezeroak. Batez beste, hamabost egun lehenago egiten dituzte erreserbak, eta ziur azken asteetan asko ugarituko direla".

Azken uneko mugimenduekin jarraituz, haxe azaldu du Elgetako Maialde landetxeko Jesus Kalboetxeagak: "Gure kasuan, abuztuan beti lortzen dugu ia-ia

beteta egotea. Aurten, adibidez, bertan behera utzitako erreserbak ugaritu egin dira. Baina, era berean, erreserba kopuruak ere gora egin du. Beraz, hori ikusita, ziur urteroko martxan arituko garela".

Erreserbak bertan behera uztea
Turismo sektorean aldaketa sakon asko ekarri ditu COVID-19ak, baina horietako bat, ez bairik gabe, erreserbak bertan behera uzteko politiken malgutasuna da. Pandemia aurretik, negozio bakoitzak prozedura propioa izaten zuen: zurruna batzuek, malguagoa beste batzuek... Baina COVID-19ak sortutako ezegonkortasun egoerarekin, negozio ia guztiek jarri

dituzte erraztasunak, eta bezeroek azken unera arte dute aukera erreserbak ezeztatu ahal izateko.

"Erreserbak bertan behera uztearena oso samur dago une honetan, eta horrek ezinegon handia ekartzen digu profesionali. Dena beteta eduki dezakegu eta ordu erdian jasotako bi deirekin okupazioaren %20 ra pasa gaitezke. Gure kasuan, pandemia aurretik zorrotzagoak ginen erreserbak bertan behera uzteko politikarekin, baina pandemiak erabat baldintzatu gaitu. Une honetan, denok ematen ditugu erraztasunak, eta jendea hori aprobetxatzen ari da. Bezeroentzat abantaila da, baina jabeentzat...", dio Maiztegik.

**"ASKO HITZ EGITEN
DUGU BEZEROEKIN,
ETA GURE AHOLKUAK
ESTIMATZEN DITUZTE"**

JESUS KALBOETXEAGA,
MAIALDE LANDETxea

**"INTERNET BIDEZ
JASOTAKO BEZERO
BATZUK FIDELITATZEA
LORTU DUGU"**

MIREN MAIZTEGI,
GOIKO-BENTA OSTATUA

Atzerititik etorritako turistekin asko igarri dute hori: "Urte hasieran, atzeritarren erreserba asko jaso genituen, baina egotera pandemikoa dela-eta bertan behera utzi dituzte ia gehienek. Herbehereetako eta Belgikako bezeroen erreserbak izan dira bertan behera geratu ez diren bakarrak. Beste urte batzuetan baino gutxiago dira, baina, behintzat, hor daude".

Bergarako Lamaino landetxeko kasua berezia da. Ez dute Interneteko plataformen bidez erreserbarik jasotzen, eta, euren kasuan, ez dute hainbeste igarri. "Orain arte, ez dugu askorik igarri erreserbak bertan behera ixtearena, baina hari batetik zintzilik gaude, gainontzeko

Turistentzako informazioa

Abuztuan zerbitzu hauek egongo dira Debagoienean turisten eskura.

Turismo bulegoak

- **Oñati** Astelehenetik igandera, 09:30-14:00 eta 15:30-19:00. Telefonoa: 943 78 34 53
- **Bergara** Astelehenetik zapatara, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00; domeketan, 10:00-13:00. Telefonoa: 943 76 90 03

Bisita gidatuak

- **Arrasate** zapatuero egingo dituzte herriko historiari buruzko bisitak.



Jesus Kalboetxeaga, Elgetako Maialde ostatuaren kanpoaldean, telefonoz hizketan. XABI GOROSTIDI



Arantzazuko Goiko-benta ostatuko arduradun Miren Maiztegi. M.M.

guztiak bezala. Tamalez, beti dago ezbeharren bat gertatzeko arriskua, eta, halakoetan, ez dago ezer egiterik. Astebete lehenago deitzen diegu, ea dena ondo dagoen jakiteko", azaldu du Maite Aristegi arduradunak.

Aldaketak turisten jatorrian
Azken oporraldietan, bezeroen jatorrian aldaketak izan dituzte bailarako ostatu askok. Nazioarteko bisitari atzerritarren behe-rakada nabaria izan da, eta asko izan dira horien falta sumatu dutenak. Eskoriatzako Gorosarri landetxearen kasuan da horietako bat. "Bezeroen jatorrian aldaketa nabaria jasan dugu. Pandemia aurretik, gure bezeroen %80 nazioartetik zetorren eta

gainontzeko %20a, Espainiatik. Baina iaz eta aurreko zifrak goitik behera aldatu dira, alderantzizkoak izateraino: %80 Espainiakoak eta %20 nazioartekoak", azaldu du Alex Perez arduradunak.

Elgetako Maialde landetxean, ordea, bezero atzerritarren bisitak berreskuratu dituzte aurreko: "Iaz, adibidez, atzeritar bezeroak desagertu egin ziren. Baina aurreko, itzuli egin dira; uztailan, adibidez, hainbat eduki ditugu: Alemaniakoak, Frantziakoak eta Errusiakoak. Oroskorrean, Frantziatik etortzen dira gehien, baina italiarrak eta herbeheretarrek ere nahiko ohikoak izaten dira. Aipatutako atzeritarren artean ohikoena

gau bakar bat pasatzea da. Cadizera edo Portugalera doaz, eta, bide erdian, gurean hartzen dute atseden. Baina abuztuaren datoen horiek egonaldi luzeagoak egin ohi dituzte".

Lamaino landetxearen kasuan, bezero euskaldunak ohikoak izaten dira beti, eta, horri esker, azken urteko neurri berezien eragina leunagoa izan da. "Euskal bezeroak izan ditugu betidanik, eta iazko egoera xelebrean nagusi izan ziren". Hala ere, askotariko bezeroak dituzte: "Espainiatik ere etortzen dira asko; Madrildik eta Kataluniatik, nagusiki. Eta Frantzia aldetik ere etortzen dira: badugu, adibidez, urtero bisitatzen gaituen familia frantziar bat".

Egoerara moldatuta, 551 ohe


NEKAZARITZA TURISMOAK	HERRIA	EDUKIERA
Ibarre	Antzuola	16
Lamaino Etxeberri	Bergara	12
Barrenengua	Elgeta	16
Aterbe	Eskoriatza	9
Arregi	Oñati	18
Uxarte	Aramaio	8
LANDETXEAK		
Urkulu landetxea	Aretxabaleta	17
Izal landetxea	Bergara	12
Eguzkitza landetxea	Elgeta	16
Maialde landetxea	Elgeta	12
PENTSIOAK 1*		
Jausoro ostatua	Aretxabaleta	10
Goiko Benta	Oñati	20
PENTSIOAK 2*		
Uxarte Pentsioa	Arrasate	10
Urizar Pentsioa	Arrasate	14
APARTAMENTUAK		
Gorosarri apartamentuak	Eskoriatza	21
Areano	Eskoriatza	13
Leintz zuhaitz etxeak	Leintz Gatzaga	14
Arantzazuko Borda	Oñati	8
HOTELAK 1*		
Ormazabal hotela	Bergara	28
Ongi Etorri hotela	Oñati	38
Sindika hotela	Oñati	66
HOTELAK 2*		
Arrasate hotela	Arrasate	22
Soraluze hotela	Oñati	32
HOTELAK 3*		
Hotel Mondragon	Arrasate	47
Santa Ana hotela	Arrasate	24
AUTOKARABANEN GUNEA		
Asentzioko gunea	Elgeta	10
San Martingo gunea	Oñati	18
Ibarrako gunea	Bergara	20

"Abuztuaren freskotasuna nahi dugu, eta Aramaio perfektua da guretzat"

JAVIER BORREGUERO ETA NOELIA HERNANDEZ TURISTAK

Egun gutxi barru, seigarren urtez jarraian itzuliko da Aramaiora irudiko bikote murtziarra, eta aitortu dute "heltzeko irrikan" daudela.

Nolatan heldu zineten Aramaiora lehen aldiz?
Aspalditik genuen iparraldea ezagutzeko irrika, oso mendizaleak baikara biok. Hala, Interneten bila genbiltzala aurkitu genuen Aramaioko Uxarte landetxea; hasieran, etxeak zituen parajeek erakarri gintuzten, eta, ostean, jasotako tratu ezin hobeak betirako atrapatu gaitu.



Zer dela-eta diozu tratua ezin hobe dela?
Lehenengo aldiz joan aurretik, uste genuen euskaldunen izaera hotza zela. Baina, behin helduta, gertuko pertsonak

zaretela sentitu dugu, eta etxeko jabe Gotzone da horren adibiderik garbiena. Beti dago laguntzeko eta aholkatzeko prest, eta etxean bezala sentiarazi gintuen hasieratik. Gure bila etorri izan da aireportura... Beraz, pentsa. Gogoan dut lehen aldi hartan Galiziara joateko asmoa genuela, baina bertan behera utzi genuen, Aramaion oso gustura geundelako.

Euskaldun askok beroa dute amets oporretan. Zuek, ordea, freskotasuna...
Murtzian ez zaigu berorik falta urte osoan; beraz, abuztuaren, asko estimatzen dugu paraje horietako freskotasuna. Gainera, turistikoki oso gutxi esplotatutako gunea da 'Suitza Txiki' hori; guretzat perfektua.



ZABALIK

RAFA MUNGIA

Inoiz ez da berandu

Jaiotzen garenetik eskatzen digute; umeeekin, edadetuekin, bikotekidearekin, laneko nagusiarekin, eguraldiarekin, argaldu nahi dugunean, opariak zabaltzerakoan, bidaiatzerakoan, supermerkatuko ilaran, sendagilearengana goazenean, gure futbol taldearekin, telesail baten amaiera jakin nahi dugunean, gaixotasun baten aurrean, aireportuetan, sukaldean...

Beti iruditu zait berba bitxia bereziki erdarara eta ingelesera jotzen dugunean; itxaroten dakiena hartzen duen bezala, gaixo edo ez, osasun arloko profesional batengana aholku edo sendagai bila doan norbanakoa ere aipatzen digu bi hizkuntza hauetan. Aitortu beharra daukat euskarak ematen dion erabilera gehiago gustatzen zaidala, erosoago sentitzen naiz zentzu negatibo hori alde

ETOR DAITEKEENARI AURRE EGITEKO JARRERA EGOKIA IZAN DAITEKE, ATZERA BEGIRATU GABE

historian zehar, greziarretatik hasita gaur arte, eta, zer esanik ez, kristau fededunen artean, barneratuta ditugun esamolde mordoa etorriko zaizkizu burura. Pentsa, konturatu gabe, baina gurekin asko daukanari eskerrak ematen dizkiogu.

Bigarren abizenaz Ipurterre garenok azken urte eta erdiko abentura malapartatu honetan hitzaren benetako esanahiaz jabetu gara, eta, hori baino gehiago, ikastaro trinko bezain azkarra egin behar izan dugu halabeharrez. Etor daitekeenari aurre egiteko jarrera egokia izan daiteke, atzera begiratu gabe baina jakitun gu ere aldatzeko gai garela. Gauzak, egoerak, aldaketak, tokatzen denean datoz gehienetan; itxaroten, esperoan, bidean, hartzen dugun jarreran joaten zaigu bizitzaren muina. Egin aproba, hartu bizitza pazientziaz... ahalik eta azkarren.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Kazetaritza eta literatura

ARANTXA URRETABIZKAIA
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Zirrargarria zirudien kazetaritzak kanpotik, akuilatzailea, baita unibertsitatean ere hainbat irakasgaitan; zer esanik ez, film batzuetan.

Gero, kalera jaitsita, errutinazkoagoa zela egiaztatu genuen, distira galdu zuen.

Baina, gaizki doan zerbaitek okerrera egin dezakeelako, etorri zen lanpostuen egonkortasunik eza, eta hori gutxi zela-eta, soldata eskasen jaitsiera.

Lan baldintzak aldatu dira, ez mamia.

Kazetaritza besteek egiten eta esaten dutena kontatzea da. Aztarrika eginda ere, kazetariak ezin du haratago joan, ezin du pertsonaren barruan sartu, ezin du, esan eta egin bitartean, protagonistak zer pentsatzen edo sentitzen duen jakin.

Susmoak izan ditzake kazetariak, ikus dezake protagonistaren begietan hitzak eta sentikizunak ez datozela bat, ez duela esaten duena sinesten edo aipatzen ez dituen zalantzak dituela, eta kazetariak konta diezaioke hori guztia irakurleari edo entzuleari.

Baina ezin du protagonistak esan eta egiten duena baino haratago joan.

Horretarako dago literatura eta horregatik izan daiteke fikzioa kazetaritza bera bezain egiazko.

Literaturak badu norbaitek egin eta esaten duen une berean zer pentsatzen edo sentitzen duen kontatzeko ahalmena. Literatura sar daiteke pertsonaren barruan, sakonenera.

Kazetaritzak ezin du hori lortu, protagonistak barruan duena hitzetan adierazten ez badu.

Kazetaritza eta literatura, biak behar ditugu baldin eta mundua ulertzen ahalegindu nahi badugu.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketaziora
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Unean uneko beharrek erantzun bat eskatzen dute"

MIRIAM URKIA EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIKO ARDURADUNA

Larraitx Zeberio ARETXABALETA
Hiztegia eguneratu du Euskaltzaindiak. 592 forma eta 975 moldaketa sartu dituzte. Urkiak dio (Aretxabaleta, 1965) ustea dela Euskaltzaindia beti dabilela erabakiak aldatzen, baina hori ez dela egia. **Nola eguneratzen da Euskaltzaindiaren hiztegia?** Urtean bitan egiten da. Lantalde bat dago eta corpusetan oinarritzen da. Corpus horretan jasotzen da hedabideetan –tartean, Goienan–, ikus-entzunezkoetan, literaturan... argitaratutako material asko, eta aztertzen dira forma berriak. Euskaraz ondo sortutakoak diren ala ez aztertzen da, baina irizpide ia bakarra erabilera da. Proposatutako formak maiztasun handiko erabilera badu eta eremu zabal batean erabiltzen bada, hiztegian sartzen da. Prozesu nahiko luzea da, eta dokumentazio lan sakonekoa. Dena den,



Miriam Urkia euskaltzain aretxabaletarra, Herriko Plazan. ARTXIBOA

forma berriek besteko garrantzia dute –handiagoa, ez esatearren– aurretik onartuta dauden formei ematen zaizkien adiera eta adibide berriek. Eguneraketa honetan 800 inguru direla uste dut.

'Queer', 'heteropatriarkal', 'binario', 'koronabirus'... onartu dituzue. Premia berriak dira? Noski. Unean uneko beharrak sortzen dira, eta, erabilerak aztertzen ditugunez, gizartearen atzetik goaz, baina

ezin gara joan hogeit urte atzetik. Politena, hain zuzen ere, eguneroko beharrei erantzutea da.

'Debagoiendar' ere sartu duzue, eta adibidea Goienatik hartua da. Hala da, eta garrantzitsuak dira leku konkretuetako hizkerak jasotzen dituzten hedabideak. Goiena ereduagarria da horretan. Onomastika batzordeak onartu zituen *Debagoiena* eta *Debabarrena*. Guk *debagoiendar* eta *debabarrendar* ekarri ditugu hiztegiara.

'Txantxiku' hitza ere oraintxe onartu duzue.

Bai, tamaina txikiko zapoa adierazteko. Oraingo, oñatiarrei deitzeko ez. Gure bailaran oso Oñatiko hitza da, baina beste leku batzuetan ere erabiltzen da, eta corpusetan jasota agertzen da. Aldiz, oñatiarrei deitzeko adierak oso-oso dokumentazio gutxi du.

Gertatu da orain zuzentzat jotzea lehen baztertutako formarik?

Noski. *Tableta* hitzak, esaterako, adiera bakarra zuen; txokolatezko tableta. Aurrerantzean, ukipen-pantaila duen ordenagailu eramangarri txikia ere bada. Gero daude *asanblada*, *gobernantza*, *nezaser*, *binario*, *angustia*... Erdaratik

hartutako hitzak direla esango dute batzuek, baina oso erabiliak dira, eta adiera jakin batzuetarako onartu ditugu. Zorionez, erabilera-datu objektiboekin funtzionatzen dugu, eta ez dugu guk erabakitzen. **Orduan, asko erabiltzen bada, edozerk balio du?** Sakon aztertzen dira proposamen guztiak. Esaterako, hainbat markarekin bada ere –hegoaldekoa, lagunartekoa...–, sartu ditugu *portzierto* eta *dedio*. Zeinek ez du *portzierto* esaten? Baina Euskaltzaindiak proposatzen duenean, edozein gauza sartzen dela pentsatzen da. *Patera* hitza ere sartu dugu. *Patera* bat txalupa bat da, baina gauza bera irudikatzen dugu entzuten dugunean "paterak etorri dira Mediterraneotik" eta "txalupak etorri dira Mediterraneotik"? **'Sukaldatu' formari buruz bi hitz.** Askok erabiltzen da, baina ez daukagu sartuta. Euskara itxura osoa du, baina tradizio idatzian dagoena *kozinatu* da. Uneren batean, ziur asko, ez dugu beste erremediorik edukiko eta sartu egin beharko dugu, baina osasera ere ez da oso normala. *Erratza pasa* bezala da; nork esaten du *erraztu*?

ITURRI ONETIK

Jaiak antolatzen

Bergarako San Martin jaiak antolatzeko lanean dabilta. Zaila da jakitea ze egin ahal izango den eta ze ez irailean. Dena den, asmo batzuk badituzte: kontzertuak antolatzea; San Martin plazan txosna jartzea, eserita kontsumitzeko–; barazki, fruta eta gazta feria Ibargarain; danborrada... Oñatin ere lanean dira San Migel eta Errosaixo jaiak antolatzea: haurren danborrada, artzain txakurren txapelketa... Aretxabaletako Andra Mari jaietan: kontzertu pare bat eta banda baten emanaldia, txirrindulari lasterketa...

ALBISTE IZAN ZEN

2007-07-16

Goienari, telebista digitalaren lizentzietako bat

Goiena telebistak Lurreko Telebista Digitalaren bidez emititzeko lizentzia lortu zuen. Debagoieneko barrutian lau telebistarendako lizentziak banatu zituen Jaurlaritzak: Goiena bera, Localia, Localmedia eta Vocentoren Teledonosti. Gaur egun, Goiena telebistak bakarrik –tokiko eta euskarazko bakar– jarraitzen du. Argazkian, orduko Goiena telebistaren lantaldea. 57 telebistak lortu zituzten lizentziak EAEn.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Tokioko Olinpiar Jokoak hizpide

@delarregi: "Olinpiar Jokoak ikuslerik gabe egingo dituzte. Tokion koronabirus kasu positiboen kopurua handitu izana da arrazoia".

@BATbasqueteam: "Ateak itxita eta Tokio larrialdi egoeran dagoela jokatu dira Olinpiar Jokoak".

@Xabierelizegi: "Olinpiar Jokoak gerturatzen eta marka ikusgarriak ateratzen hasi dira kirolariak. WR batzuk, marka pertsonalak, planifikazioak...".

@AsierSanchez18: "Tokio 2020ko Olinpiar Jokoak badatoz! Aurten eskalada olinpiaden parte izango da, lehendabiziz".

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Debagoieneko

Mankomunitateko presidente da Maite Anton 2019ko iraila ezker. Erronkei erantzuteko, eskualdeko sinergiak ezinbestekoak dira, oñatiarraren ustez.

Debagoieneko Mankomunitateak bailarako zortzi herri ordezkatzen ditu. Zein da bere egitekoa bailara kohesioari lotuta?

Debagoieneko

Mankomunitatea bailarako zortzi herriri zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkien erakunde publikoa da. Eskualdeko zortzi udalek ordezkatzen dutena, hain zuzen ere. Bailarako herriak lotzen dituen entitate publikoa. Gaur-gaurkoz, zerbitzu hauek zabor bilketa eta kudeaketa, eskualdeko Garapen Agentzia, turismoa eta kirola dira. Gainera, irailatik aurrera gizarte zerbitzuen mapa berraztertzen hasiko gara. Azterketa honek bailarako zerbitzu batzuk herrietatik Mankomunitatera bideratzea ekarriko du.

Debagoieneko

Mankomunitatea erakunde bizia da eta bailarako herrien beharretara egokitzen da. Zerbitzuen ezaugarriak aldakorak dira.

Zein garrantzi du eskualde mailako lanketak garatzeak?

Eskualde mailan sinergiak sortzea ezinbestekoa da. Askotan, guztiak batuta lortzen baitira emaitzarik onenak. Bailara berean egonda eta kezka zein erronka berberak edukita, norabide berean lan egitea ezinbestekoa da.

Zein ekimen jarri ditu martxan azken urteetan eskualde ikuspegi horrekin lotuta?

Aipatu bezala, gizarte zerbitzuen mapa garatzen gabilta, aurrez zegoen lanketa batetik abiatuta. Hain zuzen ere, helburua da gizarte zerbitzuen alorrean herrietan dauden erronkei era kohesionatuan eta lankidetzatik erantzutea.

Garapen agentzia, ingurumena...

Hainbat dira ematen dituen zerbitzuak. Zein bilakaera izan du erakundeak azken urteetan?

Aurretik aipatu bezala, Mankomunitatea erakunde

"Lankidetzan arituta, eskualdearendako etorkizun hobea eraikiko dugu"

MAITE ANTON DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEko PRESIDENTEA

Debagoiena 2030 ekimeneko Gobernu Batzordeko kide da Debagoieneko Mankomunitatea. Erakunde biak eskualdearen garapenean ari dira elkarlanean



Debagoieneko presidente Maite Anton, D2030en sinadura ekitaldian. XABIER URZELAI

bizia da eta herrien zerbitzuak era mankomunatuan garatzeko sortua da. Garaian garaiko udaletako beharrei erantzuteko, hain zuzen ere. Gaur egun zabor bilketa eta

Garapen Agentzia ditugu, baina badira urteetan zerbitzu batzuk herrien eskumen izatera pasa direnak – hirigintza edota euskara – eta beste batzuk Mankomunitateko zerbitzu

izatera igaro direnak – turismoa eta aipatutako gizarte zerbitzuen hainbat alor-. Irailean bertan gizarte zerbitzuen mapa lantzen hasteko batzorde berri bat eratuko da, eta batzorde honetan eskualdeko hutsuneak identifikatu eta zerbitzuak aztergai izango dira. Edozelan ere, esan dudan moduan, erakundea udalen zerbitzuetara zabalik dago eta edozein gai jorratu daiteke era amankomunean.

D2030ek eta Debagoieneko Mankomunitateak bat egiten dute eskualde eskalaren ulermenean. Zer gehiagotan?

D2030ek eta Debagoieneko Mankomunitateak, biek dute eskualde ikuspuntua. Horretaz gain, bat egiten dugu beste ardura eta ideia batzuetan ere. Esate baterako, klima aldaketan eta honek dakarren ingurumenarekiko errespetuan, lankidetzan eta sinergiak sortzeko gogoan... Eragile ezberdinekin lan egitea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, lankidetzak sustatuz eta bultzatuz. Guztiok ditugu gizartearekiko kezka eta erronka amankomunak. Eskualde inklusibo, adimentsu eta klimatikoki neutroa izatearen alde lan egin nahi dugu. **Zergatik Debagoieneko Mankomunitatea D2030en?** Mankomunitatea ezinbestean D2030en parte izan beharko litzatekeela uste dugu. Benetan sinesten dugu

bertan lantzen diren proiektu eta lan-ildoetan, eta lankidetzan lan egin beharko genukeela uste dugu.

Eskualdeko herriak batzen dituen entitate publikoa izanik, rol garrantzitsua duela edo izan beharko duela argi daukagu.

Zein modutan elkar elikatu dezakete bi erakundeek?

Erakunde guztiok elkarrengandik ikasi eta elikatu gaitezke. Egindako lana eta informazioa elkarbanatu, partekatu eta lan oso eta mardulagoa osatuz gizartearen gerta daitezkeen eta gertatzen diren erronkei era egokiagoan aurre egin ahal izateko. D2030 osatzen dugun eragile guztiok lankidetzan lan eginda, eskualdearentzat etorkizun hobea eraikiko dugu. Norabidea berean lan egitearen garrantzia lehen ere aipatu dugu, eta guk benetan sinesten dugu lankidetzaren bateratuan, inolako bazterketarik gabe. Denok norabide berean lan eginda bakarrik lortu genitzake helburuak. Beharrezkoa eta nahitaezkoa da, beraz, lankidetzaren publiko/pribatua, gizartearen ere horrelako anitza baita.

Zein da Mankomunitateak duen esperientzia elkarlanaren alorrean?

Urteetan zehar lan egin izan da Debagoieneko Mankomunitatean elkarlanean; hau da, kooperatibekin, zein enpresa pribatuekin, izaera ezberdineko ikastetxeekin, elkarteekin... Esan bezala, gizartearen anitza baita, eskualdea anitza den bezala.

"GIZARTE ZERBITZUEKIN LOTUTAKO GAI BATZUK MANKOMUNITATERA BIDERATUKO DIRA"

"ESKUALDEKO ENTITATE PUBLIKOA IZANIK, ROL GARRANTZITSUA DUGU D2030EN"



Udal ordezkariak, Avanza enpresako kideak eta autobus gidariak, Zalduspeko geltokiaren berri emateko prentsa agerraldian. E.A.

Zalduspeko bus geltokia astelehenean jarriko dute martxan, hilaren 19an

Uztailaren 19tik aurrera, Zalduspekoa izango da Arrasateko autobus geltoki nagusia; beraz, ibilbide luzeko autobusek Zalduspen egingo dituzte geldialdiak eta bailarako herrietatik datozenek, aldiz, Nafarroa etorbideko bi geltokietan, bi noranzkoetan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Sei dartsena edo nasa jarri dituzte gutxienez datozen bi urteetan martxan egongo den geltoki berrian, bi markesina eta komunak, eta ibilbide luzeetako autobusak geldituko dira han: Donostia, Gasteiz –zuzena–, Bilbo eta Loiuko aparkalekua, besteak beste. Hauek dira Zalduspen geratuko diren lineak: DG01: Arrasate–Bilbo –autobidea–; DG02: Bilbo–Arrasate; DG05 A: Eibar–Arrasate–Gasteiz –autobidea–; DG05D: Eibar–Arrasate–Gasteiz –urtegia–; DG07: Arrasate–Donostia; DG56B: Arrasate–Loiuko aireportua; Bilbora doan Bizkai-bus autobusa; DG40G: gaueko zerbitzua, Eibar–Eskoriatza eta DG41G: gaueko zerbitzua, Oñati–Leintz Gatzaga.

Gainontzeko lineak, Eskoriatzara, Aretxabaletara, Bergara edota Oñatira joateko auto-

busak, esaterako, Nafarroa etorbideko bi geltokietan geratuko dira, Roneo atzealdekoan eta Kontezino kaletik Nafarroa etorbiderako biribilgunekoan.

Informazioa, etxeetara

Edozelan ere, datozen egunetan Arrasateko etxe guztietan triptiko bat banatuko dutela ohar-tarazi du Maria Ubarretxena alkateak, informazio guztiarekin. "Herribusaren gaineko informazioa ere izango dute triptiko horiek, ordutegiak, ibilbideak eta bestelako informazioa ere bai", nabarmendu du.

SEI DARTSENA, BI MARKESINA ETA KOMUNAK JARRI DITUZTE AUTOBUS GELTOKI BERRIAN

Ubarretxenaren esanetan, al-daketa bat den heinean, herri-tarren egokitzapena eskatuko du, baina baikor azaldu da. "Egokitzapen hori egunerokoak bakarrik ahalbidetuko du, aste-lehenetik aurrera. Uste dut, gainera, erraz ohituko direla herritarrek".

Kostu gehigarriak ez

Aurrekontuari dagokionez, *Ekobulebar*-aren proiektuaren barnekoa dela adierazi du alkateak. "Hainbat birmoldaketa egin behar izan dizkiogu proiektuari eta geneukan esleipen horren baitan egin dira guztiak. Are gehiago, %1 azpitik goaz. Hau da, honek ez dauka inongo kostu gehigarriarik".

"Aurrerapausoa izango da"

Astelehenean aurrera Nafarroa etorbidean 60 bat au-



Autobus hibridoa erabiliko dute hirugarren linearako. E.A.

Hirugarren linea ere, astelehenean

Herribusaren hirugarren linea ere astelehenean aurrera egongo da erabilgarri eta linea hori egiteko autobus berri bat erabiliko dute, orain artekoak baino handiagoa dena, 30 eserlekurekin, eta hibridoa. "Ibilgailuak jasagarriak eta ekologikoak izan daitezzen gura dugu. Brigadako furgoneta bat aldatu genuen, eta elektriko bat jarri. Orain, Avanza enpresak autobus hibrido hau jarri digu erabilgarri. %50 murriztuko ditu CO2 isurketak autobus arrunt batekin alderatuta", azaldu du Fuentesek, Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak.

Ekaineko osoko bilkuran onartu ostean, Udalak 693.298 eurotan esleitu dio zerbitzua Avanza Urbanos De Euskadi enpresari. Geltokiak honako hauek izango dira: Eroski, Gipuzkoa etorbidea, Maalako biribilgunea, Otalora Lizentziaduna, Muzibarko biribilgunea, Zarugalde kalea, Udala plazako biribilgunea, Arrasate pasealekua (Arimazubi), Alfontso VIII kalea, Doctor Bañez kalea, Maiatzaren Bata kalea, Garibai etorbidea, Biteri kalea, Nafarroa etorbidea, Deba etorbidea, Gipuzkoa etorbidea eta Eroski.

Ordutegiari dagokionez, astelehenean egubakoitzera, lehen irteera 07:35ean izango da eta azkena 20:05ean. Zapatuetan, lehen irteera 08:35ean izango da eta azkena 14:00etan. Domeka eta jaiegunetan ez da zerbitzurik eskainiko eta abuztuan, berriz, ordutegi berezia edukiko du.

Autobus-aldaketak, ordaindu gabe

Alkateak gogorarazi gura izan du Mugi txartelarekin doakoak izango direla autobus-aldaketak. "Hau da, ni Donostiatik baldin banator eta Zalduspen uzten banau, gero herribusa hartzen dudanean Erguina edota Makatzenara joateko, adibidez, herribuseko bidaia ez dut ordaindu beharko. Gainera, 15 minutuan behin edukiko dut herribusaren hirugarren linea". Tarifak 'Goiena. eus' webgunean daude ikusgai.

tobus gutxiago pasako direla aurreikusten du Udal Gobernuak, Zalduspen geratuko direlako. Hori dela eta, mugikortasunean "aurrerapauso" bat izango dela uste du alkateak. "Herriarrei herri atsegina, erosoago, irisgarriago eta jasagarriagoa

eskaintzeko beste pauso bat da. Geltokia zein hirugarren linea Udal Gobernuarentzat estrategikoa den herri ekologikoagoa eraikitzeko plangintzaren baitan daude".

Zalduspeko autobus geltokia eraikitzeko, lehengo industrialdeko bi eraikin eraitsi dituzte, Transportes Aramburu eta Etormobil zirenak, eta eremu horretan jarri dituzte aurrez zeuden aparkalekuak. "Beraz, autobus geltoki bat eraiki da, aurrez zeuden aparkaleku guztiak mantenduz", dio alkateak.

AURREIKUSI DUTE NAFARROA ETORBIDETIK 60 BUS GUTXIAGO PASAKO DIRELA EGUNEAN

Onartuta daude 2022ko ordenantza fiskalak

Udal zerga eta tasetan ez da igoerarik egongo datorren urtean ere, eta bi aldaketa nagusi egongo dira; hala, eguzkiaren energia aprobetxatzeko sistemak sustatzeaz gain, hobari bat ere aplikatuko da obren zergan, alde zaharrari "bultzada" emateko

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Zero zor" egoeran egonik igoe-rarik ez egitea proposatu zuen Udal Gobernuak uztailako oso-ko bilkuran, herritarrei zergak eta tasak igotzeko garaia ez dela iritzita, eta ia aho batez onartu zituzten 2022ko ordenantza fiskalak –Elkarrekin Arrasatek aurka bozkatu zuen–.

Era horretan, bi aldaketa nagusi egongo dira: batetik, eguzkiaren energia aprobetxatzeko sistemak sustatzeko, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan %50eko hobaria aplikatuko da sistema horiek jartzeagatik, 10 urteko epearekin. "Hori bai, plakak jartzeaz gain, erabili ere egin behar dira eta erabileraren arabera aplikatuko da hobaria ere", azaldu zuen Ander Garay Ogasun zinegotziak.

Bestalde, alde zaharrari "bultzada" eman gura dio Gobernuak, eta, 2022tik aurrera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %50eko hobaria aplikatuko da alde zaharreko etxebizitzetan egindako obretan. "Hobari hori izango dute, betiere, obra horien aurrekontua 10.000 euro baino handiagoa bada –BEZ barik– eta etxebizitza berria egiteko obrak ez badira".

Azken aldaketa autoen zepoari lotutakoa da, tasa kobratuko baitzaie zerbitzu hori eragin duten pertsonen. "Halakotzat hartuko dira eramandako ibilgailuen gidariak eta, modu subsidiarioan, ibilgailuon jabeak, ez-legezko erabilpen kasuetan izan ezik".

EH Bildu: "Azkarregi da"

Joseba Ezpeleta EH Bilduko zinegotziak adierazi zuen ez dutela ulertzen ordenantza fiskalak uztailan onartu beharra. "Ekonomiari lotutako ziurgabetasun handia dago, batez ere, inflazioari dagokionez, eta zuek, bizpahiru hilabete itxaron beharrean, aurrera egitea erabaki

duzue". Gaineratu zuen EH Bilduren lanari esker hobetu dela hasierako proposamena. "Tristeia zen proposamena, planteamendu berritzaileak gabea. Gobernuaren oposizioaren ideien zain egon dela ematen du".

Elkarrekin Arrasateko Eva Abuinek adierazi zuen aldaketa onak direla, baina "oso urriak", eta askoz gehiago egiteko ahalmena daukala Udalak. Beraz, aurka bozkatu zuen.

Muñoz, mapa osatzeko mahaira

Horrez gain, udalbatzak aho batez onartu zuen Maitane Muñoz zinegotzi jeltzalea izango dela Udalaren ordezkaria Debagoieneko Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzeko batzorde berezian, Debagoieneko Mankomunitatean. Maria Ubarretxena alkatea "pozik" azaldu zen mahai hori sortu izanagatik: "Ziur gaude Debagoieneko herri guztiok elkar-

ALDE ZAHARREKO ETXEBIZITZETAKO LANEK %50EKO HOBARIA IZANGO DUTE OBREN ZERGAN



Alde zaharrari "bultzada" emateko lanean ari dela dio Udal Gobernuak. E.A.

lanean lortuko dugula mapa hori martxan jartzea".

EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek ere esan zuten albiste pozgarria dela; "ezinbestekotzat" jo zuten lehenbailehen martxan jartzea mapa, "lan asko" dagoelako egiteko iritzita.

Gaitzespen oharraren harira

Galdera-erantzunetan, EH Bilduren bozeramaile Maider Morrasek hartu zuen hitza, eta asteburuko sutearen harira Gobernuak egindako prentsa oharrean fokuan jarri. Oharra-ekin "erabilera politiko gaiztoa" egitea leporatu zion Gobernuari: "Zer esan nahi duzue 'ekintza hauek helburu bat dutela' esaten duzuenen? Eta 'adierazpen bat egin gura dela ekintza hauekin' esaten duzuenen? Eta 'antzinako moldeak erabiltzen ari direla' esaten duzuenen?". Gobernuaren bozeramaile Anuska Ezkurrak erantzun zion inongo seinalizazio bako testua dela. "Ardu-za azaldu dugu gertaeretik eta lan egingo dugu berriz gertatu ez daitezen. Gaitzespen ohar bat besterik ez da eta ez gara konfrontazioan sartuko".



Domekan 03:30ean eman zuten sute-abisua bizilagunek. HERRITAR BAT

"Gizalegez" jokatzeko dei egin du Gobernuak, sutea dela eta

Domekan bi auto eta bost edukiontzi erre zituen sutea gaitzesteaz gain, errespetua eskatu die erantzuleei

E.A. ARRASATE

"Guztiz gaitzesten dugu asteburuan gertatutakoa. Oso larria izan zen, eta ulertzen dugu bizilagunen ezinegona; izan ere, atera egin behar izan zuten euren etxebizitzetatik 03:30ean. Etxeak su har zezakeen. Horrelako ekintzak ezin ditugu onartu Arrasaten", dio Maria Ubarretxena alkateak. "Inoren segurtasuna eta bizitza arriskuan jarri gabe ere egin daitezke aldarrikapenak".

Mankomunitateari eskaera

Era berean, adierazi du Ertzain-eta gertaera ikertzen ari dela.

"Baina ez dirudi momentuko gertaera isolatu bat izan denik". Hori dela eta, Debagoieneko Mankomunitateari eskaera egin- go diotela azaldu du, suaren aurkako edukiontziak jar ditzan. "Galdetu egin behar dugu ea barruan ura jar daitekeen edo beste ze modu dagoen, edukiontziak hain azkar su hartzea ekiditeko, badakigulako bizilagunen kezka handia dela, edukiontziak euren etxebizitzetatik gertu egon- nik. Beraz, edukiontziak etxebizitzetatik urrutitatu jartzeko aukera aztertzeke ere eskatuko diogu Mankomunitateari".



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Orojaleak

Sostengarriago bide, haragi kontsumoa murriztea gomendatu dute autoritateek. Eta badu zentzurik. Harakinek eta abeltzainek altxa dute ahotsa. Eta ez zaie arrazoirik falta ere.

Ez baita gauza bera abeltzaintza estentsiboa, zelai zabaletan hazitakoak, edo intentsiboan, hazitegi industrialetan gizen dutako okelak. Hauek, errentagarritasuna bilatuz, eraitsitako basoen landetan produzitutako palma olio- eta soja transgenikoarekin elikatzen dira. Zenbat eta pertsona gehiago, are eta animalia gehiago CO2 arnasa botatzen... harik eta xurgatzeko zuhaitz gutxiago.

Badakigu arrainen anisakia edo mikroplastikoak dituztela barruan; zer ez ote dute behi, zerri, ardi edo oilo horiek.

Beraz, komeni dena haragi kaltegarriak saihestea da. Hanburgesa, zein saltxitxa, zein barbakoa kate handietako jakiak, ahalik eta gutxien irenstea, alegia.

Bide batez, jaten dena kalitatezkoa dela bermatu, 0 km bidaiatuz, herriko harategiko baserrietako txahalarenak, hala nola basoko basurde kuoten okelari ere labela ipiniz.

Ikasturteko azken azoka, txakolina ardatz hartuta

Uztaileko hirugarren zapatuarekin batera, ikasturteko azken baserritarren azoka egingo dute bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara, eta Txakolin Eguna ere izango da, bailarako hiru ekoizlerekin: Kataide, Murgialdai eta Belaskua

Eneko Azurmendi ARRASATE

Askotariko hamazazpi ekoizle egongo dira biharko azokan, eta, Txakolin Egunaren baitan, baita hiru txakolin ekoizle ere. Beraz, hogeitau egongo dira, guztira, Nerea Lazpiur Garapen Iraunkorreko teknikariak azaldu duenez. "Barazkiak, egurrezko tresnak, ogia, gazta, gozoak, eztia, glutenik gabeko postreak, eta abar egongo dira".

Txakolin ekoizleei dagokienez, Murgialdai eta Belaskua etorriko dira Oñatitik eta Musakola auzoko Egi Haundi baserriko Kataide txakolina ere dastatzeko moduan egongo da, baita salgai ere. "Hiru formatu ditugu: hiru botilakoak, seikoak eta hamabikoak", azaldu du Izaskun Garciak, Kataide txakolindegiko arduradunetako batek. Izan ere, familian daramate negozioa, bere garaian Jabier Arregik martxan jarri zuenetik. "Aitona hasi zen honekin, eta, nire gurasoen belaunaldiaren ostean, orain guk hartu dugu lekukoa", adierazi du Garciak. "Beti ibili izan gara laguntzen, baina orain ardura hartu dugu eta oraindik asko daukagu ikasteko. Konturatzeko ari gara zelako lana dagoen honen guztiaren atzean".

2020ko uzta salduko dutela aurreratu du Garciak, txakolin zuria. "Gorria salgai eduki genuen, proba egin genuen eta jendea gustatu egin zitzaion, baina zaila da ohiturak aldatzea. Egia esan, gorriak ez dauka arrakasta handirik, eta zuria-ekin jarraitzea erabaki genuen. Beraz, iazko txakolin zuria salduko dugu. Usain fina eta frutagustukoa dauka; kolore argia".

Garciak, halaber, balioa eman dio horrelako azoketan parte hartzeko aukera izateari, eta haien garrantzitsua dela nabarmendu du. "Herriarrek ikus dezaten zer dagoen Debagoienean; izan ere, jende askok ez daki txakolina egiten dugunik



Herritar batzuk txakolina dastatzen, 2019ko Txakolin Egunean, Seber Altuben. GOIENA

ere. Beraz, aukera polita da guretzat, erakusleio bat".

Azokak emandakoarekin pozik

Ezohiko urtea izan arren, azokaren ikasturteak eman duenaren gustura azaldu da Lazpiur. "Herriatik irteten ezin ginenean, harrera ona izan zuten azokak eta gero, herri arteko mugak zabaldu zituztenean, bagenuen kezka puntu bat jendeak etortzeari utziko ote zion, baina oso azoka onak izan dira azken hilabeteetakoak ere. Denetik saldu da eta, gainera, ikusten dugu

jende gazteagoa hasi dela etortzen, beraz, oso pozik gaude".

Bere tokia egin du azokak

Arrasateko baserritarren azokak bere tokia egin duela nabarmendu du Lazpiurrek, eta, urteen poderioz, jendeak ohitura hartu duela bertaratzeko eta tokikoa kontsumitzeko. "Urte asko dira azoka martxan jarri zenetik, eta eraldaketa txiki bat ere gertatu da, produktuetan, ekoizleetan, bezeroetan, eta abar. Gainera, gaur egungo ohituretara egokitzeko ari garela esango nuke".

42 tabernatan txakolina eta gilda

Txakolin Eguna bat egingo du Arrasate Blues jaialdiarekin, eta promozio berezia egongo da herriko 42 tabernatan: txakolina eta gilda 2,5 euroren truke eskuratzeko aukera.

Erdigunean, taberna hauetan egongo da promozioa: Abaroa, Arrasate, Aterpe, Basati, Buenuena, Doke, Dublin, Erreka, Ezkiña, 1990 Gastroteka, Goizalde, Hamalau, Hotel Mondragon, Illuntz, Irati, Iturriotz, Itzala, Kimetz, Kajoi, Lora, Monte, Nahi, Rumba, Taupa eta Txoko. San Andres auzoan, Asador Bittori, Equis, Foruen, Pippol eta Tantaka. Musakola auzoan, Basilio, Estrella, Gaindegi, Iluna, losu, Jubilados, Jey Juliwer eta Txinato. Kontzezino kalean, lamai eta Sampry. Munarren, Korinto. Erguin eta Uribarri auzoguneetan, erretiratuen etxea.

"Espainiako monarkia-eredua desmuntatu gura izan dut"

CARLOS GUZMAN IDAZLEA

Liburua aurkeztu du Debagoieneko Ezker Kultur Gunean

E.A. ARRASATE

Ezker Anitza Debagoienak antolatuta, *¿Por qué no te callas? El descenso a los infiernos de los Borbones* liburua aurkeztu du iruindarrak Debagoieneko Ezker Kultur Gunean.

Non du jatorria liburuak?

Iazko udan, Espainiako errege-erreginen familiari buruzko eskandaluak argitara ateratzen hasi zirenean, iritzi artikulatu bat idazteko ideia izan nuen. Gero, luzatzen joan nintzen eta artikulua baterako baino gehiagorako ematen zuela konturatu nintzen. Liburua da emaitza.

Zer kontatzen duzu?

Espainiako monarkiaren azken 40 urteetako erregealdiaren dekonstrukzio politikoa egin gura izan dut, monarkiaren prentsa-oharren, komunikatuen, eta abarren bidez egiten duen kontakizun ofiziala desmuntatzea.

Zer nabarmenduko zenuke?

Inkoherentzia da azpimarratuko nukeen ideia. Hau da, errege-erreginen familiak manifestatu izan duena eta egin izan duena ez datoz bat. Ikusi dugu azken hamarkadetan saldu izan zaigula estatuko instituzio erabilgarri, demokratiko eta garden moduan.



Carlos Guzman. C.G.

Baina, urteen poderioz, ikusi dugu ez dela ez erabilgarria, ez demokratikoa, ezta gardena ere. **Apirilaren 14an aurkeztu zenuen. Ze harrera izan duzu hilabete hauetan?**

Oso ona, egia esan. Jende askori arreta piztu dio izenburuak, nahiko lotsagabea delako, eta orain arteko erantzunak onak izan dira. Aurkezpen gutxi egin ahal izan ditut, pandemia dela-eta, baina geroz eta leku gehiagotatik deitzen ari zaizkit, eta gaiak interes publiko handia duela iruditzen zait.



MIRARI ALTUBE

Hiru radar pedagogiko herrian

Aretxabaletarako irteeran —Meca eta DIA inguruan—, Alfontso VIII kalean eta Musakolan jarri ditu radarrak Arrasateko Udalak, "herrian barrena ibilgailuen abiadura murriztea eta abiadura mugen inguruko errespetua eta kontzientzia zabaltzea" helburu hartuta. Beraz, horren harira ez dute isunik jarriko. Instalazio lanek 7.169,25 euroko aurrekontua izan dute —BEZa barne—.

Etxekoen alde jokatu, pausoz pauso hobetzeko

Hausnarketa prozesu bat ireki du aurten Mondrako zuzendaritzak, futbolari gazte eta beteranoak "elkarrengandik gertu" egon behar direla ondorioztatuz. Arrasate Hiria torneo antolatu dute iraileko lehen astebururako: "Ea publikoarekin izaten den"

Hasier Larrea ARRASATE

Aurtengo denboraldiak eman-dako esperientziatik abiatuta, Arrasateko futbol kluba hasia da etorkizuna marrazten. Lau urte bete dituzte karguan Xabi Etxebarria presidenteak eta Ander Romero kirol zuzendariak: "Sasoi honetan balantzaka ibili gara, baina egonkortzeko oinarriak dauzkagulakoan gaude".

Egonkortze hori diseinatu duten kirol proiektuarekin erdies-tea da euren asmoa. Hor bi alderdi bereizten ditu Romerok: "Alde batetik, herriko jokalaria eta entrenatzaileen promozioa, eta, bestetik, lan egiteko metodologia zehatza". Bigarrenari dagokionez, pandemiak martxan jartzea galarazi die: "Baina ea datorren denboraldian abiatu dezakegun". Hala, kadeteetatik aurrerako kategoriak Gipuzkoako mailarik onenetan mantendu nahi dituzte, "formakuntzarako ona" izango dela iritzita.

Etxekoen aldeko apustuak "Mondrako izatearen sentimendua" berreskuratzeko helburua izango du jomugan. Etxebarriak esan duenez, "identifikazio hori galdu egin da, kirol arlotik harago doan arazoa" izanik. Klubak, berriaz, lehen taldean gazteak eta beteranoak nahastuz egingo du "iraganeko garra berpizteko"



Xabi Etxebarria presidenteak eta Ander Romero kirol zuzendariak, Mojategin. H.L.

saiakera: "Uste dugu taldeko zaharrenek oraindik mantentzen dutela harrotasun hori; beraz, eurak dira egokienak behetik datozenei erakusteko".

Konfiantza gazteengan

Joan den sasoiari hasi zuten ibilbide hori, talde nagusian bi gazte debutatu eta lehen urteetako seniorrek jokatzeko aukera izan zuten. Joera horri jarraipena emateko, Cristian Matias ikusten dute prestatzaile lanak egiteko proposena: "Ondo ezagutzen ditu Mondrako

talde gazteak, eta berak ere baieztatu digu bide hori urratzea posible dela, behetik datozenek maila txukuna emateko potentziala daukatela".

Entrenatzaileekin ere gauza bera egitea da asmoa. Lehen ez bezala, gaur egun titulua atera nahi dutenek Mojategin bertan egin dezakete ikastaroa, Realarekin lortutako akordioaren bidez. Bertakoen formakuntza "errazten" duelakoan, Mondrak "esfortzu ekonomikoa" egiten du kurtsoak ordaintzeko, "ikaragarria" iruditzen baitzaie

etxeko kideak arduratzea azpitaldeak gidatzeaz. Pertsona horiek jokalariei Mondrako izatearen sentimendua indartzen lagunduko dietela uste dute.

Balantze ekonomikoa

Diru-kontuen gaiari helduta, 210.000 euroko aurrekontua izan dute joan den denboraldian. Inoiz baino gutxiago gastatu eta fakturatu dute, eta 3.500 euroko galerarekin amaitu. Irailetik aurrerakoari 194.000 euroekin hastea aurreikusten dute, babesleek kirol elkartearen sostengatzeko arazo handiagoak izango dituztelakoan. Horren harira, presidentek nabarmendu du pandemia garaian "babesleen %90ek" ordaindu zuela kuota osoa. Datorren urterako negoziazio bideak irekiko dituzte tokiko enpresa, taberna, tailer eta estudioekin, baina baikortasunez mintzo dira, "urte arrunta" izango dela espero baitute.

Bazkideek, gainera, ez dute kuotarik ordaindu beharko, "iaz ordaindutakoa aurten aprobetxatzen". Salbuespen bakarra alebin mailako kirolariak izango dira, bazkide berri bezala sartuko direlako.

Federazioa, "hurbilago"

2021ak aldaketak ekarri ditu Gipuzkoako Futbol Federazioan, hauteskundeak Garai Berriak hautagaitzak irabazi baitzituen. Bi entitateen arteko harremana aldatuko den ondorioztatzeko "oraindik goizegi" dela aipatu arren, Mondrako ordezkariak ikusten dute aurreko agintaldiarekiko desberdintasunik: "Zonakako koordinatzaileak jarri dituzte, probintziako periferietako taldeengandik hurbilago egoteko".

Hala ere, Mondrako ardura-dunek ez bezala, GFFko arduradunek bertatik lan egiten dutela nabarmendu dute, eta, erabakiak hartzeko klubaren iritzia kontuan hartzea begi onez ikusi arren, kontziente dira ezin dutela nahi beste ekarpen egin.

Torneoaren ostean, Liga

Txapelketa erregularrari ekin aurretik, Arrasate Hiria torneo antolatuko dute irailaren 4rako eta 5erako. Hiru taldek beharrean lauk jokatu dute elkarren artean; gonbidatuak, ziurrenik, Bergara, UDA eta Elgoibar izango dira. Aurrekari hori baliatuko dute, beraz, Ohorezko Erregional Mailako ligan motorrak berotze aldera. Irizpide kuantitatiboei baino gehiago, kualitatiboei begiratu nahi diete: "Hau da, ez dugu sailkapeneko postu bat lortzearekin amesten, taldea eraten joatearekin baizik".

Pazientzia, denboraldiz denboraldi joango dira anbizio handiagoko helburuak finkatzen. Bien bitartean, "jokalarien %85-90 harrobikoa izatea" lehenetsiko dute, eta etxeko prestatzaileengan utzi futbolariak ahalik eta gehien motibatzearen ardurara. Ilusioa berreskuratzeko ekuazio horren zati garrantzitsu bat ikusleek osatuko dutela ere argi daukate, eta irailean Mojategi jendetz betetzea sartzen da euren planen barruan: "Momentuz, %60ko edukiera baimendu du Espainiako Gobernuak, eta konforme gaude horrekin".

TALDE NAGUSIAREN LIGAN BAKARRA IGOKO DA MAILAZ ETA LAUK GALDUKO DUTE KATEGORIA 2022AN

Kantxatik aldendu, jokalarien alboan egoten jarraitzeko

Herrero anai-arrebek agur esan diote eskubaloiko kirol ibilbideari, baina klubaren parte izaten segituko dute

H.L. ARRASATE

Urte luzez eskubaloia praktikatzen ostean, kirol-ibilbideari amaiera eman diote aurtengo denboraldian Josu eta Ane Herrero. Halere, Arrasate Eskubaloitaldeari lotuta jarraituko dute

aurrerantzean ere. Udako eskubaloia campusa antolatzen ibili dira uztailean zehar; datorren denboraldirako, bestalde, klubeko taldeak entrenatzen jarraitzeko asmoa erakutsi dute bataz zein besteak: "Ez dugu gure


bizitza eskubaloirik gabe imajinatzen".

Eskubaloia "familia" bezala definitzen dute biek ala biek, senitartekoengandik jaso zutelako zaletasuna, baina baita taldean ere "familia giroa" nagusitzen delako.

"Kirol minoritarioa" dela jakin arren, gazteak eskubaloira gerturatzen ari direla uste dute anai-arrebek. "Nesketa mutiletan baino etorkizun ziurragoa ikusten dugu", aipatu du Ane Herrero.



Josu Herrero eta Ane Herrero, Iturripeko kiroldegian. GOIENA



Goian, The Potes taldekoak diskoaren aurkezpenean; behean, Ibil Bediko musikariak. ENEKO AZURMENDI / IBIL BEDI

Doinu fresko eta landuak entzungai Santa Teresan

The Potes eta Ibil Bedi taldeak igoko dira hilaren 21ean agertokira, pandemian zehar mimos egindako kantuak publikoaren aurrean aurkeztera. Folk eta rock doinuak ekarriko dituzte arrasatearrek eta pop ukutuko melodiak, berriz, iruindarrek

Hasier Larrea ARRASATE

Uztaileko Udazabal egitarauak bete du ibilbidearen erdia, eta tokiko eta inguruko bakarlari zein talde ugariri oholtzara igozteko aukera eman die. Beste horrenbeste egingo du bigarren txanpan; lehen geralekua Santa Teresako eliza izango da, datorren eguaztenean, arratsaldeko zazpietan. Ibilbide oparoa izaten

dabiltzan bi taldek joko dute herritarren aurrean: The Potes arrasatearrek eta Ibil Bedi iruindarrek, hain zuzen.

Talde "helduagoa"

Aretxabaletan, Areantzako belardian, *Damurik ez, bihotza aske* diskoa aurkeztu zuen The Potesek joan den hilean. Bigarrenez eskainiko dituzte berta-

ko abesti berriak oraingoan, lehen esperientzian "zuzenekoan defendatzeko gai" izan zirela frogatu ostean.

Peru Altube bateria-jolearen arabera, heldutasun bat lortu du taldeak, eta, "asko entseatzen ibili ostean, inoiz baino indartsuago" daude. Azken kantuetan ere nabari dira aldaketak, "euskara hutsean eta rock kutsu

handiarekin" landu baitituzte. Lanak "harrera ona" izan duela nabarmendu du, jende ugari hurbildu baitzaie "gustura" entzun dutela esanez. Izan ere, jatorrian uztartzen zuten folketik urrundu da oraingo honetan seikotea, gitarra elektrikoari protagonismo handiagoa eskainiz eta street-punk estiloan gehiago sakonduz. Aldaketa hori "modu naturalean" gertatu dela gaineratu du Altubek.

Areantzakoaz gain, Gasteizko Iradier aretoan ere jo zuten maiatzean, Talco musika talde italiarrarekin batera, nahiz eta orduan ez zeuzkaten disko berriko kantuak gertu oraindik. Datorren astekoaren ostean atsedean hartuko du The Potesek, irailerako pilak kargatzeko.

Ibil Bedikoak, biran

The Potesekoak bezala, "dena ematera" irtengo dira Iruñeko Izan Bedi taldeko bost kideak. 2019tik "nahiko zabalkunde" izan dutela dio Ibai Osinaga gitarra-jole eta abeslariak. Otsailean kaleratutako *Beltxarga beltza* diskoaren biran murgilduta daudenez, "horko kantuak eta baita zaharragoak" eskainiko dituzte Santa Teresan.

"Taldea lasai" bezala definitzen du Osinagak Ibil Bedi: "Ez dugu geure burua txosnetako gau-giroan aritzeko moduan ikusten, eserita ikusteko aproposagoak garela esango nuke".

Bateria, baxua, gitarra, saxoa eta biolina dira erabiltzen dituzten musika-tresna nagusiak, nahiz eta piano-doinuak ere uztartzen dituzten emanaldietan. Sorkuntza faseari garrantzi handia ematen diotela aipatu du Altxatu taldeko kide ere izandakoak: "Zer baino gehiago,

kantuak nola egiten ditugun da gakoa".

Iruñean sortu den Laba egitasmoan sartuta daude Ibil Bediko zenbait kide. Osinagaren esanetan, "tokiko diziplina artistikoen topagune bateratua" izan nahi du Labak. Bistan da eboluzioan murgilduta dagoela Nafarroako hiriburuko eszena musikala, garai batean rock taldeengatik ezagutzen bazen ere, estilo musikal zabalak uztartzen baitituzte belaunaldi gazteek.

Sortzaileen artean harreman osasuntsuak garatzen direla mahai-gaineratu du Osinagak, eta eurek, behintzat, igartzen dutela mugimendu indartsua eratzen ari direla, "nahiz eta, agian, kanpotik sentsazio hori ez izan".

Hurrengoak, Gag Street Boys

Kale antzerki umoretsua ikusteko aukera eskainiko du Udazabalek gaur zortzi, hilaren 23an, arratsaldeko zazpietan. Seber Altuben eskainiko dute Iñigo Salinero eta David Gutierrez aktoreek esketxez, parodiaz eta karaokez betetako *Yes, we art* izeneko zirku kutsuko saioa. Gag Street Boys bezala egiten duten lehen proiektua da *Yes we art*.

Julen Alonso trikitilariak eta Eñaut Zubizarreta biolontxelo-joleak herenegun eskainitako kontzertua bertan behera gelditu zela-eta, Udal Sailak adierazi du "beste hitzordu bat" jartzeko lanean ari direla, baina oraindik ez daukatela data konkreturik.

INSTRUMENTU UGARI JOTZEN DITUZTE TALDE BIEK, ETA IBILBIDE OPAROA EGITEN DABILTZA

Antzerki udalekuen bigarren txanda hasiko da astelehenean

12 eta 14 urte arteko gazteek maskaren bidez gorputz adierazmena lantzeko aukera izango dute astebetzez

H.L. ARRASATE

Ekain eta uztail arteko astean 9 eta 11 urtekoek probatu ondoren, adinez nagusiagoak direnei tokatuko zaie datorren astea antzerkiaren munduan bost egunez murgiltzea. Maider Al-

tzelai irakasleak aipatu du "aurreroko txanda bezala datorrena ere motz" geratuko dela, beharbada, baina "interpretazioan lehen esperientzia" edukitzeko moduko udalekuak izango direla. Arrasatetik ez ezik, Oñatitik

eta Eskoriatzatik ere etorriko dira partaideak.

Alderdi plastikoan eta gorputz sormenean ardaztuko da egonaldia, maskara propioak landu eta jolasen bidezko taldekako antzezpenak egingo baitituzte. Jarduera gehienak Dokeren lokalean egingo dituzte, "materiala kalera ateratzeko zailtasunagatik". Halere, jolas batzuk kanpoan egitea aurreikusten du Altxelaik. Ohiko udalekuei "beste ikuspuntu bat" ematen diete, modu horretan, Dokekoek.



Lehen txandako partaideak, euren maskarak soinean dituztela. MAIDER ALTZELAI

Pago zaharra omenduko dute, bizirik jarrai dezan

Urmugako bosgarren etapa Aramaiotik pasako da bihar. Kruzeta inguruan geldialdi berezia egingo dute, han dagoen pago motz bat omentzeko: 'Pago zaharra' ekitaldia izango da. Txalaparta, abesbatza, bertsolariak eta musika egongo dira, 13:30ean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Bihar, zapatua, pasako da Urmuga Aramaiotik. Urkiolatik Arlabanerako ibilbidea egingo dute, 24 kilometro. Ibilaldian zehar, geldialdi berezia egingo dute Aramaion. Kruzetatik gertu geratuko dira, Jarindogoiti inguruan, hain zuzen.

Pago zaharra ekimena egingo dute han, aurtengo ekitaldiko ekimen berria izango dena. Izan ere, jabetza pribatukoa den pago hori sinbolo moduan erabili nahi dute; ondasun natural ez-materiala zaintzeko sinbolo moduan.

"Ederra eta zaharra"

Felipe Uriarteren ideia izan da Aramaioko pagoa sinbolo moduan erabiltzea. Iazko lehenengo Urmuga ekitaldian, Orixolen behe-za zihozela egin zuen topo pago zaharrarekin, eta, "ederra" izateaz gain, "zaharra" iruditu zitzaion. Osasunez ondo dagoen pagoa izan arren, zaintza behar

du; eta bihar egingo duten ekitaldiaren bitartez zaintza horren beharra aldarrikatuko dute, pagoak bizirik jarrai dezan.

Pago motzaren gerri inguruak 4,5 metro ditu, eta, zenbat urte dituen zehatz ez dakiten arren, 250 bat izan ditzakeela uste dute Urmugako antolatzaileek.

Inguratu egin dute

Udaleko Ingurumen zinegotzi Santi Balantategik dio Urmugako antolatzaileek euren asmoen berri eman zietela, eta Udala ados egon dela ekimena egitearekin. Pago ingurua txukundu egin dute, eta, gainera, kartel bat jarri diote pago zahar horrek

ONDASUN NATURAL EZ-MATERIALA ZAINTEKO SINBOLOA IZANGO DA ARAMAIOKO PAGOA

ematen duen bizitzaren inguruko informazioarekin.

Musika eta bertsolariak

Aramaioko Udalak nahi izan du biharko ekitaldian herritarrek parte hartzea. Hala, Urmugako antolatzaileekin koordinatuta ibili dira lanean ekimena antolatzen.



Pago motza hesi batekin inguratu dute. ARAMAIOKO UDALA

Urmugak izango dituen beste ekitaldi batzuetan sarrerak erosi beharko diren arren, *Pago zaharra* ekimenerako ez da sarrerarik erosi behar izango.

Edozelan ere, arauak eta edukiera errespetatu ahal izateko, gonbidapena beharko da.

Ekitaldian parte hartuko dute Aramaioko txalapartariak eta Alaiak abesbatzak; Julio Soto, Manex Agirre eta Xabi Igoa bertsolariak; eta Eñaut Zubizarreta txelo-jotzaile eskoriatzarrak. "*Poliedro* laneko hiru abesti eskainiko ditut", dio Zubizarretak. Musikiariak pozik hartu du ekimenean parte hartzeko aukera. "*Mendian hil, hirian hil* dokumentalean ezagutu nuen Felipe Uriarte", dio, eta gaineratu du: "Nire proiektua ezagutu zuen eta zerbait egin behar genuela esan zidan".

Eskoriatzarrak pozik hartu du Urmuga moduko ekimen batean parte hartzea, atzean balio "politik" daudela iritzita.

Mendi Parta, Ttakun-en eskutik

Ttakun txalaparta taldeak Mendi Parta eguna ospatuko du bihar, zapatua. Durakogain mendira igoko dira, 10:30ean elkartuko dira Kruzeta gainean. Durakogainen txalaparta saio librearekin egingo dituzte, 11:00etan. Gainera, hara joango diren artean txorizoa eta sagardoa banatuko dute. Giro aparta izango dute.

Aurtengo Mendi Parta eguna, baina, ez da Durakogainen amaituko. Ttakun txalaparta taldeko kideek Urmugako ekitaldian parte hartuko dute. Pago zaharren inguruan elkartuko dira ekimenean parte hartzeko eta txalaparta jotzeko. 13:30ean pago zaharren ekitaldian egoteko, Durakogaindik 12:30ean hartuko dute beheko bidea. Ttakun taldeko kideak gogotsu daude; izan ere, hamabost hilabeteko etenaldiaren ondoren, ekitaldia egingo dute.

Edurne Kortabarria eta Pilar Irasuegi, lore ederrenen jabe

'Aramaio loratzen' ekimeneko lehenengo edizioan bederatzi parte hartzailek eman dute izena

A.E.G. ARAMAIO

Banatu dituzte *Aramaio loratzen* ekimeneko sariak. Udalak lehenengo aldiz antolatu du balkoi eta etxe atariak loreekin apaintzeko lehiaketa, eta lehenengo edizio honetan bederatzi parte hartzailek eman dute izena. Bi kategoriatan banatu dituzte sariak: leiho eta balkoien kategorian Pilar Irasuegi Altuna izan da irabazlea eta etxe atarien kategorian, Edurne Kortabarria Ortueta, hain zuzen. 200 euroko sari bana irabazi dute bi irabazleek.

Parte hartzaileen artean 50 euroko saria ere zozketatu dute eta irabazlea Ruben Arriolabengoa Unzueta izan da.

"Lehiaketan parte hartu, zergatik ez?", pentsatu zuen Pilar Irasuegik izena ematerakoan. Lore artean bizi dela dio, bere zaletasuna loreak direla. Balkoietan, batez ere, geranioak ditu; horrez gain, hainbat zuhaixka eta kaktus ere badituela dio. Etxearen aurrealdea bezain polita atzealdea dauka, baina alde hori ez da ikusten. Loreak polit izateko trukurik ez dago-



Edurne Kortabarria eta Pilar Irasuegi. ARAMAIOKO UDALA



la dio: "Zaindu egin behar dira, maitasuna eman. Lore bat gaixo samar baldin badago, zaindu egiten dut, ez dut sikatzen uzten".

Edurne Kortabarriak dio garai ona dela loreendako. Batez ere, ahizpek animatuta eman zuen

izena lehiaketan. Arraga auzoan bizi da eta etxe atarian geranioak, alegriak... ditu, baita hortentsiak ere: "Orain da hortentsien garaia". Saria sorpresaz hartu du, eta ilusioa egin dio: "Beste balkoi batzuk ere dotore daude".

Sua erabiltzea debekatuta dago Araba osoan

Salbuespenez, landa ingurune osoan sua erabiltzea debekatu du Foru Aldundiak. Araua indarrean egongo da irailaren 19ra arte. Ezingo da sua egin: edozein motatako landa lurzorutan, mendi publiko zein pribatuetan, naturgune babestuetan, parke probintzietan eta aisialdigu-neetan, eta probintzia edo toki titulartasuneko errepideetako atsedenguneetan.

Era berean, debekatuta dago erretegiak, barbakak eta sua egiteko instalazio eramangarriak eta finakoak erabiltzea. Tokiko parkeetan baimendutako barbakak bakarrik erabil daitezke, eta egur-ikatz erabiltzea da gomendioa.

"Saiatzen naiz sentitu dudana irudikatzen"

JULEN AXPE ARGAZKILARIA

Itxialdia aprobetxatu zuen Julen Axpek argazkigintzaren ingurukoak ikasteko. Instagram eta Facebook kontuetan ikus daitezke egiten dituen lanak: '@julaxpe'

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Julen Axpe argazkilari gazteak bere ibilbidearen berri eman dio GOIENARI.

Noiz hasi zinen argazkiak egiten?

Beti gustatu izan zait argazkiak ateratzea: bidaia, natura... Norberaren bizipenen oroitzapen ona gordetzeko modu bat da. Akzio kamera go-pro batekin hasi nintzen eta poliki-poliki hobetzen joan naiz. Iazko itxialdiaren ostean, kamera hobea erosi nuen. **Izan ere, zuri itxialdiak lagundu egin dizu.**

Bai, esan daiteke askorendako kaltegarria izan den itxialdia niretzako lagungarria izan dela. Etxean egon eta gauzak ikasteko denbora izan dut; nik aprobetxatu dut argazkigintza, bideogintza... ikasteko. Interneten bilatu eta jolasaren bitartez ikasi dut, autodidakta izanda garatu ditut nire abilitateak.

Nolako argazkiak egiten dituzu?

Niri gustatzen zait nik ikusten dudana argazki baten islatzea. Pertsonalki, natura eta mendia asko gustatzen zait, eta kanpoan egotea. Inspiratzen nauen natura hori irudikatzea nik sentitu dudana moduan. Azken finean, edizioaren bitartez norberaren sentimenduak jar daitezke.

Zertan jartzen duzu arreta argazki bat editatzerakoan?



Julen Axpe. A.E.G.

"ETXEAN EGONDA, GAUZAK IKASTEKO DENBORA IZAN DUT; INTERNETEN BILATU ETA IKASI DUT"

Saiatzen naiz sentitutakoa irudikatzen. Triste baldin banengoen, argazki iluna izango da; aldiz, egunsenti argitsu baten pozik egon banaiz, kolore gehiago sartuko diot.

Bideogintzan ere ibiltzen zara?

Egia esan, gustatuko litzaidakeen zerbait da, baina lan handia eskatzen du. Beste itxialdi bat beharko nuke bideogintza ikasteko. Gaur egun, daukadan dro-nearekin ibiltzen naiz.

Baduzu leku kuttunik argazkiak egiteko?

Leku asko egon daitezke kuttunak, baina, egia esan etxe, ingurua da gehien gustatzen zaidana. Esan daiteke paradisuan bizi garela; bailara elegantea da eta sortzen diren egoera klimatikoak gustatzen zaizkit: behe-lainoa, hodei-dorreak...

Julen Olaizolak Arabako lau eta erdiko finala jokatu du bihar

Gazte mailako kategorian lehiatuko da pilotari aramaioarra, Laudioko Arkaitz Eskuzaren aurka

A.E.G. ARAMAIO

Arabako lau eta erdiko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte bihar, zapatua, Gasteizko Ogeta pilotalekuan. Gazte mailan, Julen Olaizola aramaioarra finalean izango da. Joan den domekan Olaizolak eta Markel Arriolabengoak Aramaion jokatu behar zuten finalerdia bertan behera geratu zen, Arriolabengo aramaioarra baja izan zelako azken momentuan; hala, 22-0 irabazita egin zuen aurrera Olaizolak. 10:00etan hasiko da finala eta aramaioarrak aurrean

izango du Laudioko Arkaitz Eskuzaren aurka.

22 urtez azpikoen kategorian ere beste aramaioar bat egon daiteke finalean. Atzo, eguna, finalerdia jokatu behar zuen Asier del Campo pilotariak Amurrioko Isaia Mardarasen aurka –lerro hauek idazterakoan amaitu barik zegoen lehia–.

Finalak Gasteizko Ogeta pilotalekuan izango dira, 10:00etan hasira. Bost final izango dira: gizonezkoetan; kadete, gazte, 22 urtez azpiko eta senior kategoriak; eta emakumezkoena.



A.E.G.

Udalekueetan musika sortzen

Aramaioko gaztetxoek musikari apartak direla erakutsi dute, beste behin. Uztailaren 8an hasi zituzten 'Musika sortzen' udalekueetan hamar gaztek parte hartu dute eta bi abesti sortu dituzte: bat melodikoa eta bestea soinu elektronikoduna. Gaur izango da ikastaroko azkeneko eguna. Larraitx eta Manex Arriolabengoak irakasleak pozik daude ikastaroarekin.

Azkena, lan handien eman diona

Argazki bat aukeratzekotan, egin duen azkena aukeratu du Axpek. Lanera joan aurretik, jaiki zenean behe-lainoa ikusi eta Kruzeta gora egin zuen. Inguru hartan, dronearekin egunsentiaren argazkiak egin zituen. "Behe-lainoa eta zeruaren kolore gorria... Pozik nago argazkiarekin. Gehien kostatu zaidana eta gehien poztu nauena da".



Kruzetatik egindako argazkia. JULEN AXPE

San Martin parrokiaren organo kontzertua eskainiko dute gaur

Esther Ciudad organo-jotzaileak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, San Martin parrokiaren Foru Aldundiaren antolatzen duen Arabako Organoaren Jaialdiaren barruan izango da emandakia, 19:00etan. Ciudad zargozarra da eta han egin zituen organo ikasketak. Europan eta Amerikan zehar ibili izan da birak egiten.

Domekako ziklismo probak trafikoa eragina izango du

Domekan, uztailaren 18an, 43. Dorletako Ama proba jokatu dute. Lasterketa Aramaiotik pasako da: 10:15etik 11:00etara bitartean Iturzuri eta Nardeaga kaleetatik; 10:30etik 11:20ra bitartean Behekoinduzpetik sartu, eta A-4021 eta A-3920 errepideak zeharkatu dituzte. Trafikoa zabalik egongo da txirrindularirik ez dagoenean.

Ixadebalde uztailean egingo da, lehenengoz

Herriko bederatzi merkatarik uztailaren 22an eta 23an eskainiko dute uda sasoiko jeneroa, merkatuta, eta jatekoa eta edatekoa; saltokien aurrealdean jarriko dituzte postuak, eta egunean kontzertua izango da Mitarte kalean

Mirari Altube ARETXABALETA

Ixadebalde merkealdien azoka irailean beharrean uztailean egingo dute aurten Aretxarte merkatarien elkarteko kideek; hurrengo egunean eta egubakoitzean hain zuzen ere. "Proba egitea erabaki dugu data aldatuta. Beste herri batzuetan ondo funtzionatu izan du", adierazi du Kilima arropa dendako Meritxell Serratok, eta Tak oinetako dendako Vanessa Borregok gaineratu: "Irailean oso lanpetuta egoten gara udazkeneko jeneroarekin, eta niri behintzat hobeto datorkit". Belar Metako Idoia Elexpururen ustez Aretxabaletan erostea bultzatuko du data berriak, herritarrek opor egunetan kanpora joan aurretik. Azokaren lehen egunean, gainera, musika izango dute lagun kaleak girotzeko.

Saldu bakoak

Bederatzi merkatarik jarriko dituzte postuak, bakoitzak bere dendaren aurrealdean; hona hemen horiek: Asensio, Kilima, Titare, Tak, Haurrak, Amaia ume denda, Belar Meta, Kiloka eta Hankabeltz. Lehenengo zapiak udaberri eta uda sasoiko salgaiak eskainiko dituzte, prezio beheratuekin, eta azken biek, jatekoa eta edatekoa, besteak beste. "Prezioak ezin ditut jaitsi nik, baina azken produktuak, xaboiak eta kremak, adibidez, erakusteko azoka aproposa da Ixadebalde niretzat", adierazi du Kiloka dendako Kris Hernandez arduradunak.

Gainerakoek ohiko produktuak jarriko dituzte ikusgai eta salgai: uda sasoiko arropak, oinetakoak eta osagarriak, esaterako. "Eguraldiak ez du lagundu orain arte eta dendan gelditu dugu jeneroa; hortaz, ondo etorriko zaigu", dio Haurrak dendako Silvia Alvarezek.

Sariak ere banatuko dituzte, aurrekoetan egin ohi duten legez;



Silvia Alvarez, arropak gertatzen Ixadebalde azokarako. MIRARI ALTUBE

saltoki bakoitzak sari bat zozketatuko du bezeroen artean eta azoka bukatu aurretik banatu.

Laur otarre zozketatzeko

Aretxartek udako kanpaina ere badu abian egunotan, eta lau

otarre zozketatuko ditu uztail bukaeran. Elkarteko kide guztiek produktu bana jarri dute eta bezeroen artean zozketatuko dituzte horiek. Otarreak ikusgai daude Durana kalean daukaten erakusleihoan.



Screamers & Sinners taldea oholza gainean. ENEKO AZURMENDI

Oholtzan abesteko "gogotsu"

Screamers & Sinners talde aretxabaletarrak merkealdien azoka girotuko du eguen iluntzean; Mitarte kalean izango dira (19:30). Disko berria gertatzen dabilta, eta kanta batzuk aurreratuko dituzte, baita abestirik ezagunenak eskaini ere herritarrei.

Santa Kurtz kaleko lanen zuzendaritza, berriro lizitazioa

Aurretik egindako deialdira ez da inor aurkeztu, eta diru kopuru handiagoarekin ateratzea erabaki du udalbatzak

M.A. ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkuran elkartu zen udalbatza eguaztenean, eta, hainbat gairen artean, Santa Kurtz kaleko hornidura eta sa-neamendu lanak izan zituen mahai gainean. Lanen zuzendaritza hautatzeko lizitazioa inor ez dela aurkeztu azaldu zuen Xabi Otxoa zinegotziak: "Diru kopurua baxua izan daiteke arrazoietako bat; horregatik, poltsa handitzea proposatzen dugu". Hala, 37.400 euro igotzea hori onartu zuten, Udal Gobernuaren aldeko botoekin; 2022ko diru partidaren egingo dute igoe-ra hori.

Bestetik, Urats Gain adinekoren egoitza izandako eraikinaren desafektazioa onartu zuten aho batez. Eraikin hori Eusko Jaurlaritzaren eskuetan utziko du Udalak osasun etxe berria egiteko, eta horretarako lehen pausoa izan zen.

Debagoieneko Mankomunitateko gizarte mapa garatzeko Aretxabaletako udal ordezkaria ere izendatu zuten; Karmele Uribarri Ongizate zinegotzia izango da. EH Bilduk adierazi zuen pertsona aproposa dela, baina eskatu zuen Mankomuni-

tatean lantzen diren gaiak Udaleko batzordeetan ere "lantzea maiztasun handiagoarekin". Unai Elkoro alkateak ez zuen trabarik jarri horretarako: "Dokumentazioa ikusgai jarriko dugu, eta gero, zerbait egonez gero, landu".

Udal langileen egoera

Giza baliabideak arrazionalizatzeko plan estrategikoa ere onartu zuten, aho batez. Udal langileen egoera zehaztuko du horrek. "Badakit zeresan handia ematen dabilela langileen artean", zioen alkateak. EH Bilduko Ion Albi-zuk adierazi zuen "behin-behineko langile asko" daudela Udalean, bederatzi, eta 2024rako lanpostu horiek "legeztatuta" egon behar dutela, Espainiako Gobernuak argitaratutako 14/2021 dekretuak hala eskatzen duelako. "Lanpostuen definizioek eta hainbat osagarri ere arreta behar dute", gaineratu zuen.

Adostasun zabalak eta plan zehatzak beharko direla aipatu zuen Albizuk, eta alkateak ere berretsi zuen adostasuna beharrezkoa izango dela. Plan hori garatzeko kanpoko aholkularitza eskatzea mahai gainean dutela azaldu zuen Elkorok.



IMANOL SORIANO

Bost edukiontzi erreta

Bost edukiontzi erre zituzten joan den domeka arratsaldean Errekabarren kalean. Unai Elkoro alkateak gertakaria gaitzetsi du, eta ez dela "lehen aldia" izan gaineratu. Asfaltoa eta ingurua ere kaltetuta geratu ziren edukiontziaren piztutako suaren ondorioz. Astelehenerako ordezkatu zituzten erretako bostak.



Bizkaia kalea postuz beteta, orain dela bi urte egindako artisau azokan. GOIENA

Portasol auzo ingurua girotuko dute asteburuan

Jairik ez da izango aurten ere, baina, keinu bat egite aldera, bost ekitaldi antolatu dituzte zapatarako eta domekarako: grafiti erakustaldia, edozein adinetakoendako lasterketa, mus txapelketa, artisau azoka eta omenaldia Luisa auzotarrari

Mirari Altube ARETXABALETA

Iaz bertan behera utzi behar izan zituzten jaiak Portasol auzoan, eta aurten ere ez dira izango. Dena den, "ez galtzeko asmoarekin" horien ordezko ekitaldiak antolatzeko ahalegina egin dute. "Egoera ez da normala, baina ekitalditxo batzuk izango dira, keinu bat egitearren", adierazi du Juani Fabianek, antolatzaile taldeko kideak.

Lasterketa bihar eguerdian

Grafitiek aurten ere lekua izango dute auzoko hormetan. Iaz bost marraztu zituzten eta aurten beste hiru egingo dituzte: Solohandi kalean *Jowon* grafiti-egileak, Araba ibilbidean *Esanek* eta Loramendi kalean Aliprox inguruan. *MutikoKristal*-ek. Bihar eta etzi, goiz partean, egongo dira lanean, eta auzotarrak bertatik bertara ikusteko aukera izango dute.

Aurreko urteetan arrakasta handia izan duen lasterketak ez du hutsik egingo. Bihar izango

da (12:30), Bizkaia kalean, eta izena aurretik eman beharko dute euskaltegiaren aurrealdean (12:00) neska-mutikoez zein helduek. "Dorsalak eta dominak gertu ditugu; gertura daitezela gura duten guztiek", dio Fabianek.

Mus txapelketa ere jokatu dute (16:00), Goiaran erretegiaren eta Azkena tabernaren inguruan.

Gozoki dendako Luisa

Artisau azokarekin esnatuko dira auzotarrak domekan. Bizkaia kalean jarriko dituzte postuak (10:30), hogeia, eta han egongo dira eguerdira arte: "Norberak etxean egindakoak eta bigarren eskuko materialak izango dute lekua", azaldu du Fabianek. Eta, hain zuzen ere, Bizkaia kale horretan urte askoan gozoki denda izan zuen Luisa Castro omenduko dute, 13:30ean: "Auzoan inor ezaguna izan bada, Luisa da hori, haren gozoki dendatik pasatu ginelako gehienok. Eta hark beti izaten zuen irribarre bat guz-

tiontzat". Horiez gain, barrakak ere izango dituzte neska-mutikoez egunotan, Gipuzkoa plazan.

Antolatzaileek badakite ekitaldi batzuen falta igarriko dutela auzotarrek: "Paella txapelketa, adibidez; horren eske daude hainbat. Baina ez da samurra izango hori kudeatzea, eta, hortaz, datorren urtean izan beharko du".



Tradizioa eta dantza garaikidea bat eginda 'Gazte' ikuskizunean

Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak azken lana eskainiko dute eguaztenean, hilaren 21ean, plazan

M.A. ARETXABALETA

Uztailaren 2an Hondarribian aurkeztu ondoren, datorren eguaztenean Aretxabaletara iritsiko da *Gazte*, Oinkari dantza taldeak eta Hika Teatroak elkarlanean ekoiztutako ikuskizuna. Herriko Plazan izango da, 19:00etan –eguraldi txarra eginez gero, Iturrigorri frontoian–. "Dantza jendeari hurbiltzeko gogoz eta plaza girotzera" etorriko dira bi taldeak.



Ikuskizunaren une bat. HIKA TEATROA

Hamabi dantzari gazte

Euskal dantza abiapuntu izanda, dantza garaikidea eta modernoak eta gorputz mugimendua uztartuko dituzte ikuskizunean, aho-tsari ere tokia eginda. Folklore-doinuak baztertu barik, oinarri elektronikoa duten erritmoekin dantzatuko dute, hip-hop ukituarekin eta elektronikak inguratuta. Agurtzane Intxau-

rragak zuzenduta, 17 eta 25 urte bitarteko hamabi dantzari izango dira oholza gainean, Eneko Gil dantzariaren koreografiari jarraiki. Musikari dagokionez, zuzenean eskainiko dute Zigor DJak eta Eneko Dieguez saxofoi-jotzaileak.





Uztailaren 9ko batzarrean, Aretxabaleta kirol elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak azalpenak ematen. UDA

Begirada geroan jarrita, aldaketak datoz UDAn

Joan den ostiralean, bi urteroko batzar orokorra eta ezohiko batzarra osatu zuen klubak. Bertan, hemendik aurrerako erabaki nagusiak zuzendaritzako lau kideren artean hartzea adostu zuten. 2030era begira, 'UDA Komunitatea' landu gura dute

Hasier Larrea ARETXABALETA

Argi eta garbi azaldu du Agurtzane Elkorok, Aretxabaleta kirol elkarteko presidentea, oso urte txarra pasa dutela alderdi guztietan: "Kirolariak, lehiaketak, instalazioak eta elkarbizitza, denak irten dira galtzen". Ikasurte hasieran pronostikoetan behar baino baikorragoak izan

zirela onartu du, baina gero, abendura arte "lelotuta" egon zirela: "Entrenatzen aritu arren, non geunden jakin gabe". Urterilean, berriz, zenbait lehiaketa berraktibatu zirenez, jokalariei "moralia igo" zitzaizela dakar gora, hori funtsezkoa izanik datorren denboraldirako ilusioa berreskuratzeko.

Aurtengotik ikasita, zuzendaritzak ere ilusioz begiratzen dio datorrenari, bai epe motzera, eta baita epe luzera begira. Gizonen futbol talde nagusia "aretxabaletarrez, harrobiko jokalariz, beteta" egoteak piztu die irrika hori, entrenatzailea bera, Unai Calzon, etxekoa izango dela ahaztu gabe. Hausnar-

keta serioagoa egin dute, osterarreta datozen urteetan jartzerakoan. Hala, fokua 2030ean jarri eta UDA Komunitatea izeneko proiektua landuko dute aurrerantzean: "Pandemiak kluba estutasunean egon dela erakutsi digu, eta badirudi orain arte iraun duen modeloa desgertze bidean egon daitekeela; kirola egitean, ezereen gainetik pertsonak hezten gabiltzala aintzat hartuta, izaera transbertsalagoa eman nahi diogu kirol elkarteari".

Lehen aldaketak, zuzendaritzan

Presidente karguan aritu da orain arte Elkorok, baina hemendik aurrera beste hiru bidelagun edukiko ditu alboan: zuzendaritza batzordeko kide izan diren Julen Ezeiza, Iñaki Ibarrondo eta Eñaut Kortabarria. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu dute "gero eta pertsona gehiago" dagoela UDAn, izan jokalaria, entrenatzaile zein hezitzaile, eta, horrez gain, "gero eta profesionalizatuago dago urtez urte". Guztira, 600 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute eskupilota, gimnasia erritmikoa, karatea, areto futbola eta futbola praktikatzeko, baita txirrindularitzarekin eta mendiarekin lotutako ekitaldiak antolatzen ere.

Bestalde, "diru iturriei asko begiratu behar zaiela eta dirua lortzeko imajinazio asko behar dela" ere aipatu du Elkorok al-

daketaren arrazoien artean, eta entitateak "300.000 euro inguruko aurrekontua" duela zehaztu.

Urte normalaren esperoan

Diru kontuez galdetuta, "doikuntzak" egin behar direla azpimarratu du Elkorok: "Guk gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu ikusleak kirol ekitaldietara etortzeko, baina oraindik ez dakigu ehuneko ehunetan hori posible izango ote den". Izan ere, "bazkideak jokalarientzako gertu egoteak" markatu du klubaren ibilbide ekonomikoa. Hala izanez gero, bazkide zein kirolariei ohiko kuota pasatzea aurreikusten dute, aurtengo bazkideei kuota erdia eta jokalariei %80 pasa ostean.

Kirola, "behar-beharrezkoa"

Iparrokatza zein izan behar den badakite UDAkoek, pandemiak erakutsi baitie hartu beharreko norabidea. Gertaerak aurreratu gabe, egunez eguneko bizi nahi dute, garrantzitsuena zer den gogoan izanik: "Neska-mutil, nerabe zein helduek kirola praktikatzeko, osasun fisikorako eta buruko osasunerako derrigorrezkoa baita hori".

GERO ETA JOKALARI GEHIAGO DAUZKA UDA-K: "HORREK BORONDATEZKO-LAN HANDIA DAKAR"

Lagunartean, Espainiako Txapelketa irabazi izana gogoan

Afizionatu mailako Espainiako Txapelketa irabazi zuen 1972an UDAk, eta lagun talde hura urtero elkartzen da

Mirari Altube ARETXABALETA

UDAn historian denboraldirik bikainena jokatu zuen taldeko kideak urtero elkartzen dira –iaz izan ezik, pandemiaren erruz–, eta aurtengo ere ez dute hutsik egin. Zazpi jokalaria –batzuk emazteekin–, baten alarguna eta sasoi hartako presidentea elkartu ziren joan den zapatuan, Aretxabaletan.

50. urteurrena 2022an

Juan Arriaranen aginduetara talde horrek liga irabazi zuen lehenengo 1971-1972 denboraldian.

Hirugarren Mailarako txartela lortu zuen gero, Afizionatu Mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazi ere bai, eta, azkenik, gaurko egunez, 1972ko uztailaren 16an, Espainiako Txapelketa eskuratu. "Murtzian jokaturako partidua Loiola irratitik eman zuten. Audioa grabatu egin zuen oñatiar batek eta eskura dugu", azaldu du Jose Inazio Isasmendik.

Talde hartako kideak aurtengo elkartu dira mahaiaren bueltan. Hona hemen: Antonio Buceta *Toño* gasteiztarra, Joxe Migel Uribarren, Santi Idigoras,



Joan den zapatuan elkartutako UDAko jokalaria ohiak eta horien emazteak. ISASMENDI

Pedro Unzueta alargun Rosa Mari Muñoa, Jose Inazio Isasmendi, Joseba Etxagibel arrasatearra, Jose Antonio Murgotio, Jabier San Migel –orduko presidentea– eta Patxi Agirrezabalaga. "Aurtengo, 49. urteurre-

na izan dugu gogoan, eta 2022an, 50.a ospatuko dugu. Gainera, UDAk 75 urte beteko ditu datorren denboraldian eta ospakizun handiagoa egitea da asmoa, bizirik gauden taldekide guztiok elkartuta", dio Isasmendik.

Ortu lehiaketa abian, iraileko Tomatearen Astearen harira

Irailaren 6tik 12ra egingo dute Tomatearen Astea, eta, horren bueltan, ortu lehiaketa jarri dute abian. Debagoieneko edozein herritan daudenak aurkeztu daitezke –Aramaiokoak kenduta– eta azken eguna abuztuaren 5a da. Izena emateko, Arkupera jo daiteke edo mezu bat bidali helbide elektronikoa honetara: infoturismo@debagoiena.eus. Saria izango da 150 euroko bonua orturako tresneria erosteko. Kontuan hartuko dituzte ongariaketa biologikoa izatea eta ortua ondo landuta egotea. Puntu gehiago lortuko dituzte laborantza tradizionalera gerturatzen direnak, eta Aretxabaletako tomatearen egoitea aintzat hartuko dute.

"Konturatzeke, haginka egin zidan txakurrak"

MARI JOSE LOZANO ESKORIATZAKO POSTARIA

Txakur batek eraso egin zion San Juan bezperan, baserri batean pakete bat entregatzen ari zela. Errekuperazio prozesuan dago eta herritarren babesa eskertu du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Mari Jose Lozano 2007a ezkeror ari da lanean Eskoriatzan eta Gatzagan, postari. Txakurrak maite dituen arren, ezbehar larria sufritu zuen San Juan bezpera egunean, banaketa bat egiten ari zela. Bolibar elizateko baserri batera pakete bat entregatzera joan zenean, txakur batek eraso egin zion, eta zauri larriak utzi zizkion aurpegian. Errekuperatzen ari den arren, ez daki ondorioz utziko dion gertatutakoak.

Zer gertatu zitzaizun?

Etxebizitzako sarrerak atari bat du, ilun samarra, eta ez du tinberik. Beraz, ateraino joan behar da, eta eskuaz jo atea. Txakurraren katea solte zegoen, eta zaunkarik ere ez zen entzuten, eta pentsatu nuen jabearekin joan zela txakurra. Atea jo bezain pronto, gainean neukan txakurra, konturatu orduko. Muturrean kolpe bat eman nion gainetik kentzeko, eta orduan askatu ninduen, eta eskerrak; bestela, masailazur guztia arrankatuko zidan. Bitxiene da eraso jaso baino hamar egun lehenago baserriko jabeek ate horretara deitzeko esan zidatela. Normalean, tinbrea duen baserriko albo bateko sarreran egiten nituen entregak.



Mari Jose Lozano Eskoriatzako postaria Correoaren sarreran. IMANOL BELOKI

Zer egin zenuen txakurraren eraso jaso ostean?

Aurpegia odolez, txakurra kontrolatzen saiatu nintzen, distantzia mantenduz, eta baserriko atea kolpatzen jarraitu nuen. Atea ireki zidaten, eta komunera joan nintzen aurpegia garbitzera, aurpegian papera jarrita, baina odol jarria itzela zen, eta ikusten nuen hozkadak oso handiak zirela. Autoan sartu, eta Eskoriatzako Osasun Etxera joan nintzen, baina, aurpegi guztia zarrastatuta neukanez, Donostiako Ospitalera eramanez.

ninduten anbulantzia, kirurgia plastiko departamentura.

Inguretako baserrietako txakurrak ondo ezagutzen dituzu. Nolako txakurra da eraso egin zizuna?

Braco alemaniar motako txakurra zela uste nuen, ezaugarri guztiak batzen dituelako, baina nahasketa bat dela esan didate. Ehiza-txakur bat da, basurde bat aise harrapa dezakeen horietakoa. Gainera salto egin zuenean, eskerrak izan nuen erreakzioa egokia izan zela; bestela, han bertan akabatuko ninduen. Niri txakurrak asko gus-

tatzen zaizkit, baina txakur hau zehazki oso oldarkorra da. Errespeta jokatu behar da haiekin, auskalo nola erreakzionatu dezaket.

Babestuta sentitu zara behin gertaera pasa ostean?

Laneko baja bat da, lanorduetan gertatutako ezbeharra izan delako. Beraz, salaketa jarrita dago Ertzaintzan, baina aseguruok lehenbailehen jarri nahi naute lanean, horren gogoz daudela ematen du. Rajoiaren erreforma laborala dela-eta, medikuek ez naute aztertzen, Mutuakoei bakarrik artatzen naute, eta ez zaie ezer axola. Estetikoki, aurpegia markatuta geratuko zait, baina, gainera, arazo fisikoak ere izan ditzaket, barruko zauriak ondo sendatu barik ditutalako eta, gaur-gaurkoz, ez dudalako eskuin masaila sentitzen. Baserriko jabeak momentuan ez ziren jabetu erasoaren larritasunaz; adineko pertsonak dira, baina esan beharra da hauek ez direla txakurraren jabeak. Hauena ez dakit ezer; ez dira kezkatu nire egoeraz. Alderantziz gertatuko balitz, hurrengo egunean bertan agertuko nintzen pertsonaren ate aurrera, bere egoera galdetzeraz.

Errekuperatzen ari zara, baina izan ditzakezu ondorioak?

Kapaka dut josita aurpegia. Ahoaren eskuinaldeko sentsibilitatea errekuperatu beharra dut, horrek arduratzen nau. Puntuak ondo sikatu behar dira, eta oraindik ez dakit nolako ondorioak izan ditzakedan. Masail bat ez dut sentitzen, eta ikusten ez diren zauri horiek ondo sendatzea garrantzitsua izango da. Alde batetik bestera ari naiz, mediku batengana, beste batengana... Paziente moduan, edo pertsona bezala, nor-

beraren egoera ez zaie axola aseguruokoei. Ebakuntzaren ostean, baja hartzera joan nintzenean, argazkiak nituela ere esan nion, baina ikusi ere ez zuen nahi izan. Informarekin nahikoa zuela esan zidan.

Txakurrarekin zer gertatuko da?

Ertzainei galdetu nien, eta txakurra hamabost egunez obserbazioan egongo zela esan zidaten, eta hiru egunetan eramango dutela albaitariarengana. Egun horietan oldarkor badago, sakrifikatu egin dezakete, baina ez dut uste izango denik kasua. Ez dut ondo ulertzen hala hartzea erabakia. Ez nago txakurra hiltzearen alde, baina txakur honek, zehazki, laguntza handia behar du. Ohiko inguruetatik ateratu behar da, eta ondo irakatsi. Txakur-jabeek halako beste txakur bat ere izan zuten, eta, arazoak izan zituztenez, bat kendu zuten, eta honako hau utzi. Txakurra ezagutzen nuen, eta sekula ez zitzaidan burutik ere pasako beregana hurbiltzea.

Zer esango zenioke halako egoera bat sufritu duenari?

Jendea kontzientziatu beharra dago. Txakur handiei errespetua izan behar zaie, baita txikiei ere. Txakur bat ez da robot bat, baina ondo heztea ezinbestekoa da. Nik ere txakurra dut, eta ezingo nuke gaur egun txakur barik bizi, baina kontuz aritu behar da. Horrekin batera, babesa adierazi didaten herritar guztiei bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet.

"MUTURREAN KOLPE BAT EMAN NION GAINETIK KENTZEKO, ETA ORDUAN ASKATU NINDUEN"

Zauri larriak, kanpotik eta barrutik

Begi bistakoa da txakurrak zauri larriak egin zizkiola. Ebakuntzaren aurretik, honako hau zen Mari Jose Lozanoren aurpegia.

Puntuak barrutik

Josi zizkioten puntu guztiak sendatzen ari zaizkio, baina barrutik ere baditu mordoa, eta, gauzak ondo bidean, ez diote berriz zabaldu beharko masaila.



Mari Jose Lozano, Donostiako Ospitalean. MARI JOSE LOZANO



Oñateren ilustrazioak, fikziozko nobela batean

'The red curtain, Climbing Expedition to Mars 2043' liburua idatzi du Dave Barnes idazle australiarak. Ilustrazioak, berriz, Karmelo Oñate eskoriatzarrak egin ditu, eta, horrekin batera, eleberriko protagonistetako bat bezala ere sartu du egileak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Common Climber izeneko aldizkari digitalak eskaladaren baitako erreportajeak, elkarrizketak, argazkiak eta istorioak batzen ditu. Bertan egiten du lan Dave Barnes australiarak. Editorea da, eta, eskalada gustuko, liburu bat idatzi du; *The red curtain, Climbing Expedition to Mars 2043*. Liburua amaituta, inprentan dago, eta, zirriborro bat atera duten arren, uztail amaierarako edo abuztu hasierarako argitaratuko da. Karmelo Oñate eskoriatzarrak egin ditu lan horretarako ilustrazioak, eta gogotsu dago emaitza ikusteko. Azalaz gain, libururako zazpi marrazki eta eleberraren hedapenerako beste hainbat ilustrazio egin ditu eskoriatzarrak.

Fikzioa eta errealitatea

Oñateren esanetan, ilustrazioak egiteko Dave Barnesek idatzitako liburuko zenbait pasarte irakurri ditu, eta irakurterraza



Karmelo Oñatek 'The red curtain' libururako egindako marrazki bat. KARMELO OÑATE

dela esan du. "Fikziozko istorio bat kontatzen da, etorkizunean girotuta dagoena, Marten. Eskalada da oinarria, eta kirol hau ezagutzen dutenen artean ohiko kontzeptuez eta bestelakoez asko hitz egiten da; espedizioaren

plangintzatik hasi eta bidearen azken xehetasunetaraino. Oso pozik nago Daverekin elkarlanean aritu naizelako dedikazio handiz egindako lan handi honetan. Proiektua pasioz egin du, eta duela bi urte hasi zen Mar-

Fikzioa eta eskalada batuz

Duela bi urte hasi zen Dave Barnes Tasmaniako idazlea 'The red curtain, Climbing Expedition to Mars 2043' liburua idazten. Marteko horma igoera epiko bati buruzko nobela da, eta, abentura askorekin josia, gaur egungo eta etorkizuneko eskalatzaileei eta eskalada komunitate osoari eskainita dago.



Dave Barnes idazlea. DAVE BARNES

Fikziozko liburuan kontatzen denez, klima aldaketak Lurrraren hondamendia ekarri du eta gizakiak Marterako bidaia hasiko du, bizitzaren zantzuak bilatu nahian. Lurrean aurkitutako meteorito batean mineral berezi bat topatu dute, kristal itxurakoa, eta mineral horrek energia sortu dezakeela uste dute gizakiek. Hor hasiko da bidaia. Martera joan, eta Lurreko edozein mendi baino altuagoa den mendi batera igotzeko espedizioa egingo dute protagonistek, mineral hori aurkitzeko asmoz.

teko abentura hau idazten. Buro-belarri aritu da, eta bere ilusioak kutsatu egin nau. Nire ilustrazioak nahi zituela esateko deitu zidaten *Common Climber* aldizkari digitaletik, eta gustura geratu naiz egindakoarekin. Hala ere, beste hainbat lan ere baditut esku artean beiraientzat egiten ari naizenak. Gainera, nobelako pertsonaia bat bezala ere sartu nau, eta liburu esku artean izateko gogoz nago, emaitza ikusteko", adierazi du Karmelo Oñatek.

Erronka berria, gustuz eginda

Karmelo Oñate alpinismo, arroi-la jaitsiera eta eskalada zalea da, eta horien gaineko ilustrazioak egiten ditu. Dave Barnesek bere lana ezagutzen zuela dio, eta bere aldeko apustua egin duela lan honetarako: "*Common Climber* aldizkari digitalerako artikuluren bat edo beste idatzi dut, marrazki batzuk ere egin ditut... Kasu honetan, eleberrri baterako ilustrazioak dira, eta erronka berria gustuz egin dut".

Habi taldearen emanaldia zapatuan Inkernuko terrazan

Taldea osatzen duten Jon Ander Artola eta Yeray Gascon musikarien kontzertua 19:30ean izango da

I.B. ESKORIATZA

Jon Ander Artolak (bateria) eta Yeray Gasconek (gitarra eta ahotsa) osatzen dute Habi. Post-rock, hardcore, rock eta grunge doinuen melodia eta zarata kontrolatu eta orekatuaren arteko kantuak eskaintzen dituzte, eta bihar izango dira Inkernu tabernako terrazan, 19:30ean, Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako kontzertuan, zuzeneko eskaintzen. Edukiera mugatua izango da, eta 75 lagun ingururentzat jarriko dituzte aulkia.

Grabaketa berezia

2019ko ekainean *Loratu* lana kaleratu zuten Artolak eta Gasconek eta 2020an bigarren diskoa atera zuten, *Koloreak* izeneko. Villabonako eta Tolosako musikariek bigarren disko hori grabatzeko hiru egun behar izan zituzten; bi egunean aritu ziren grabatzen eta beste egun batean pedalekin soinuak sortzen. Bi lagunek formatu musikala izanda, diskoan jasotzen dena zuzenekoetara ahalik eta fidelen eraman nahi dute gehienetan. Horregatik, aldi berean jota

grabatu dute diskoa Elkar estudioetan.

Musika terapeutiko bezala deskribatu daitezke *Koloreak* diskoko zenbait kantu. Izan ere, letrei erreparatuz, egoera goibel bat abiapuntutzat hartuta mezu positiboak eskaintzen dituzte. Konfort egoeratik atera beharra, beldur eszenikoari aurre egitea... dira jorratutako zenbait gai.

Errekan Gora jaialdia

Errekan Gora jaialdia ez da ohiko formatuan egingo. Aurten, iraileko asteburu bakarrean izango dira kontzertuak herriko hainbat txokotan –irailaren 17an, 18an eta 19an–. Asteburua musikaz blai izango da, eta, musika talde gehienak lotuta, irail hasieran egingo dute iragarpen ofiziala Atxorrotx Kultura Elkarteak.



LEIRE LEZETA

Udaero programan, bibaka

Udaero egitasmoan murgilduta daude Eskoriatzako nerabeak. Egunotan, eguraldia ez da laguntzen ari, baina joan den astean, esaterako, aire zabalean gaua pasatzeko aprobetxatu zuten. Lexargaraten aterperik gabe egin zuten egonaldiarekin asko disfrutatu zuten gazteek, handik bueltan Atxorrotx ateratako talde argazkiko aurpegietan ikusten denez.



Eskoriatzako haurrak udalekuetan jolasean, asteen. TXIRIKILA AISIALDI ELKARTEA

Udalekuetako ekintzak, batez ere, aterpeetan

Eguraldiaren erruz, aurreikusitako plangintza ezin gauzatu dabilta udalekuetan. Talde txikietan banatuta, herriko aterpe guztiak ari dira erabiltzen egunotan. Datorren asteen, eguraldiak hobera egiten badu, behintzat, irteerak egingo dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Txirikila Aisialdi Elkartek antolatutako Eskoriatzako udaleku irekiak uztailaren 5ean hasi zituzten herriko gaztetxoek, eta hilaren 23an amaituko dituzte. Goizeko ordutegia du aurtengo edizioak, eta 150 haur ari dira, 21 begiraleren ardura-pean. Urteroko ekintzen dinamika jarraituz prestatu dute aurtengo plangintza, eta talde txikietan ari dira ekintzak egiten, Maialen Lete eta Ane Eraña koordinatzaileen gidaritzapean.

Alternatibak bilatzen

Udalekuak hasi zituztenetik gaur arte ezin izan dituzte prestatutako ekintza guztiak nahi moduan egin, eta plan alternatiboak bilatzen aritu behar izan dute. Izan ere, batez ere, Joseba Iñurategi pilotalekuan, Luis Ezeiza herri eskolako aterpean, kultura etxeko eraikineko geletan, Tortolis ludotekan, gaztelekuan, Manuel Muñoz kiroldegian eta Oletan batu dira zenbait

egunetan; hain zuzen ere, aterpeak dituzten txoko eta eraikinetan. Euria ari ez badu, kanpora ateratzen dira, tarteka, baina, pentsatutako plangintza egunez egun jarraitu ezinik, zapore gazi-gozaaz ari dira Eskoriatzako udalekuez gozatzen.

Eguraldiak baldintzatuta

Eguraldiak baldintzatutako udalekuak izaten ari direla adierazi du Maider Etxanizek, Eskoriatzako Udaleko Gazteria teknikariak: "Herriko aterpe batzuetan izan dira egunotan ekintzak egiten. Ez gara zorte ona izaten ari aspektu horri erreparatuz. Edozelan ere, ondo ari dira pasatzen gaztetxoak, eta begiraleak eurak ere gogoz ari

dira. Datorren aстера begira, udalekuetako azkenengo astea izango da, eta, eguraldi hobea bada, behintzat, irteerak egingo dituzte zenbait lekutara: Torrebasko berdegunera, Mendiolara, Atxorrotxera..."

Udaleku artistikorik ez

Udaleku irekiez gain, Beheko Errota musika eskolakoek udaleku artistikoak antolatu nahi zituzten aurten, lehen aldiz. Jende gutxi eman zuen izena, eta, ondorioz, bertan behera geratu dira. Musikari eta dantzari bereziki garrantzia emanda, zenbait diziplina artistiko modu dibertigarrian ezagutzeko aukera emateko asmoz antolatu nahi zituzten udalekuak.

Musikaren bitartez erritmoa landu nahi zuten udaleku artistikoetan. Eta horrekin batera, antzerkia, zirkua, eskulanak, margoak... ere ezarri. Aurten ez egin arren, datorren urtera begira taldea osatzea gustatuko litzaieke antolatzaileei.

DATORREN EGUBAKOITZEAN AMAITUKO DITUZTE UDALEKUAK, UZTAILAREN 23AN

LEINTZ GATZAGA 23



Leintz Gatzagako Gatz Museoko informazio-gunea. IMANOL BELOKI

Uztailean eta abuztuan bisita gidatuak egingo dituzte

Gatz Museoa eta Dorleta Santutegia bisitatzeko, erreserba egin beharko da aldez aurretik

Imanol Beloki ESKORIATZA

Leintz Gatzagako Gatz Museoa eta Dorleta Santutegian bisita gidatuak egingo dituzte uztailean eta abuztuan. Eguaztenetik domekara arteko egunetan, biak barne, egongo da aukera bisita egiteko; 12:00etan eta 13:00etan. Bisita gidatua egiteko, interesdunek aldez aurretik erreserbak egin beharko dituzte. Horretarako, 943 71 47 92 telefono zenbakira deitu daiteke edo mezu bat bidali reservas@gatzmuseoa.com helbidera.

Gehienez hamar lagunekoko bisitak egiten ari dira, eta uztailean harrera ona izaten ari direla adierazi du Aitor Larrañaga Gatzagako Gatz Museoko arduradunak: "Momentuz, harrera ona izaten ari gara, eta hala segitzea espero dugu. Azpimarratu beharra dago bisitak egiteko aldez aurretik hartu behar dela hitzordua".

Bisita mamitsuak

Turismo Bulegotik bideratutako Gatz Museoko ohiko bisitetan, gatzaren historia kontatzen da: erromatarren garaitik 70eko hamarkadara arte gatz egiteko moduak. Horrekin batera, Leintz Gatzagan gaur egun nola egiten duten gatz azaltzen da; aurreko garaietako zenbait teknika erabiltzen dira.

Gatzura gatz-dorletan berotzen dute, su txikian, bertako basoetako egurrarekin egindako suarekin, poliki-poliki. Ur-azalean sortzen diren gatz-kristalak jasotzen dituzte bertan, ontziratu eta mahaian txukun aurkeztu. Gatz ekoizpenaren prozesuaren zenbait atal ikusi ahal izango dute bisita gidatura joaten direnek, eta, bisita amaitzeko, Gatzagako museoan dituzten produktuak erakusten zaizkie bisitariei, eta nahi duenak horiek erosteko aukera du.

Uztaileko ekintza kultural nagusia, 'Hemen gaz!' jaia

Uztailaren 24an, *Hemen gaz!* jaia izango da Leintz Gatzagan. 13:12an poteo musikatua hasiko da eta 19:00etan ErNE eta Larru Beltzak taldeen kontzertuak izango dira. Edukiera mugatua da, eta izena eman beharko da bertara joateko.

Hilean behin kultura hitzordu bat prestatzeko asmoari jarraituz, uztaileko, ErNE herriko

taldearen aldeko apustua egin dute, eta, egitaraua osatzeko, Oñatiko Larru Beltzak talde berriari ere lekua egin diote antolatzaileek. Ibai Agirreurreta eta Jose Ayudarte gatzagarriak dira ErNE taldeko musikariak, beste hainbatekin batera, eta euren bigarren kontzertua izango da honako hau; etxean jotzeko gogoz daude, gainera. Oñatiko talde gonbidatuan, berriz, ibilbide luzeko musikariak daude, eta proiektu berria gatzagarrei aurkezten izango dira.

Jokin Bereziartua BERGARA

San Pedro parrokiako Stoltz Freres organoa zaharberritu egingo dute, atzo goizeko prentsaurrekoan iragarri zutenaz. Konponketa eta berritze prozesuak 2022ko urtarrilean hasiko du ibilbidea eta espero dute, "dena ongi bidean", 2024ko ekainerako Bergaran bueltan izatea organoa erabat zaharberrituta. Izan ere, Lyonen (Frantzia) berrituko dute 132 urtez martxan izan den organoa. 1889ko martxoaren 18an inauguratu zen Stoltz Freres organoa San Pedro elizan –Eiffel dorrea Parisen inauguratu zen hilabete berean–; Eugene eta Edouard Stoltz organo-egileek elizan bertan eraiki zuten organoa.

Gaur egun mundu osoan jatorrizko egoeratik gertuen dagoen Stoltz-Freres etxeko organo handien artean bakarra da. Marka bereko beste organo batzuekin alderatuz hau jatorrizkoaren hurbileko baldintzetan mantentzen denez, Stoltz-Freres etxearen lekuko paregabe eta sinbolikoa da. Adituek diotenez, instrumentu erromantiko garrantzitsua da; ez du aldaketarik jasan, eta bere soinu-ezaugarriak oso jatorrizkoak dira. XIX. mendeko organo erromantikoaren salbuespen-ondareztat har daiteke.

Aurrekontua: 468.103 euro

Diputazioaren, San Pedro parrokiaren, Bergarako Udalaren, Donostiako Elizbarrutiaren eta Stoltz Freres Organoaren Lagunen Elkartearen ekarpen guztien batuketari esker 468.103 euro lortu dira, organoak zaharberritua izateko behar duen aurrekontua. Diputazioak 234.000 euro jarri ditu; San Pedro parrokiak, 80.000 euro; Bergarako Udalak, 60.000 euro; Donostiako Elizbarrutiak, 54.000 euro; eta Stoltz elkartek, azkenik, 40.103 euro.

Zergatik da horren garestia organoa konpontzea? Organista titular Aitor Oleak azaldu dio GOIENARI zeintzuk izango diren egingo dituzten lan nagusiak: "Sei pertsona arituko dira lanean 30 hilabetez. Honako lan hauek egingo dira: planoak egin; notaz nota soinu guztiak –36 joko bider 56 teklatu-nota eta 30 pedal nota– eta nota horien konbinazioak grabatu; instrumentua desmontatu eta Rontalera [Lyon, Frantzia] garraiatu; makina pneumatikoa leheneratu; hauspoak zaharberritu; sekretuak berritu;



Aldundiko, Udaleko, Elizako eta Stoltz Freres Organoaren Lagunen Elkarteko ordezkariak, atzo, organoa atzean dutela. J. BEREZIARTUA

1889ko organoa, 2024rako berritua

San Pedro elizako Stoltz Freres organoa berritzeko finantzaketa lortu dute, erakunde publikoen, Elizaren eta organoaren aldeko elkartearen arteko elkarlanari esker; konponketa 2022ko urtarrilean hasi eta 2024ko ekainean amaitzea aurreikusten dute

"Albiste zoragarria da, izugarrizko balio musikala eta historikoa du"

AITOR OLEA STOLTZ FRERES ORGANOAREN ORGANISTA TITULARRA

Urte luzetako lanaren ostean helburua lortu izanarekin "oso pozik" dago Aitor Olea.

Zer sentitzen da organoa berritu egingo dela jakinda?

Poz handia. Bergarako San Pedroko Stoltz anaiei organoa Gipuzkoako organorik bikainenetako bat da, eta, 132 urtez martxan egon ondoren, garaia zen zaharberritzeko. Albiste zoragarria da Gipuzkoako eta Euskal Herriko ondare organistikoa erantzut. Izugarrizko balio musikala eta historikoa du, eta estilo erromantikoko organoen artean erreferentzia da mundu



J.B.

osoan. Oso berri ona da horrelako tresna bat berreskuratzea eta hori gauzatzeko ahaleginak bateratzea. 30 hilabeteko lana izango da, sei pertsonaren artean egingo dena.

Kostatu da dirua lortzea...

Bai, prozesu luzea izan da. Elkartea sortzea, Jaurilaritzari eskatzea organoa ondasun altzari babestu izendatzeko – oraindik egiteko dago–, kontzertuak, harremanak erakundeekin, enpresekin eta partikularrekin... Baina lortu dugu. Diputazioaren bultzada handia erabakigarria izan da, Udalarekin eta Elizarekin batera.

Nola berrituko da organoa?

Eskuz, instrumentua eraikitzeke erabili ziren teknika berberen bidez. Michael Jurinek Lyonen duen enpresak gauzatu du.

Ezer gaineratu nahi duzu?

Eskerrik asko amets hau egia egiteko lagundu duzuenoi. Gure belarriak poztu dituen iraganeko herentzia honek ondorengoan belarriak alaitzen jarrai dezala.

noten mekanika zaharberritu; zurezko eta metalezko obrak berritu –2343 hodi dira–; kontsolaren eta noten mekanika berritu; haizegailua berritu; instrumentua Bergarara garraiatu; eta, azkenik, instrumentua muntatu, afinatu eta harmonizatu".

Protokolo bat zehaztuko dute

Oleak gaineratu duenez, hainbat konponketa egin behar dira organoan: "Hauspoetako azala oso zahartuta dago eta materialen nekeagatik hauspoek hermetikotasuna galdu dute. Azalak pitzatzen ari dira eta hauspoek eta aire-zirkuituek izaten dituzten aire-ihesak ezin dira zenbatu. Sekretuek lasaierak dituzte eta makina pneumatikoa zaratatsua eta desdoikuntza ugariarekin agertzen da, bertako hauspo txikiak lehertu egiten dira eta. Mihizko eta metalezko hodian oinetako askok zapalketak jasan dituzte, horien pisuagatik eta lokailu faltagatik. 1670an Lazaro de Aranzeagak eginiko kaxak eta Stoltz anaiek 1889an erantsitako alboko aurrealdeak xilofago-presentzia dute. Era berean, organoko kontsolan xilofagoak eginiko kalteak agerian daude".

2024ko ekainetik aurrera erabilgarri egongo litzateke organo berritua eta Oleak aurreratu du protokolo bat prestatzen ari direla San Pedro elizarekin eta Udalarekin batera: "Protokolo bat idazten ari gara, bermatzeko, zaharberritu ondoren, organoa herrian irekitako tresna izango dela eta kontzertuetan, irakaskuntza-jardueretan, ekitaldi laikoetan ere, bisitetan... erabili ahal izango dela".

Diputazioak, diruaren erdia


Diputazioak aurrekontu osoaren erdia jarri izana, Aldundiko Kultura zuzendari Mari Jose Telleriaren arabera, "guztiz zuzena" da. Horrez gain, organoaren aldeko elkartek egingo dako lana goraipatu du: "Garrantzitsua izan da elkartearen lana, eta, euren kudeaketari esker, erakundeok gure tokia eta ardura hartu dugu. Euren bultzada eta kemena ezinbestekoa izan dira denon elkarlana bideratzeko. Bergarako organoa oso pieza inportantea da Gipuzkoako ondarean, baina beste zeregin asko ere badaude, eta, askotan, zaila izaten da lehentasunak ezartzea. Herriarren ilusia eta indarra

Erakundeen arteko elkarlana, ezinbestekoa



MARIA JOSE TELLERIA
ALDUNDIKO KULTURA ZUZENDARIA

"Oso pieza inportantea da Gipuzkoako ondarean, eta herritarren ilusioa gertu sentitzeak asko lagundu du aurrekontuaren erdia jartzeko. Stoltz Freres elkartero kide bat integratuko da Aldundiko batzordean, aurrekontuaz haragoko atalak ere zaintzeko".



GORKA ARTOLA
BERGARAKO ALKATEA

"Ondare publikoa berreskuratzea da gure erronketako bat. Aukera, konfluentzia, baliatu beharra zegoen. Zorte handia dugu, Bergaran badugulako organoaren aldeko elkartea eta lan handia egiten ari direlako organoa ezagutzera emateko".



JON MOLINA
SAN PEDRO ELIZAKO PARROKOA

"Organoaren berritzea San Pedro elizaren zaharberritze orokorraren barruan kokatzen dugu, altxor nagusietako bat da eta. Erakunde publikoen inplikaziorik, babesik eta parte hartze zuzenik gabe konponketa ez litzateke posible izango; eskertzekoa da".

gertu sentitzeak asko laguntzen du baliabideak banatzerakoan, eta oso eskertuta gaude".

San Pedro elizak, 80.000 euro

San Pedro elizako parroko Jon Molinak duela hamar bat urte abiatu zuten elizaren berritze orokorraren barruan kokatzen du organoaren konponketa: "Duela hamar bat urte hasi ginen parrokia berritzeko lanetan, oso egoera txarrean zegoelako. Hainbat berrikuntza egin ditugu: eraikina bera, Santo Kristoa eta

haren erretaula eta beste zenbait konponketa txiki. Orain, organoaren txanda iritsi da".

Udalak, 60.000 euro

Gorka Artola alkateak nabarmendu du bergararrek zortea dutela halako organo bat herrian izateagatik: "Zaharberritzerako finantzaketa lortu izanak esan nahi du hainbat urtetan mantendu ahal izango dela. Eta bergararrok gozatu ahal izango dugula". Administrazio bezala ondarearen zaintza euren egin-

beharretako bat dela sinistuta, elkarrekin egindako lana txalotu nahi izan du Artolak: "Askotan, ez dugu gure herrian bertan duguna ezagutzen edo behar beste baloratzen, eta kanpotik etorri behar izaten zaizkigu hori esatera. Guk zorte handia dugu, badagoelako Bergaran elkartea, eta lan handia egiten ari dira. Horrek, duda barik, lagundu du eta lagunduko du bergararrek organo hau ezagutu dezaten". Esan moduan, espero dute lanak 2024ko ekainean amaitzea.



Bandak ekainaren 27an frontoian emandako kontzertua. GOIENA

Santa Marinako ez-jaien omenezko kontzertua domekan

Etzi, frontoian joko du bandak (12:30), 400 lagunendako lekuarekin; bihar, Antzuolako ez-jaietan egongo dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Santa Marinako jaien barruan eman ohi zuten kontzertua eskainiko du bandak frontoian; etzi, hilak 18, 12:30ean. Sarrera doakoa da eta 400 laguneko edukiera bete arte sartzeko aukera egongo da; kalejira egingo dute aurretik, 11:30ean. Pandemiak eraginda, "ohikoa baino erreperitorio errazagoa" muntatu dute. Batetik, kide asko ez direlako martxan hasi, osasun ardura-rengatik. Eta, bestetik, entseatzeko baldintzak ez direlako aproposenak; bi taldetan ari dira, segurtasun neurriak betetzeko.

Kalejira Antzuolan bihar

Bihar, zapatua, kontzertua eman go du bandak Antzuolako ez-jaietan. Jende pilaketak saihestea kalejira abiatuko dute 11:00etan, eta, tarteka, piezaren bat edo beste jotzeko geldialdiak egingo dituzte. Geldialdi horietarako, besteak beste, bi pieza prestatu ditu egungo zuzendari Enrike Txurruakak: Alfredo Gonzalez Chirlaquek Mairuaren Alardeko hainbat doinu moldatuz 2005ean sortutako *Antzuolako doinuak* eta pandemian esanahi berezia hartu duen Ruper Ordozikaren *Zaindu maite duzun hori*.



Elkarlanean zaharberritu

IÑIGO ALBERDI AMASORRAIN STOLTZ FRÈRES ELKARTEA

Atzo aurkeztu zen Bergarako San Pedroko Stoltz Frères organoaren zaharberritzea. Instrumentua konpontzeko behar den dirua lortu da, eta gainera oso geurea dan modu baten: elkarlanean. Gipuzkoako Foru Aldundia, Bergarako Udala, San Pedro parrokia, Donostiako Elizbarrutia eta Bergarako Stoltz-Frères organoaren lagunak elkarrekin, guztiak batu dira proiektu garrantzitsu hau aurrera eramateko.

Instrumentu honen garrantzia ulertzeko bi arrazoi dira nagusiak. Batetik, instrumentuaren beraren izaera berezia, bakarra. Organoaren

munduan, urrezko garaietako bat XIX. mendean garatzen den erromantizismoa da, eta horren barruan, organo frantsesak dira altxorrik preziatuenak. Instrumentu erraldoiak dira, San Pedrokoa kasu, hiru teklatu eta ia 2500 tutu ditu. Gainera organogile mitiko baten lana da: Stoltz Frères.

Beste arrazoi bat instrumentuaren beraren egoera da. Hau da, San Pedroko Stoltz organoa, eraiki zenetik, 1889tik, era originalean mantentzen da. Beste toki batzuetan instrumentu hauek hainbat aldaketa pairatu dituzte XX. mendean eginak: transmisioa

elektrifikatu, teklatuak edo kotsola aldatu... Bergarakoa, aldiz, bere baitan mantendu da, eta beti martxan egon da. Ezin dira ahaztu 132 urte hauetan instrumentuari bizitza eman dioten eta ematen dioten organo-joleak.

2022ko urtarrilean organoa desmuntatu eta Lyon ingurura eramango dute Michel Jurine organogile famatuaren tailerrera. 30 hilabete luzez instrumentua zaharberrituko dute, urteen poderioz hainbat arazo garrantzitsu baitaizka. Mereziko du, bai, itxaroteak, bere soinu ederra, inoiz baino argiago entzuteko aukera izango baitugu, eta orduan, organo hau herrira eta mundura zabaltzeko erronka izango dugu: Elkarlanean.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

COVIDa gainditzea: gogoetak

Agintariak portaera sozialekin eta medikoekin lotutako irtenbideak proposatzen ari dira. Jarrerazko gomendioak daude, modu honetan edo bestean jokatu behar dugula adierazten digutenak. Gizartearen jarrerak kezkatzen nau oraindik: sakrifizio txiki bat egin behar badugu eta zerbait kendu, aisialdia lehenesten dugu, ondorioak neurtu gabe. Krisi ekonomikoak zorpetzea eragin du; zorra handitu egin da, eta itzuli egin beharko da. Industria asko itxi egin dira edo ukituta daude, arazo sozialak, egiturazkoak edo koiunturalak direla eta. Hau guztion arazoa da. Enpresa hobeak, aberastasun handiagoa, gizarte hobeak, enplegu gehiago, diru-sarrera fiskal gehiago, formakuntza eta gizarte-ongizate gehiago. Benetan aberastasuna sortzen duena jarduerak pribatua da; jarduerak publikoak gastua eragiten du. Horri ezin zaio eutsi lehenengoa kenduta. Honek funtziona dezan, beharko dira gizarte-balioak, ilusioa, konpromisoa, etorkizunerako ikuspegi komuna, diziplina eta erantzukizuna. Gure gizarteak COVIDarekin dituen jarrerak eta administrazioa deialdietan eta abarretan ikusten denak... zer pentsatua ematen dit. Barkatu, baina hau ez da bidea.



Askotariko adinetako elosuarrek, Santutxuko ermitan, uztailaren 3an; 2019ko udan zaharberritu zuten ermita, auzolanean. I.Z.

Despopulaziorako ez dago txertorik

Despopulazioaren, auzotarren zahartzearen, zerbitzu faltaren eta pandemiaren erruz, Elosuaren biziraupena arriskuan ikusten dute auzotarrek; COVID-19aren erruz auzoaren kohesioa nabarmen kaltetu da: "Auzo-sena bazegoen, baina hori ere izorratu du birusak"

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako herrigunetik ia bederatzi kilometrora dago Elosua, Bergarako auzorik periferikoea. Bergarako ipar-ekialdean eta Azkoitira bidean kokatua, errepidearen alde batean dauden baserriak Bergara aldekoak dira eta beste aldekoak, berriz, Azkoitikoak. Historia eta izaera handiko auzoa, ez ditu egun garairik onenak bizi. Despopulazioari, auzotarren zahartzeari eta zerbitzuen gabeziari pandemia gehitu zaie; COVID-19ak harremanetan eragin du zuzenean, eta Elosuan, Iñigo Zubeldia auzo-alkatearen arabera, "egurtu itzela" eman dio birusak auzoaren kohesioari: "Auzotarren arteko harremana izorratu egin du, jendea elkartzeko beldurrez dago".

15 biztanle eta 50 bat baserri

2021eko uztailaren 5eko errolda datuen arabera, hamabost lagun bizi dira Elosuan. 50 baserri inguru daude, horietako asko hutsik; Zubeldiak dioenez, auzotarren artean saiatzen dira baserri horietarako gutxienezko mantentze-lanak egiten. Zerbitzu gabeziaren adierazle nagusia, duela urte batzuk auzotarrek egingako diagnosiaren arabera, tabernaren galera izan zen.

Gaur-gaurkoz, frontoiaren atzealdean dagoen Elur-mendi

AZKEN ERROLDA DATUEN ARABERA 15 HERRITAR BIZI DIRA ELOSUAN; AUZOAN 50 BAT BASERRI DAUDE

elkarte gastronomikoa da batzeko duten leku bakarra, baina gune hori ere ez da erabilgarri egon orain gutxira arte, pandemiak eraginda. Bazkideak ere zahartzen ari direnez eta gazteen erreleborik ez dagoenez, soziedadean bazkide berriak sartzeko erraztasunak jartzen hasi ziren duela bi edo hiru urte, baina hor ere zuzenean eragin du pandemiak. Bestalde, ezin da ahaztu, eskola batek auzo bati ematen dion bizitzaren ikuspegitik, soziedadea dagoen lekuan eskola egon zela duela 40 urte baino gehiago.

"Mantentze beharra" auzoetan 2019ko ekaina ezkerro Udal Gobernuak "mantentzerako behar handia" antzeman du auzoetan, baina "bestelako neurriak har-

tu edo urratsak egin" dituztela ere gaineratu dute: "Auzoetako jailetako partida handitu -Elosuan bikoiztu egin zen-, auzoak bizi-berritzeko partida egokitu, auzo-batzorderako harrera-plana osatu -zinegotzi eta auzo-ordez-kari berrientzat- eta auzoetako kultura taldea martxan jarri dugu. Auzoetako kultura taldeari esker iazko udako kultura agenda osatzerakoan, nahi izan zutenekin batera, kultura emandak eskaini ziren auzoetan: Elosuan, astronomia behaketa; Osintxun, Iker Laurobaren kontzertua; San Juanen, garagardo dastatzea; Angiozarren, antzerkia; eta Uberan, zinmae emandak. Balorazio oso positiboa egin zen". Uda honetan ere ekimena errepikatu dute.

Elosuak dituen beharren gainean galdetuta, Udal Gobernuarendako auzoen "diagnosi orokorra" egitea izan da erronka: "Azpiegiturak oso garrantzitsuak dira Elosuan eta Bergarako beste auzoetan, baina beharrak azpiegiturretatik harago doaz. Auzoen argazki osoa behar dugu. azpiegiturak, mantentze-lanak, irisgarritasuna, garapena, in-

gurumen, kultura, aisialdia, kirola, ongizatea zein auzoetako gobernantza eta antolaketa garatzeko. Diagnosiak behin baino gehiagotan egin dira, baita Elosuan ere. Eguneratzea da asmoa, baina ikuspegi integral eta orokorretik. *Egin Herrixa Bergara 2030* plan estrategikoak emango dizkigu identifikaziorako zein erantzunerako irizpideak. Bertan auzoek espazio propioa izan dute, badakigulako behar batzuk komunak badira ere beste batzuk espezifikokoak direla".

Inplikaziorik eza, "etsigarria"

Iñigo Zubeldiaren ustez, baina, "etsigarria" da erakundeen inplikaziorik eza: "Egiten diren diagnostiko edota azterketak ez dira ezertan gauzatzen. Taberna lortzeko egin ditugun saiakeretan edo turismo aldetik egin ahal izan ditugunetan, bizkarra eman didate. Justu-justuan mantentzen dituzte jaiak edota halako usadioak". Azken interbentzio esanguratsuen gainean galdetuta, "gutxienez hamar urte" pasatu direla dio: "Umeendako parkea eta porlanezko plaza egitea izan zen azkena. Ez dakit zehatz esa-


Zertan aldatu da auzoko bizimodua?



KOLDO MUGURUZA
ELOSUAN BIZI IZANDAKOA

"Ezin dira nire gaztaroko eta egungo Elosua konparatu"

"Nire gaztetako Elosua eta egungoa oso ezberdinak dira. Lehen, baserriko lanak eskuekin egiten ziren, eta orain, dena da makina bidez; ez dago konparatzerik. Hemen [Elur-Mendi elkarte] eskola zegoen lehen eta ni 12 urte bete arte bertan aritu nintzen ikasten. Handik aurrera, ikasketekin jarraitu ahal edo nahi zuenak herrira joan behar zuten. Pandemiak ere kalte handia egin digu, harremanei eragin dielako zuzenean. Frontoia estali izana aurrerapauso handia izan zen".



EUGENIO GISASOLA
ELOSUAN BIZI IZANDAKOA

"Bizimodua zegoen, eta, oro har, zerbitzu gehiago"

"Jende gehiago bizi zen eta bizimodua zegoen lehen. Baserritik bizi zitekeen bolumen txikiko baserria izanda ere, eta auzoan, oro har, zerbitzu gehiago zeuden. Taberna bat zegoen, kooperatiba bat... Orain, ez dago halakorik; elkarteak bakarrik geratzen zaigu, eta eskerrak. Arnas pixka bat ematen dio auzoari, nahiz eta soziedadea ez den taberna modukoa. Aspaldi, umeendako parkea egin zuten, eta plaza egokitu; frontoiko teilatuari ederto etorriko litzaioke konponketa bat...".

ten, baina pasatu dira, gutxienez, hamar bat urte ordutik. Diputazioaren Berpiztu planaren barruan Elosua eta beste auzo bat sartu ziren eta hor egin zen diagnostikoan hainbat eskaera egin zituzten auzotarrek, baina hau bakarrik egin zen. Hortik aurrera ez da ezer egin".

Pandemiak kalte harremanetan Udalaren eta auzoen arteko harremanak garatzeko ezinbestekoa da, Udal Gobernuaren arabera, auzo-alkateen figura: "Ahalbidetzen du Udalaren eta auzoaren arteko harremana zuzena izatea; auzo-alkate horiek ordezkatzan dute Udala auzoan, eta alderantziz". Hori bai, pandemiak "hileroko lan dinamika interesgarria eta aberatsa" eten zuela gogoratu du Udal Gobernuak: "Bat-batean, etena izan genuen, eta, azken hilabete luzeetan, sortu izan diren beharrei erantzun banakakoa ematen aritu izan gara auzoen batzordetik. Baina kontaktua berreskuratzen goaz gure bizitzetan eta baita Udaleko martxan ere. Plan estrategikoa-ren prozesuak eman digu aukera auzo-ordezkarriak berriz elka-



Frontoi estalia eta San Martin eliza, Elosuko plazan, uztailaren 6an; pilotalekuaren atzean dago elkarte. JOKIN BEREZIARTUA

rrekin aritzeko, eta auzo-batzordeak ere hasi du bere martxa. Pandemiak sortutako egoera etorri baino lehen genuen dinamikara bueltatzeko gogo handiz gaude eta auzoen ikuspegi orokorretik auzotarrek merezi duten

erantzun globalagoak artikulatzeko asmoa dugu".

Urriaren 12ko feria, "arriskuan" Bertakoak ez diren hainbat bergarrek urriaren 12ko feriarekin lotuko dute Elosua, auzoak

jende gehien erakartzen duen urteko eguna izan ohi zelako. Iñigo Zubeldia auzo-alkateak, baina, ez dio etorkizun oparorik ikusten azoka berezi horri: "Ustedut 2019koa izan zela azkena. Egoera zein den ikusita, ez diot

auzoari buelta emateko ahalmenik ikusten. Esan izan didate pesimista naizela, baina esango nuke errealista naizela. Auzoarendako oso egun berezia izaten zen, diru-iturri bat ere bazen bestelako egitasmo txiki batzuk martxan jarri ahal izateko. Halako egun seinalatueta igartzen zen auzo-sena bazegoela, baina pandemiak dena izorratu du".

Bertako ondarearen balioa Ingurumenaren, biodibertsitatearen eta lehen sektorearen ikuspegitik Elosuak duen oparotasunaz gain, badu ere ondare historikotik. Hain zuzen ere, Nafarroako Erresumaren azken egituren gotorleku izan zen Iriaun gaztelu zaharraren aztarnek interesa piztu dezaketela deritzo Zubeldiak: "Gaztelua paradoxikoa izan daiteke. Duela 400 urte mui-no hau defendatzeko edo zaintzeko gaztelu txiki bat zen, behera etorri dena. Akaso bere aztarnetan egon daiteke auzo hau pizteko edota defendatzeko aukera". Diputazioak ez die baimenik eman indusketetarako, baina Zubeldiak *crowdfunding* kanpaina bat abiatu zuen ekain bukaeran, Interneten. Zertarako? Aplikazio baten bidez gaztelu zaharrera hiru dimentsioko bisita bat egiteko. Gutxienez, 6.000 euro behar dira, eta, oraingoz, 500 euro inguru lortu dituzte: "Ustedut interesa sortuko lukeela aplikazio batekin gaztelua nolakoa zen ikustea. Elosuak baditu ondare aldetik interesgarriak izan daitezkeen hainbat aukera: ibilbide megalitikoa, Ignaziotar Bidearekin lotzeko aukera [Ignazio Loiolakoa Elosutik pasatu zen ziurtatzen duen agiriaren atzetik ere badabil Zubeldia]... Horretarako, baina, erakundeen laguntza ezinbestekoa da, eta ez dugu jaso".

Basoko landareekin saioa bihar Biharko, uztailak 17, baso landareekin lotutako saioa antolatu dute, Clara Gutierrez adituaren eskutik. 10:00etan elkartuko dira, Elosuko plazan, eta, landare jangarriak batu ostean, horiek prestatu eta dastatuko dituzte.

TABERNAREN ITXIERA GALERA HANDIA IZAN ZEN, AUZOTARRAK ELKARTZEKO GUNE INPORTANTEA ZELAKO

"Agintariei ahoa betetzen zaie landa eremuaz hitz egiterakoan"

IÑIGO ZUBELDIA ELOSUKO ALKATEA

Elosuak bizi duen gainbehera "ikaragarria" dela dio, eta "beltza" ikusten dio etorkizuna. **Ze zerbitzuren falta igartzen duzue, bereziki?** Ezer handirik gauzatu ez, baina hiru edo lau diagnostiko egin dira Elosuan. Orduan egoera hobe zen, besteak beste, taberna zabalik zegoelako; ondorioztatzen zen taberna oso gune garrantzitsua zela auzotarrak elkartzeko. Galera handia izan zen, auzoari tristura handia eman zion. **Zer galduko luke Bergarak Elosua bari, zure ustez?** Funtsezkoa da landa eremua. Herriguneak ez dira mantenduko landa eremurik gabe. Uste dut gizarte mailan gehiago kontzientziatu beharko genukeela landa eremuak duen garrantziaz. Landa eremua bizitzeko era bat da, elkartzeko modu bat, kultura



J.B.

bat, gauza asko batzen dituen komunitate bat. Agintariei ahoa betetzen zaie esaten dutenean landa eremua zaindu egin behar dela, baina gero, ez da ezertan gauzatzen. Ahalegin gehiago egin ahaliko lukete erakundeek benetan Elosuari garrantzia emango baliote. **Etsita ikusten zaitut...** Ibilaki erakusten du nor dagoen alboan eta nor ez, eta erakundeak ez daude gurekin. Proiektuak asko, baina gauzatu ia bat ere ez; etsigarria da, bai.

"Beste bide batzuk ari gara bilatzen, auzoak eta beharrak asko direlako"

NAGORE IÑURRATEGI UDAL GOBERNUKO BOZERAMAILEA

Elosuan mantentze-lanak egin direla dio, eta "oso zaila" dela "auzoen oreka mantentzea". **Gobernuan zaudetenetik ze lan egin dira Elosuan?** Mantentze-lanak izan dira Elosuan azken bi urteotan egin direnak. Auzoetan, oro har, mantentzerako behar handiarekin egin genuen topo, eta horiei erantzutea izan zen lehentasunetako bat. **Nola erabakitzen dira esku-hartzeak?** Dirulaguntzetatik asko tiratzen dugu auzoetako beharrei erantzuteko. Lehentasunen mapa egin ostean, ze dirulaguntza irteten diren ikusi, auzo guztietako beharrak aztertu eta ondoren hartzen dira erabakiak. Horrela erabaki genuen, esaterako, Uberako eskola-etxea berritzea. Eta azken Erein programa Angiozarko bide zaharrerako



EH BILDU

izan da. Ez da batere erraza auzoen artean oreka mantentzea; beste bide batzuk ari gara bilatzen, auzoak eta beharrak asko direlako. **Ze garrantzi du Elosuak?** Handia, baina zailtasunak izaten ditugu landa eremuko inbertsioetan oreka mantentzeko. Elosuak ez ditu biztanle asko, baina oso aberatsa da biodibertsitatean eta lehen sektorearekin lotutako aktibitateetan; oso inportantea da Bergararentzat.

"Azken denboraldian asko disfrutatu dugu"

JOSE JAVIER BARKERO OHOREZKO ERREGIONAL TALDEKO ENTRENATZAILE OHIA
Bi denboraldiren ostean, gizonetzkoen Erregional Mailako entrenatzaile izateari utzikio dio. "Oso gustura" egon da Bergaran, eta harro agertu da egindako lanarekin

Jone Olabarria BERGARA

Goranzko bidean ari zirela harrrapatu zuen koronabirusak Bergarako Ohorezko Erregional Mailako taldea. Jose Javier Barkeroren aretxabaletarrak zuzendu du taldea azken bi denboraldietan, eta "harro" agertu da egindako lanarekin. Datorren denboraldira begira zer asmo duen ere zehaztu du entrenatzaileak. **Bergaran entrenatzaile egindako bi urte hauen ostean, zer balantze egiten duzu?**

Egia esanda, oso gustura egon naiz, oso ondo hartu ninduten eta nire lana trankil eta gustura egiten utzi didate, konfiantza. Hori eskertzekoa da; are gehiago, urte zail hauetan, pandemiaren eraginez. Uste dut lan ona egin dugula denon artean.

Zein izan zen lehen inpresioa taldea ezagutzerakoan?

Talde gazte eta karakter handikoarekin egin nuen topo, lan egiteko gogotsu, nahiz eta hasieran konfiantza falta apur bat zuten. Gogor lan egin dugu eta lan horrek bere fruituak ematen dituela ikusi dute jokalariek. Uste dut inork espero ez zuen lekura heltzea lortu dutela; igorarako *play off*-a jokatzera, esaterako.

Zer moduzko denboraldiak izan dira? Pandemia tarteko...



Barkero, Bergarako taldea zuzentzen egindako partiduan, Agorrosinen. GOIENA

"LASAI EGOTEA DA ASMOA DATORREN DENBORALDIAN, FORMATU ETA FAMILIAREKIN EGON"

Taldearekin egin nuen lehen denboraldi hartan asko disfrutatu genuen, aitortu beharra dut. Egoera ere ezohikoa zen, berria denontzat. Azken denboraldi honetan, berriz, konfiantza irabazten joan gara, eta asko disfrutatu dugu, bai jokalariek, baita nik ere.

Zein izan da Bergarako entrenatzaile izateari uzteko arrazoiak?

Futbola utzi nuenetik geratu barik ibili naiz, beti futbolari lotuta. Mundu honetan gehiago formatu nahi dut, falta zaidan titulu bat eskuratu gura nuke, eta hori dena familiarekin konbinatzeko denbora behar dut.

Hortaz, aurten ez zaitugu entrenatzaile lanetan ikusiko...

Lasai egotea da asmoa aurten; apur bat geratu eta familiarekin egon eta disfrutatu.



Sinead Savage eta The Shu Shu's taldeko kideak. hotsak

Berumugaren baitan, Sinead Savage entzuteko aukera gaur

The Shu Shu's hirukoarekin, Espoloian eskainiko dute jazz eta blues doinuak nahastuko dituen kontzertua

J.O. BERGARA

Urtero bezala, rock, blues, jazz eta musika beltz kolorea duen Berumuga ziklo musikala antolatuko dute aurtengo udarako ere. "Ohikoak ez diren musika estiloak programatzea" da helburua, kalitatea ardatz.

geroztik, eta berehala aurkitu zuen bere tokia hango musika beltz, jazz eta blues munduan.

Bergarako emanaldian The Shu Shu's hirukoia ondoan duela arituko da Espoloian: Abel Boquera Hammond organoan, Dave Wilkinson gitarran eta Caspar St. Charles baterian.

Elizako korutik, kontzertuetara

Sinead Savage Ipar Irlandako abeslari gaztea gaur arituko da taula gainean, 22:00etan. Herriko elizako koruan hasi zen kantuan, eta geroztik ez dio inoiz utzi bere estilo propioa lantzeari. Bartzelonan bizi da 2006az

Edukiera mugatuarekin

Datorren ostiralean, eta zikloari amaiera emateko, Josh Hoyer & Colossal ikusteko aukera egongo da. Kontzertu guztiak doakoak dira eta jarleku kopurua mugatua da.

OHARRAK

Jardun euskara elkarteak, idazkari bila

Amatasun baja betetzeko, lanaldi erdiz, idazkari/administrari baten bila dabil Jardun euskara elkarteak. Interesatuak curriculumak Jardunen -Errotalde jauregia- aurkeztu edo jardun@topagunea.com helbidera bidali behar dituzte. Azken eguna uztailaren 25a da.

Asfaltatze-lanak Usondo parkean gaur

Parkea itxiko ez bada ere, gune batzuetan makinak ibiliko dira, eta, momentu batzuetan parkearen zati batzuk balizatu egingo direnez, pertsonen zirkulazioan eragingo dute lanek.

Hitzaldia eta kontzertuak Kartzela Zaharrean

Asisko Urmenetak, *Sugarren mende* bere azken komiki-liburua oinarri hartuta eskainiko du hitzaldia, gaur, 20:00etan. Bihar aldi, Txapa Irratiak antolatuta, Orreaga 778 eta Screemers & Sinners taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:00etan. Sarrerak ordubete lehenago eskuratu ahal izango dira

Cristina Chiquinen erakusketa, Aroztegi aretoan

Askotariko emakumeen eguneroko borroka izeneko argazki erakusketa gaurtik aurrera dago ikusgai Aroztegi aretoan.

BKEk, esker oneko hitzak

Uztailaren 6an jakinarazi zuen, ohar bidez, Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzak Jose Javier Barkerok ez duela jarraituko datorren denboraldian. losu Elorza lehendakariak eskerrak eman nahi dizkio Barkerori bi urte hauetan egindako lanagatik, eta zortzerik onena opa etorkizuneari: "Egoerak baldintzatutako bi urte gogor izan dira, eta goraipatu

behar da entrenatzaileak eta bere talde teknikoak lortutakoa, probintziako talderik onenen artean kokatzeko gure lehen taldea".


Agorrosingo ateak, "zabalik"

"Zortzerik ona" opa nahi izan diote hemendik aurrerako proiektu guztietan; gogorarazi dute Agorrosingo ateak zabalik izango dituela beti.

Denboraldi berria, "ilusioz"

Bergara kirol elkarteak azaldu du "ilusio, indar eta gogo berarekin" jarraituko duela lanean. Dagoeneko zabalik dago alebinek eta futbol eskolan izena emateko epea, eta denboraldi-aurrea prestatzen ari direla azaldu du Elorzak.

Klubak zehaztu duenez, datorren astean jakinarazi eta aurkeztuko dute Jose Javier Barkeroren ordezkatzeko duen entrenatzailea.



17. UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*



LABENNE | Argazkia: Saioa Ugarteburu



TXIMISTARRI | Argazkia: Maika Gallastegi



MARBOREKO LAKUAN | Argazkia: Julen Axpe



IZARREI BEGIRA | Argazkia: Hodel Gomez de Balujera



Argazki guztiak kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/lehiaketa-2021>

MARTXAN DA!

Goienaren Udako Argazkien Lehiaketa abian da! Bidali zure argazkiak hiru kategoria hauetarako: **Nazioartean**, **Protagonistak** eta **Euskal Herrian**.

Argazkiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu; uztailaren 16tik irailaren 20ra arte –biak barne–.

Sariak

Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat irabazteko aukera izango duzu:

Nazioartean: Arrasateko Halcon Bidaiei esker, Toñanesko La Estela Cantabra ostatuan bi pertsonarendako bi gau eta gosaria.

Protagonistak: Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, LG K 51S smartphonea.

Euskal Herrian: Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu, **Bergarako Ereindajan**-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia non ateratakoa den.
 - Argazkia zein kategoriatarako bidali den.
- Argazkia zein kategoriatarako bidali den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 16tik irailaren 20ra arte (biak barne).
- Hiru kategoria egongo dira:
 - Protagonistak: pertsonak lehen planoan erakusten dituzten argazkiak, lekua baino garrantzi handiagoa dutenean pertsonak.
 - Euskal Herrian: Euskal Herriko paisaiak, eraikinak edo txokoak izango dira elementu nagusia, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
 - Nazioartean: Euskal Herriatik kanpoko txokoak, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
- Argazkiek gehienez 5 MB izan beharko dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Kategoria bakoitzeko saritu bana aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 24tik 29ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztien artean aukeratu da Publikoaren Saria, bozketa bidez.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean emango da jakitera, Goiena aldizkarian.
- Saria jasotzeko irabazleei eskatuko zaie lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitara daitezke: Goiena.eus atarian, Goiena aldizkarian, Puntua aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

Oinarri eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak-lehiaketa2021>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

GU travel
Halcon Bidaia
Arrasate

BERGARA
EREIN
DA
JAN

"Oso anitza da euskal Twitch komunitatea"

ION LIZARAZU INFORMATIKARIA

'Takatekla' euskarazko online jokoa sortu du Ion Lizarazu programatzaile eta informatikariak; Twitch plataformako euskal komunitateaz ere jardun du GOIENArekin

Maidar Arregi ANTZUOLA

Ion Lizarazu informatikari eta *twitchlari*-ak *Takatekla* euskarazko online jokoa asmatu du. Euskarazko hitzak ahalik eta azkarren idaztean datza jokoa. Astero, astelehen iluntzeetan jokatzen da partida, eta batez beste hamabost lagunek parte hartzen dutela kontatu du antzuolarrak. Euskal Twitch komunitatea indartsu dagoela aurreratu du.

Programatzailea eta informatikaria zara; baita 'twitchlaria' ere. Baina zer da eta zertan datza Twitch plataforma, zehazki?

Twitchen oinarria da zuzeneko egitea eta jendearekin interakzioan jardutea. Zuzeneko *streaming* plataforma bat da.

Afiziotik ala ogibidetik iritsi zara Twitch plataforman murgiltzera?

Afizio edo ofiziotik baino gehiago, herrigintzatik murgildu naiz. @Nebunebukai-k, @arkkuso-k eta @Gamerauntsia-k elkarlanean #3000Twitz ekimena jarri zuten abian. Plataforma horrek eskatzen duena da *streamer*-ak zuzeneko irekitzen duenean #euskara etiketarekin zuzeneko etiketatu ahal izatea. Hartara, jendeak euskaraz ari diren *streamer*-ak bilatzeko aukera dauka. Eskakizun horri bultzada emateko hasi naiz Twitch plataforman.

Euskal komunitatearen baitan, 'Takatekla' jokoa sortu duzu; nola jaio zen ideia?

Bai, halaxe da. @ibi87 twitchlari-ak -horrela deitzen diogu elkarri-egin zidan proposamena. Interesgarria zeritzon Twitcheko txatean zeudenen arteko interakzioa sustatzeko jolas bat sortzeari. Nolabait, zuzenekoan dagoenak jolasteaz gain, txatean zeudenen parte hartzea bideratu eta sustatu gura genuen. Hala, euskarazko *Takatekla* jokoa sortzea bururatu zitzaidan, txa-



Ion Lizarazu informatikaria. AITOR AGIRIANO

"30 LAGUN GABILTZA '#3000TWITZ' EKIMENAREN BAITAN EUSKARA TWITCHEN BULTZATZEN"

tekoen parte hartzea bultzatzeko. Taula batean dauden hitzak harrapatu behar dira jokoa.

Joko erraza da? Abiadurak ere eragina izango du, ezta?

Bai, baina oso erraza da. Twitch kontua sortu behar da aurrena, eta bertan sartu -login-; ondoren, hitzak azkar idatziz parte hartu besterik ez da egin behar. Zaila dena da besteek baino lehenago euskarazko hitzak idaztea, edo beste norbaitek idatzi ez duen hitz hori norberak harrapatzea. Astelehenetan egiten ditut zuzenekoak, iluntzeko bederatzi-tan hasita; jada hamaika astez jarraian antolatuta ditut partidak. Irabazleek nire kanaleko domina lortzen dute sari gisa.

Zuzeneko bakoitza prestatzeko aurrelana dago hor.

Aurrelana bai, musika, irudia... dena prestatu behar da zuzenekoetarako. Baina inprobisazio-

tik ere badu. Anekdotak bezala: zuzenekoan pertsona batek irabazi, eta beste batek elkarriketa egiteko proposamena egin zuen; eta elkarriketa egin nion.

Nolako harrera izan du zure jokoak euskal Twitch komunitatean?

Hasieratik igotzen joan da ikusle kopurua; batez beste, hamabost ikusle izaten ditut zuzeneko bakoitzean. Jendea gustura dago, eta, batzuek astero errepikatzen duten arren, ikusle nahiz parte hartzaile berriak diren beste batzuk ere izaten ditut zuzenekoetan.

Euskal komunitatea sortua da jada, baina indartzen ari da? Nola ikusten duzu?

Zalantza gabe, indartzen ari da. #3000Twitz ekimenaren baitan, 30 bat lagunek parte hartzen dugu: batzuek sarriago egiten ditugu zuzenekoak eta beste batzuek tarteka egiten dituzte. Euskarak ematen duen bultzada hori da komunitatea jada bada-goela eraikia, eta bakarra dagoela, gaur-gaurkoz. Komunitate oso anitza da: oso gazteak eta helduagoak batzen dituen, alegia. Feedback ezberdinak jasotzen ditugu, gainera, bertan.



OIER PEÑAGARIKANO

Orientazio jolasak egin dituzte

Antzuolako Udalak eta Arrola Mendizale Elkarteak antolatuta, orientazio lantzeko jolasak egin zituzten zapatuan. Hainbat herritarrek parte hartu zuten eta Gipuzkoako Orientazio Taldeko kideek gidatuta zenbait ibilbide egin zituzten Zurrategiko plazan egokitutako zirkuituan. Mapa batzuetan zehaztutako ibilbideak egin zituzten.

Galardi eta 'Kaxeta' arteko bide berdean baso-lanak

Baso-lanak direla-eta egurrez betetako kamioiak dabilta *Kaxeta* eta Galardi arteko bide berdean, trenbide zaharrean. Eguraldiak laguntzen badu, irailaren erdialderako bukatuko dituzte lanak.

Horregatik, bide berdean barrera ibiltzen diren herritarrei kontuz ibiltzeko eskatu diete Antzuolako udal ordezkariak.

"Berez, bide berdera bertara ez dute egurrik botako, baina kamioiak joan-etorrian ibiliko dira. Seinalizazioa jarriko da. Arretaz ibili, beraz", ohartarazi dute.

Era berean, gogorarazi nahi izan dute baso-lanetan diharduten kamioiek trenbide zaharreko bidean barrena eragiten dituzten kalteak lanak amaitzerakoan konponduko dituztela: "Enpresak bidean eragindako kalteak txukuntzeko konpromisoa hartu du".

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Poza eta umorea nagusi, uztaila kolorez janzteko

Datozen egunetako kultura ekintzak osasun neurriak zorrotz beteta egingo dira. Goiena telebistak horiek jaso eta saio berezia eskainiko du astelehenean, uztailaren 19an, 18:00etan. Saioa berriro ikusteko aukera izango da 20:00etan eta 22:00etan.

Maidar Arregi ANTZUOLA

Uztailako kultur ekitaldiek kolore eta alaitasuna ekarri diete herritarrei. Izan ere, aurten ez dira herriko jai nagusiak ospatu; ezta Mairuaren Alardea ere. Antzuolako Jai batzordeak eta Udalak aisialdia egungo osasun arauetara egokitu dute; hala, herritar guztiendako prestaturako kultura egitarauaz gozatzen hasiak dira. Udal ordezkariak, baina, "norbera eta ingurukoa zaintzeko" eskatu dute. Intzidentzia-tasa altua da eta, neurriak zorrotz betetzeko eskatu dute.

Pozaren Eguna

Amaren intxaurrak ikuskizuna eskaini zuten Pirritx, Porrotx

eta Marimotots pailazoek. Denboraldi honetako ikuskizun guztietan bezala, emanaldiaren amaieran zuhaitz bat ematen diote tokian tokiko elkarteari edo ekimenari. Oraingoan, Antzuolako herriari oparitu diote zuhaitza. Beñardo Kortabarria alkateak esan zuen udaletxeko balkoian zainduko dutela eta neguan landatuko dutela.

OSASUN NEURRIAK ZORROTZ BETETA EGINGO DIRA DATOZEN EGUNETAKO KULTURA EKINTZAK

Gaineratu zuen herritar ororen artean erabakiko dutela zuhaitz hori non landatu neguan, eta, esan zuen Pozaren Eguna ospatuko dutela, "alkateek guxtienez egunean behin pozik" egon beharra dutela iritzita; hala, Antzuolan, urte bukaera aldera, egun osoko ospakizuna prestatuko dute Pozaren Eguna izenpean.

Kutura egitaraua

Asteburuko kultura egitaraua.

Uztailak 16, barikua

- 10:00 Txistulariak.
- 11:00-16:00/16:00-18:00 puzgarriak.
- 20:00 Sonakay, patioan.

Uztailak 17, zapatua

- 09:55 'Kanoiak sutu!'. Txistularien goiz-eresia
- 11:00 Bergarako Bandaren kalejira.
- 11:00 Liher taldea.

Uztailak 18, domeka

- 12:00 Kale antzerkia.
- 19:00 Bingoa, plazan.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Antzuolako udal ordezkariak. GOIENA



AKeko batzarkideak Torresoroa aretoan. MAIDER ARREGI

Urte gorabeheratsuan, aktibo mantentzearen helburua lortuta

Antzuolako Kirol Elkarteak urteko batzarrean aho batez onartu du bazkideen kuota 35 eurotik 40ra igotzea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Kirol Elkarteak urteko batzar orokorra egin du Torresoroan. Ibon Gezalaga presidenteak aitortu du pandemiaren ondorioz gorabehera handiko urtea izan dela, baina, oro har, batzordeak egiten duen balorazioa ona dela: "Ikusita nolako urtea bizi izan dugun, esan daiteke nahiko urte ona izan dela. Une batzuetan zaila izan bada ere, aktibo mantendu gura genuen, eta lortu dugu".

Diru kontuez ere jardun du Gezalagak: "Sarrera eta gastu askorik ez dugu izan; aldagela barruko hornidura izan da gasturik handiena. Hala ere, ekonomikoki urtea ondo amaitu dugu".

Eztalako aldagela berrien erabilerari dagokionez, denboraldi berriari itxaron beharko diote la adierazi du AKeko presidentek Gezalagak.

Denboraldi berrirako, aldaketak

Jokin Aranzabal izango da batzarkide berria. "Ilusioz eta gogotsu" hartu duela erronka adierazi du. Batzordetik irten da, aldiz, Mikel Larrañaga. Orain, kirol arloko bestelako antolaketak eta prestaketa lanetan jarraituko du. Gezalagak beste urtebetez jarraituko duela presidentek karguan adierazi du, baina erreleborako dei egin du.

Bestalde, bazkideen kuota eguneratzearen beharra ere azaleratu dute. Hala, 35 eurotik 40 eurora pasako da urteko kuota. Eta jakinarazi dute 2021-2022 denboraldian entrenatzaile guztiek jarraituko dutela.

AKEk preferente, gazte, kadete eta infantil mailako taldeak izango ditu; baita futbol eskola ere. Bergararekin duen hitzarmenari eutsi egingo dio; izan ere, kadeteetan eta infantiletan talde mistoak izatea da asmoa.

'HEMEN DEBAGOIENA' ANTZUOLATIK

GOIENA TELEBISTA, ANTZUOLAKO EZ-JAIK
UZTAILAREN 19AN, ASTELEHENEAN, 18:00 / 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Txerri-haztegia jarriko dute Arantzeta auzoan

Oraingoz, ez da txerririk Elgetako Arantzeta baserrian, baina Peio Bilbaoren aurreikuspena da egin beharreko lanak lehenbailehen egitea eta Gabonetarako ustiategi berria martxan egotea. Foru Aldundiko GazteNek programan sartu da

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Duela bi urte erosi zuten Peio Bilbao elgetarrak eta haren emazte Naiara Romatetek Arantzeta baserria. Txerri-haztegia jartzekotan dira, eta ez du luze joko. "2019ko Gabonetan hartu genuen erabakia eta pasa dugu 2020 guztia dokumentazioa prestatzen eta bideragarritasun-planarekin egiten. 2021eko urtarrilean aurkeztu genuen proiektua Foru Aldundian, eta udaberrian onartu digute GazteNek laguntza", azaldu du Bilbaok. Aldundiaren bitartez Abelur enpresaren aholkularitza teknikoa izan dute proiektua definitzeko fasean, eta lehen inbertsioak egiteko 20.000 euroko dirulaguntza jaso dute orain.

Behin proiektua gauzatzeko baimen guztiak onartuta, baserri alboko obra egiteko kontratistekin zain daude orain Arantzeta baserrian. Aurreikuspena da urte bukaerarako hastea txerri-haztegia ustiatzen.

Bizimodua, baserritik

Baserritik atera nahiko luke bizimodua Bilbaok. Aurretik ere baditu oilaskoak eta ahuntzak, baina txerri-haztegia beste dimentsio bateko proiektua da. Oraingoz, hala ere, biek egiten dute lan baserritik kanpo.

"Ez dakigu posible izango den baserritik bizimodua ateratzea, baina ni hasiko naiz poliki-poliki. Proiektua martxan jarri bitartean lanean jarraituko dut, baina asmoa da denborarekin lagatzea", esan du Bilbaok.

GazteNek egitasmoak, dena den, baditu baldintza batzuk horrekin lotuta. "Hiru urtera lana uzteko derrigortasuna daukat, edo, bestela, baserritik ateratako diru kopuruak kanpotik ekarritakoak baino handiagoa izan beharko luke".

Basatxerri kooperatibako kide

Ekoizle txikiz osatutako Basatxerri kooperatibara batuko da

Bilbao, eta Nafarroako ustiategi batetik ekarriko ditu hazteko izango diren txerriak.

Garrantzitsua da, Bilbaoren ustez, gazteak lehen sektorean sartzea eta horrekin batera, baita ere, elkarren berri izatea. "Ez da lan erraza. Baserritik bizi denak edo bizi izan denak ondo daki zein den sakrifizioa, baina taberna batean 02:00ak arte lan egitea sakrifizio handiagoa da, nire ustez. Hemen ez dago oporririk. Egia da. Baina badaude egun libreak, eta, guztiak ondo funtzionatzen badu, lasai bizi daiteke, inori azalpenak eman beharrik gabe", azaltzen du Bilbaok.

"Bagoaz poliki-poliki aurrera"

Behingoz, haztegia eraikitzeko unea da eta gogotsu dago Bilbao. Betidanik izan du baserrirako joera. "Oso gustura ibiltzen nintzen aitaren baserrian, Bergaran. Autobidea egiteko bota zuten eta ondoren erosi dugu baserria emazteak eta biok", dio. Zergatik txerriak galderaren aurrean zera dio: "Gure ezaugarriak zeintzuk diren kontuan hartuta, bideragarria ikusten dugulako eta egokiena iruditzen zaigulako eskatzen duen lan kopuru aldetik, azpiegitura zein lursail aldetik, inbertsio aldetik...". Zailena, oraingoz, proiektua definitzea eta bideragarritasun-planarekin egitea izan da. "Baldintza asko bete behar dira, aurrekontu mordoa eskatu behar da, lizentziak ere bai... Gauza asko dira, baina proiektua aurkeztu eta onartu egin digute, eta bagoaz poliki-poliki aurrera".



Peio Bilbao Larrañaga, martitzenean, Arantzeta baserri atarian. L.Z.L.



Bilbao, txerri-haztegia ipiniko duen lursailean. L.Z.L.

Hamar hektareako lursaila

Baserri gainera lursail batean jarriko du txerri-haztegia Peio Bilbaok. Orain ahuntzak dituen eremuan pabiloi bat eraikiko du, eta txerriak hamar hektareako lursail batean ibiliko dira libre. Basatxerri kooperatibak ezarrita dauzkan produkzio baldintzak bete beharko ditu lursailaren azalerari eta azalera horri dagokion txerri kopurua hazteko. Hala, urtean 400 txerri izango dira gehienez, 200 txerriko bi sortatan banatuta. "Txerri gehiago hazi nahiko banitu beste esplotazio bat prestatu beharko nuke, esaterako", azaltzen du Bilbaok.

Aukeratutako lursaila Arantzeta baserritik oso gertu dago, gainera aldean. Gaur gaurkoz, Bilbaoren ahuntz taldea ibiltzen da libre eremu horretan. Gauzak ondo bidean laster hasiko dira egokitze lanak.

Zazpi eguneko epean lau positibo berri Elgetan

Ez-jaien hasieratik zortzigarren egunera atzeman zen olatu berri honetako lehenengo positiboa

L.Z.L. ELGETA

Koronabirus kasuen bilakaera orokorra goranzkoa da, eta Elgetan ere bosgarren olatua ez da oharkabea. *Olatu gaztea* ere esaten zaio agerraldi honi, eta, gaur argitaratzekoak

diren datuen zain, azken zazpi egunotan lau positibo berri atzeman dira herrian. Horrenbestez, intzidentzia-tasa 353,67,25 da, eta, aspaldiko partez, eremu laranjan da herria. Eremu horitik laranjara pasa zen atzo.

Ekainaren lehen erregistratu zen oraingoan aurreko azken positiboa, ekaineko bakarra. Pandemiaren datuak jasotzen hasi zirenetik, berriz, 68 kasu hauteman dira Elgetan.

Ez-jaien eragin posiblea

Azken positiboak ez-jaien osteko egunetan atzeman izanak ematen du zer pentsatua. Kopuruak ez dira, oraingoz, beste zenbait herritan atzemandako bestekoak. Denborak esango du agerraldia zenbatekoa den.

Jose Ignacio Munilla apezpikuak esango du meza domekan

Elgetako bi gaztek konfirmazioaren edo sendotzaren sakramentua hartuko dute domekan, hilak 18, eta Donostiako elizbarrutiko apezpiku Jose Ignacio Munillaren eskutik izango da. Hala, domeka eguerdiko meza nagusian izango da apezpikua. "Gotzainak eman ohi du sendotzaren sakramentua, eta bera izango da buru domeka eguer-

diko elizkizunean", azaldu du Elgetako parroko Juan Cruz Juaristik. "Nik laguntzaile lanak egingo ditut", gaineratu du parrokoak.

Sendotzaren sakramentua hartuko duten bi gazteak Martin Ojanguren eta Pablo Ojanguren dira, eta elizkizuna 12:00etan hasiko da Jasokundearen Andra Mari parrokian. Esan behar da badirela urte batzuk Elgetan ez duela inork sendotzaren edo konfirmazioaren sakramentua hartzen.

Euskara ikasteko beste aukera bat urritik aurrera

Elgetan Berbetan egitasmoaren baitan ikasturteotan martxan izan diren ekimenei A2 mailako euskara ikastaroa gehituko zaie urrian. Zabalik da aurre-izenematea egiteko aukera. Matrikula ordaintzeko dirulaguntzak ere aurreikusten dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

A2 mailari dagokion euskara ikastaroa izango da. Taldea osatzen bada, urritik ekainera bitartean egingo da, eta astean behin bi orduko saioak izango dira. "Oinarritzko maila da; izan ere, bigarren urratsa da. Hala, ezagutza pixka bat behar da, baina oinarritzkoa", azaldu du Elgetan Berbetan egitasmoko koordinatzaile Geaxi Ezpeletak. "Taldea osatzen bada, AEK-ko irakasle bat etorriko da Elgetara astean behin. Oraingo, ez daude definituta ez asteko eguna ez ordutegia. Izena ematen dutenekin zehaztuko dira horiek". Uematik egiten den eskaintza da, eta matrikula 119,40 euro da. Dena den, HABEk ematen duen dirulaguntza jasotzeko aukera dago. "Ikaslearen asistentzia maila %75ekoa izatera iristen bada, matrikularen %80 itzuliko zaio, eta, horrez gainera, maila gainditzen badu, %100 berreskuratuko du".

Udalak, bestetik, martxan du euskara ikasteko urtero egiten duen dirulaguntza deialdia. Elgetan errolatutako 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago, eta Elgetan zein Elgetatik kanpo egindako euskara ikastaroetarako da. Matrikularen %80rainoko kopurua berreskuratuko aukera ematen du.

Euskararekin hasi berriendako

Euskara ikastaro berria sortuko da, aurreko ikasturteotan Euskara Lagun taldetik zein liburutegiko irakurketa saioetatik jasotako esperientziatik abiatuta. "Euskara Lagun taldea bi ikasturtez izan dugu martxan. Auzoko estiloko euskara taldea da, eta aurtan, esaterako, hiru lagunek hartu dute parte. Iaz, lau izan ziren. Ez da ikastaro ofiziala. Ez dugu idatzizkoa zein gramatika lantzen. Ahozotasunera bideratuta dago, eta oinarri-oinarritzko edukiak lantzen



Hainbat lagun euskara lantzeko irakurketa saioetako batean. ELGETAKO LIBURUTEGIA

JARRAIPENA IZANGO DUTE, BAITA ERE, ELGETAN BERBETAN DINAMIKAKO ORAIN ARTEKO EKIMENEK

ditugu; euskararen aurkezpena egiten dugu, eta ikasten ditugu *egun on, agur, ez dut ulertzen, astiro egin berba, mesedez...* eta antzerakoak. Hiztegi oso basikoa lantzen dugu. Helburua da lehenengo kontaktua, gutxienez, euskaraz egiteko gai izatea".

Liburutegiko irakurketa saioek, berriz, formatu berria izan dute ikasturte honetan, eta A1 mailako irakurketak landu dituzte. "Literatura solasaldiak egiten genituen aurretik, baina izenematean jaitsiera izan zen eta oinarritzkoagoa den dinamika batekin proba egitea pentsatu genuen. Hala, irakurketa mailakatukoak diren liburuak hartu ditugu oinarri aurtan, eta landu ditugu, batez ere, ulermena, hiztegia, ahoz gorako irakurketa... Bi bidelagun eta bi bidelari ibili dira ikasturte honetan, eta astean

ordubeteko saioa egin dute. Proba pilotua izan da, eta hurrengo ikasturtean izena emateko deialdi irekia egingo dugu", azaldu du Ezpeletak.

Elgetan Berbetan egitasmoa

Aurrera jarraituko du, baita ere, Elgetan Berbetan egitasmoak. Berbalagun taldeak osatzea da dinamika honen helburu nagusia; bidelariak eta bidelagunak astean behin elkartzea ordubeteko mintzapraktika egiteko. Egitasmoa 2015eko azaroan jarri zen martxan, hiru talderekin. Ordutik ez du etenik izan, pandemia egoerak eragindako tarte kontuan hartu barik, noski. "Hamasei bat lagun ibili dira amaitu berria den ikasturte honetan; ohiko mintzalagun taldeak bi izan dira. Horri Hikalagun taldea gehitu behar zaio. Gurasolagun talde bat ere egon da martxan epealdi batean. Kasu honetan, bidelaguna badago, eta, inor animatuko balitz, mintzapraktika saioak berriz martxan jartzeko aukera egongo litzateke", esan du Ezpeletak. Gainerakoan, bidelagun premia dagoela azpimarratu du.



Bolatokiko haur parkea. ARTXIBOA

Haur parkeetako hainbat jolas berri gura ditu Udalak

Autobus geraleku bat ere egokituko dute Pagatzen, eta hilerriko sarreran irisgarritasun lanak egingo dira

L.Z.L. / Hasier Larrea ELGETA

Azken osoko bilkuran hartutako erabakia da 2020ko diru soberakineko 91.555 euro –%89,7– mantentze eta irisgarritasun lanetara bideratzea. Udal jabetzakoak diren eraikinetako koadro elektrikoak egungo arautegira egokitzeko lanak eginda daude. 40.000 euro pasa inbertitu dira. "Bost urtean behin egin behar dira konponketa horiek, eta aspaldi egin barik zeuden", esan du alkateak. Udal eraikinetako galdaren errebisioa ere aurtan egin behar da; soberakinetik 5.000 euro bideratu dira.

Irisgarritasun lanak

Irisgarritasun lanak egiteko diru lerroa 2.400 eurokoa zen, eta beste 20.000 euro gehitu dira kreditu aldaketa bidez. "Pagatzako industrialdean autobusen dako geraleku bat egokitzeko da asmoa, baita ere Torrealdeako

hondakinen gunean behar den moduko sarbide bat egitea, eta San Rokeko hilerriko sarreran egokitze lanak egitea", zehaztu du Lazkanok. Herriko haur parkeetan jolas berriak jarriko direla ere azaldu du alkateak. Bolatokiko parkean eta herriko beste parke batzuetan jarriko direla aurreratu du. 30.000 euroko diru-lerroa dago, orain, horretarako.

Hiri-altzarien mantentzea

Oposizioak maiatz hasieran kritikatu zuen hiri-altzarien egoera, eta eskatu zuen mantentze-lanak egitea lehenbailehen. Lazkanok esan du udal brigadako langileek badihardutela barandak margotzen. "Daukan zailtasun teknikoarengatik bateren bat ezingo dute brigadako langileek margotu, eta enpresa bat kontratatatzeko asmoa dugu", jakinarazi du alkateak.

Udalekuak bosgarren eta azken astean sartuko dira

Ekainaren 21etik martxan diren udalekuak azken txanpan sartuko dira. "Eguraldiak ez du lagundu, eta txango gutxi egin ditugu", azaldu du Nerea Villa koordinatzaileak. Bastarrikara, Intxortara zein Galdaramiñora joan dira taldeetako batzuk. "Espero dugu eguraldiak hobera egitea eta ur jokoak, zikin jolasak eta ginkana egitea".

OHARRAK

Udako ordutegia

Liburutegia hilaren 30era arte egongo da zabalik; astelehenetan 14:30etik 20:00etara eta martitzenetatik barikuetara 10:00etatik 13:00etara.

Plastiko bilketa

Mankomunitateak hilaren 27an jasoko du baserriko plastikoa. Eskaera egiteko, deitu 943 76 25 47 zenbakira.

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Pablo Picasso margolariaren *Guernica* koadroaren txokolatezko erreplika egin dute Euskal Herriko hainbat gozogilek elkarlanean, eta, Gernikan eta Bilbon egon ostean, Oñatira heldu da aste honetan. Gaurtik, egubakoitza, aurrera egongo da ikusgai Santa Ana aretoan, abuztuaren 8ra arte.

Oñatira ekartzeko arrazoiak bazeudela uste zuen Udalak, herriak txokolatearekin duen lotura estuagatik, baina baita herri moduan memoria historikoa jaso eta transmititzeko duen arduragatik, Izaro Elorza alkaterearen esanetan: "Picassoren koadro hau ikono bihurtu da eta memoria historikoarekin lotura egin gura dugu, eta baita Oñatik txokolatearekin duen historiarekin ere, hasi Sancti Spiritus unibertsitatetik eta XX. mendean izan ziren txokolate fabriketarako".

Tamaina eta temperatura

Ekartzea zen bat, baina nora eta non kolokatu erabaki beste bat. Izan ere baldintza oso zehatzak eskatzen dituen koadroa da: margo originalaren tamaina berekoa da, 7,8 metro luzeran eta 3,5 metro altueran. Horrek esan gura du koadroaren eta ikuslearen artea distantzia bat egotea komeni dela, ezin delako gertu-gertutik ikusi obra osotasunean. Horrez gain, txokolatezkoa da, eta, beraz, temperatura egokia duen toki batean jarri behar da; 18-20 gradu bitartean egon behar du txokolateak, urtu ez dadin. "Txokolatea bizia da, beroarekin desegin egiten da, baina, berriz hoztu arren, ez du hasierako itxura berreskuratzen. Hori da duen arazoa", dio Anton Azpiazu, Txokolateixako bultzatzaileak.

Sancti Spiritus unibertsitate-ara ekartzea ze lehen aukera, hara iritsi baitzen lehen aldiz kakaoa Oñatira, XVII. mendean. Baina hango kaperan ez zegoen leku nahikorik. Azkenean, Santa Ana jartzea erabaki dute, eta hantxe egongo da abuztuaren 8ra arte. Xabier Igartua Oñatiko Udalako Sozioekonomia zinegotiak azaldu duenez, kanpotik datozen turistek eskainiko zaie bisitatzea, baina herritarrak joateko modukoa ere badela uste du: "Uste dugu interesgarria dela ikuspegi turistikotik, Oñatiren marka bultzatzeko aukera



Txokolatezko 'Guernica' muntatzen eguen arratsaldean Santa Anan. MARKEL ARRAYAGO

Probatu ez, baina ikusi daiteke txokolatezko 'Guernica' Oñatin

Euskal Herriko 40 bat gozogilek elkarrekin egindako txokolatezko koadro hori originalaren tamaina berekoa da: 7,8 metro luzeran eta 3,5 metro altueran. Santa Ana aretoan jarri dute, freskotan, eta abuztuaren 8ra arte ikusi ahal izango da

ona dela, baina oñatiarrendako ere polita dela iruditzen zait".

11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik Santa Ana txokolatezko *Guernica* ikusteko. Ez da aurrez erreserbarik egin behar, eta joan ahala sartuko da jendea. Barruan ibilbide bat prestatu dute koadroa ondo ikusteko moduan, eta hari buruzko azalpenak emango dituen pertsona bat ere egongo da. Edukiera mugatua da, eta, bisitak luzeak ez direnez izango, antzoki atariko espazioan bideoak jarriko dituzte koadroaren prozesua nolakoa izan den ikusteko, aretoa sartzeko zain dauden bitartean.

la hiru ordu muntatzen

Txokolatezko koadro hori zatika dago eginda, baina piezak ere handiak dira, eta, tamainagatik eta materialagatik, zaila da batetik bestera garraiatzea eta muntatzea. Gipuzkoako gozogileen Gozoa elkarteak ULMArekin jarri zen harremanetan arazo hori konpontzeko, eta enpresak egin du koadroa garraiatzeko egitura eta kolokatzeko euskarria. "Txokolatea egin eta hori nola erakutsi zen euren kezka, arazoa. ULMAren soluzioa izan da inklinatuta dagoen plataforma bat egitea, koadroa ondo ikusteko moduan, eta, era berean, erraz muntatu, kendu eta garraiatzen dena. Hasieran egin genuena aldatu egin behar izan genuen gero, tamainagatik, baina egin dugu ondo doakiona, egokia dena", ULMAko presidente Lander Diaz de Gereñuren esanetan.

Eguazten eguerdian eraman zituzten Santa Anara, kamioi batean, plataforma hori muntatzeko behar zituzten pieza guztiak, eta udal brigadako langileekin laguntzarekin muntatu zuten. Txokolatezko pieza handiek ere han pasa zuten gaua, kaxa berezi batzuetan sartuta. Eguenean 15:00etan joan ziren proiektuan parte hartu duten hainbat kide, eta piezak euskarriaren gainean jarri zituzten; ia hiru orduko lana.

Oñatitik Gasteizera

Abuztuaren 8ra arte egongo da Oñatin txokolatezko koadro hori. Irailean Gasteizera eramango dute, handik Parisera eta gero Madrilera, azaroan han egingo den ChocoMad azokara.

ULMAko lehen makina izan zen

1950eko bigarren zatian, herriko txokolate fabriketako makinak konpontzeko tailer bat zabaldu zuten Oñatiko sei gaztek Mendiko kalean: Talleres Ignacio Maiztegi. Txokolategileek indar handia zuen orduan Oñatin eta Zahor-eko orduko gerente Iñaki Egañak txokolatea paperarekin batzeko makina bat sortzea, egitea, proposatu zien. AEBetako aldarnio batzuen berri ere jaso zuten, eta bi proiektuetan sartu ziren gazte haiek. Egañaren bitartez, Julio Saiz eta Jose Vidal etorri ziren Oñatira Bartzelonatik. Arrasaten hasitako kooperatiba mugimendua Oñatira heldu zen garai hartan eta Saiz izan zen ULMAko lehen gerentea eta



Txokolatea paperean batzeko ULMAk egindako lehen makina. KUTXA FOTOTEKA

Vidal, txokolatea batzeko makinaren diseinatzailea. Zahor-ek utzitako Sapal makina oinarri hartuta, M-A izeneko egin zuen ULMAk 1962tik aurrera. Kooperatiba 1961ean

eratu zuten, hamabost bazkiderekin. JJEIP akronimoekin aldarnioen negozioa izendatu zuen, eta ULMA, txokolate-makinetarako.

"Tamaina originaleko piezak moztea izan da zailena"

RAFA GORROTXATEGI GOZOGILEA

Oñatiko Garaicoechea fabrian ikasi zuen txokolatea egiten Rafa Gorrotxategi tolosarraren aitona, eta harreman berezia du Oñatirekin. Euskal Herri osoko gozogileek hartu dute parte proiektu honetan, eta bera da bat.

Nola sortu zen ideia?

Bizkaian eta Araban indar handia dute gozogileek, baina Gipuzkoan ez horrenbestekoa, eta Gozoak elkarte sortu zen, indartzeko. EAEko hirurak elkarrekin ziren gero, Jaurilaritzak eskatuta, neurri batean, Euskal Gozogileak izenekoan, eta hortxe sortu da

ideia. Iruditu zitzaigun Piccasoren 'Guernica' aproposa zela, duen historiagatik.

Nola egin duzue?

Tamaina txikiko bat egitea zen asmoa, baina bagenekien ez zuela handiak adinako oihartzunik izango eta baietz esan genion tamaina errealean egiteko erronkari. 1,80x1,10 metro duten hamalau piezatan



RAFA GORROTXATEGI

zatitu genuen koadroa, paretan plano bat jarri eta hari jarraituz elkarrekin genituen gero.

Hiru txokolateak erabili dituzue?

Bai. Tonalitate ezberdinak ditu koadroak, eta zuria, esnezkoa eta beltza erabili ditugu.

Zer izan da zailena?

Hasieran, Jose Luis Zumetaren alabarekin jarri ginen kontaktuan, neurri handiko margoak egiten zituen-eta hark. Baina tamaina originaleko piezak lortu genituen gero, eta haiek moztea izan da zailena. Txokolatez busti genituen oholak eta haien gainean jarri piezak; begiak, zaldiak, haginak, aurpegiak... pintzelekin markatu genituen lehenengo, eta txokolatearekin forma eman gero. Figura lauak dira, eta, alde horretatik, erraza izan da. Bi aste behar izan ditugu egiteko.

Ze harreman duzu Oñatirekin?

Handia. Zegamakoak ziren gure aurrekoak; birraitona Urbiako artzain bat zen eta Oñatirekin lotura ordutik dator. Hil zenean, txokolate denda bat erosi zuen birramonak aitona-ondak, Tolosan. Joxe Miguel Barandiaranekin zegoen seminarioan aitona, eta hura utzi eta Oñatira joan zen txokolatea egiten ikastera; Garaicoechean ikasi zuen. Anton Azpiatzurekin, Egaña familiarekin eta Loyola, Guereca edo Zahor etxeetako familiarekin, adibidez, harreman ona izan dugu. Eta oraindik badituzte lagunak, bai.



Martitzenean plazan egindako kale agerraldia. STADLER-EKO LANGILE BATZORDEA

Gaur ezer adostu ezear, greban jarraituko dute Stadler-en

Langileen kaleratzeak eta soldata jaitsiera dira grebaren arrazoi. 09:00etan dute hirugarren bilera

O.E. OÑATI

Gaur, egubakoitza, 09:00etan dira bilerak egitekoak Santxolo-peztegi auzoko Stadler enpresako zuzendaritzako eta langile batzordeko ordezkariak. Komiteak dio ez daudela prest orain arte enpresak proposatutakoa onartzeko, eta, gaurko bileran ezer adosten ez badute, atzo, eguna, 22:00etan hasitako greba mugagabearekin aurrera jarraitu eta mobilizazioak handituko dituztela. Enpresarekin harremanetan jarri da GOIENA, baina, oraingoz, ez du adierazpenik egin.

Kaleratzeak eta soldata jaitsiera

Enplegu Erregulazio Espedienteak aurkeztu zuen enpresak eta 65 langiletik hamabi kaleratzea eta gelditzen ziren langileei soldata %30 jaitsia jasotzen zuen txosten horrek. "Langile batzordeak asmo horiek salatu eta

mobilizazioak egin ditu enpresarekin bilerak egin genituen egunetan: uztailaren 8an bi orduko lanuztea txanda bakoitzean eta 13an egun osoko greba. Lehen bileran, enpresak hamabi langile beharrean hamar kaleratzea eta soldata jaitsiera %20koa izatea proposatu zuen. Ez genuen onartu, eta martitzenean ere ez ginen ados jarri. Beraz, greba mugagabea hasi genuen atzo gauean, eta, gaurko bilerak adostasunik gabe bukatzen bada, aurrera jarraituko dugu, mobilizazioak gehituz. Argi dugu ez dugula borondatezkoak ez diren kaleratzerik onartuko, ezta soldata jaitsierarik ere. Erregulazio tenporala aurkezteko enpresak, baina ez orain artekoa", dio langile batzordeko kide Xabi Llodiok. LAB, ELA, ESK eta independente bat, bost guztira, daude batzordean, eta batera daude lan-gatazkan.



NIRE USTEZ

RAMON MARTIN

Egiazko informazioa

Madrilgo auzitegi batek ebatzi berri du informazio bat ematerakoan ez duela garrantzirik egiazkoak diren ala ez erabilitako datuak, Vox-ek etorkin adingabeei buruz argitaratutako iragarki baten inguruan. Egiazkotasunak ez duela garrantzirik inork iritzia emateko duen

eskubidearen aurrean, hain zuzen ere. Abisatuta gaude.

Ez dago, baina, oraingoz, behintzat, auzitegirik eragotziko digunik behar bezala informatzea, datuak kontrastatzea edota egiazkotasun hori frogatzeko aukera erabiltzea.

Legediaren arabera, gainera, gero eta errazagoa izan beharko luke datu publikoak kontrastatu ahal izateak.

Baina egia al da hori? Egiazkotasuna arretaz frogatzea gure eskuan ote dago? Inoiz saiatu al zara? Honetan egiteko asko dagoela esango nuke nik.

Babestu ditzagun, bada, datuen benetakotasuna eta kalitatea egiaztatze mekanismoak: prentsa, dokumentu publikoak, artxiboak... Bestela, egia erdiz erabiltzen dituzten guztiek irabaziko dute beti.



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Xabi Gordo, Ultra Ebre zeharkaldian. EDGAR ENDRINO

"Ez nuen uste hirugarren postua lortuko nuenik"

31 kilometroko luzeradun Ultra Ebre ibai zeharkaldian hartu zuen parte Xabier Gordoak aurreko asteburuan Katalunian; parte hartu eta hirugarren amaitu. Bost ordu eta erdiko lana izan zen, Ebron, haize handiak eta hark sortutako olatuek zaildutakoa

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI
Gordoa bera ere apur bat ezustean harrapatu zuen zeharkaldian lortutako emaitzak: "Proba ez nuen espezifikoki prestatu. Nahikoa diesela naiz, eta banekien gauzak ondo egin nitzakeela, baina ez nuen pentsatzen hirugarren postua lortuko nuenik. Egia da baja pare bat egon zirela; ziur asko, ni baino hobeak izango zirenak. Baina, hala ere, egindakoarekin oso-oso gustura nago, hirugarren postuarekin baino gehiago, zeharkaldia nola egin nuen ikusita".

Azkenean lehen hiru postuetan sailkatu ziren igerilariak, Gordoa bera eta Guille Matas –irabazlea– eta Laura Volpi –bigarrena–, hasieratik nabarmendu ziren lasterketa buruan. Matasek aurrera egin zuen, eta Gordoak tripetako arazoak izan zituen tarte batean, eta aurre hartu zion Volpik ere: "Saiatu nintzen hura harrapatzen, baina ez nuen lortu, eta azken lau kilometroetan deskonektatu egin nuen

probatik, baldintzak ere zailak ziren, eta esan nuen: 'Bukatu egingo dut, ez da gutxi'. Hor tarte handixeagoa atera zidaten; dena dela, nik uste eurak ni baino gehixeago zirela". 5.27.26 izan zen irabazlearen denbora; 5.30.32, bigarrenarena; eta 5.35.54 egin zuen oñatiarrak.

Lasterketak, zati desberdinak

Itsasoko zeharkaldietan bai, bai ibaian ibiltzen ez dago ohituta Xabi Gordoa. Bere berezitasunak ditu inguruneak, eta gero daude lasterketa eguneko baldintza zehatzak. Itsasoan igeri egitea baino gehiago kostatzen da ibaian, "flotagarritasun gutxiago" edukitzeagatik. "Eduki genuen lehenengo zati bat aldeko korrante

**ITSASOAN IGERI
EGITEA BAINO
GEHIAGO KOSTATZEN
DA IBAIAN,
FLOTAGARRITASUNAGATIK**

handiarekin, eta oso-oso agudo joan ginen. Bigarren zati baten korrante gutxiago zegoen, eta bakoitzak bere onena eman behar zuen han. Azken zatian haizea asko sartu zen, azken zortzi kilometroetan, haize-olatua zegoen kontra, eta benetan oso gogorra izan zen zati hori".

Lasterketari aurre egiteko kayakean zihoazen bi adiskidearen babesa izan zuen Gordoa –derrigorra zen–. Haien animoak entzun ez, baina keinuak lagungarri izan zitzaizkiola dio. Haien laguntzarekin egiten zituen indarrak hartzeko geldialdiak ere, 45 minutuan behin; hortxe huts egin zuela uste du: "Lehiatzen ari zarenean eta ikusten duzunean zure aurkariak aurrera doazela, ez duzu denbora galtzerik nahi, eta gauzak gaizki egin nituen, hartzen nuelako gel bat agudo, gatzei tragoa eman eta barratxoa batzuetan jaten nuen eta beste batzuetan ez".

Kontuak kontu, "oso esperientzia polita" izan dela dio Gordoa.

Danel Casais: "Nire ibilbideko garaipenetan handiena da"

Gazte mailako Kantabriako Itzulian gailendu da oñatiarra, bigarren etapa irabazita lortutako errentarekin

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI

Hoherenen taldetxoan helmugaratu zen Casais lehen etapan; zapatukoa, berriz, irabazi egin zuen. Ihes eginda zihoazen bi txirrindulari alde handiegia hartzen ari zirela-eta –minutu eta laurden–, berak bakarrik egin zuen tropeletik aurrera. Harrapatu egin zituen biak, eta bat atzean utzi ere bai. Eta esprintean irabazi egin zion Casaisek Sanse-Rotor taldeko Alberto Fernandezi. 25 segundo atera zizkieten tropelari.

Azken etapari abantailarekin ekin zion, beraz, oñatiarrak. Baina jende asko zuen 25 segundoko atzerapenarekin, eta behin eta berriro eraso egin zuten; azken igoeran apur bat atzeratu zen liderra, baina jaitsieran berriro egin zuen bat. Lidergoari eusteko bere taldeak, Ampo-Ikolanek, egindako lan handia na-




Danel Casais, sariekin. AMPO-IKOLAN

barmendu zuen, eta oso pozik agertu zen garaipenarekin: "Oso maila ona zegoen. Espainiako txirrindulari onenak eta Frantziako talde bat eta portugaldar batzuk ere bazeuden, eta baita kolonbiarrak, brasildarrak... Nire garaipen handiena da".

Ulma taldeko Aimar Madina bigarren, Arantzazuko Igoeran

Donosti Berri taldeko Iñaki Errazkinek lortu zuen garaipena Arantzazuko Igoeraren 51. aldian, baina etxeko txirrindulariek ez zuten urruti izan txapela. Aimar Madinak bigarren egin zuen, Elgoibarko taldeko Beñat Fernandezekin helmugaratuta, irabazlearengandik 27 segundora. Aimar Erostarbe, berriz, seigarren izan zen, 1.32ra.



Bigarren posturako lehiak. I. SORIANO

Uxue Osés, etxean galtzaile, Plazaz Plaza txapelketan

Amaia Aldairekin bikotea osatuz, Laia Salsamendiren eta Oihana Orbegozoren kontra jokatu zuen Ados Pilota Elkartek antolatzen duen Plazaz Plaza txapelketako partidua; plazako frontoian, hain justu. Aldai eta Osés 4-11 aurreratu ziren markagailuan, baina ezin izan zioten abantailari eutsi, eta 22-14 galdu zuten azkenetako.



Uxue Osés, Oñatin. IMANOL SORIANO

Musikari ezagunak, orkestrarekin oholtzan

Mendiak eta musika batzen dituen Urmuga ekimenaren baitan, domeka arratsaldean Oñatin izango dira Maider Zabalegi, Alex Sardui, Petti eta Ekiza kontzertua eskaintzen; eta eguerdian, Urbian, Alos Quartet taldea izango da zuzeneko egiten

Amaia Txintxurreta OÑATI

Hemeretzi eguneko mendi ibilbideak eta hamabost kontzertu jasotzen dituen Urmuga ekimenak Oñatin egingo du geldialdia domekan. Izaro Elorza alkateak adierazi nahi izan du Urmuga ez dela soilik mendiak eta kultura batzen dituen egitasmo bat, hauxe gaineratu du: "Hortik haratago doa batzen dituelako lurralde barneko ez-mugak, Euskal Herria bera, gure hizkuntza euskara, herria... eta bat egiten dugu horrekin guztiarekin".

Kontzertu "bereziak"

Foruen plazako pilotalekuan Euskal Herriko lau musikari



lazko Urmugan, Alex Sardui, Et Incarnatus orkestrarekin batera Erremendian. URMUGA

ezagun ikusi eta entzun ahalko dira: Maider Zabalegi, Alex Sardui, Petti eta Ekiza izango dira oholtzan, 18:30ean. Dena den, horiek ez dira bakarrik egongo: bakoitzak bere hiruzpalau kantutako abestuko ditu, eta gero, guztiek batera kantatzeko aukera ere izango dute. Baina "berezia" izango da, Urmugako proiektuaren arduradunetako bat den eta oholtzan pianoa jotzen egongo den Juantxo Zeberioaren esanetan. Izan ere, Et Incarnatus hari-orkestraz gain, beste lau musikariren laguntza ere izango dute: Gorka Benitez, saxofoian; Karlos Aranzegi, baterian; Itsaso Etxebeste, baxuan; eta Zeberio bera, pianoan. "Kantutako ezagunak entzun ahal izango dira, inoiz entzun gabeko bertsioetan eta horrek berezi egingo du emanaldia", adierazi du Zeberio. Alos Quartet taldea, berriz, Urbian izango da, 13:00etan.

Sarrerak salgai

Urmuga.eus webgunean eros daitezke kontzertuetarako sarrerak. Alos Quartet taldea ikusteko 15 eurotan eta Foruen plazako emanaldirako 20 eurotan.

Elvis Presley zenaren bertsioak, Noa Elvis artistaren eskutik

Esku-ltu-ra programaren barruan, hurrengo eguaztenean, hilak 21, 19:00etan, Lazarraga lorategian eskainiko du kontzertua Noa Elvis artistak. Noa Egigurenek gidatzen duen Gipuzkoako Noa Elvis & The Wooden Hearts taldeak Elvis Presley zenaren kanta ezagunenak bertsionatuko ditu. Sarrerak agortuta daude dagoeneko.

Ganbara Abesbatzak saria jaso du Bartzelonan

Josep Vilaren Kataluniako *Salve Regina* obraren interpretazio onenaren saria jaso du Oñatiko Ganbara Abesbatzak Bartzelonako 56. Nazioarteko Abesbatzen lehiaketan. Hainbat herrialde-tako abesbatzek hartu dute parte lehiaketan—Kuba, Venezuela, Madril eta Turkia tartean—, uztailaren 5etik 11ra; telematikoki izan da lehiaketa.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behe
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Oihana Kortazar, Lleidako Munduko Txapelketan. FEDME

"Borroka psikologiko eta fisiko handia izan da"

Hiru zilar eskuratu zituen Oihana Kortazarrek aurreko asteburuan jokatuako Skyrunning Munduko Txapelketetan. Kilometro bertikalean eta maratolian bigarren egin zuen, eta, emaitza horiekin, postu bera lortu zuen sailkapen konbinatuan ere

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Lleidako parte-hartzea kilometro bertikalarekin hasi zen elgetarrentzat. Ez zuen lasterketa prestatu, hamar egun lehenago sortu zitzaion-eta aukera, dortsal bat libre zegoela eta. 3,3 kilometroko lasterketa izan zen, 1.030 metroko desnibelarekin. "Sentsazio arraroak izan nituen. Ondo sentitu nintzen, baina, hainbeste urte igaro eta gero, niretzat ezezaguna zen distantzia batean nenbilen [hiruzpalau urte zera-matzen kilometro bertikalik egin gabe]; orduan, oso fuerte hasi nintzen, nik lehen horrela egiten nuelako bertikalean, baina hori lehen zen. Gorputzak ez zidan erritmo hori aguantatu. Kilometro eta erdi egin nuen lehen postuan; baina atzetik aurrera egin zuen besteak, eta azken bostehun metroetan nire helburu bakarra izan zen hirugarren zetorrenak ni ez harrapatzea".

Beste hura Marcela Vasinova txekiarrak zen, eta hura harrapatzeko ahalegin handiegia egi-

teak domekako maratoirako beharrezko indarrak xahutzea izan zezakeen ondorio, ahaleginak emaitzarik ez emateko aukera handiarekin, gainera; burua hotz, hortaz, eta, azkenean, zilarrekin gustura: "Ez nuen hain postu ona espero". 41 minutuko lana egin zuen irabazleak, eta bi minutu eta 14 segundo gehiagokoa elgetarrak. Iris Pessey frantziarra izan zen hirugarren, hiru minutu eta erdira.

Maratoia: erditik aurrera, hobeto Eta domekan, maratoia; eta, berriz ere, emaitza bera, bigarren postua: "Hasierako kilometroetan ez nituen oso sentsazio onak eduki, nekea sumatzen nuen hanketan. Lehen 21 kilometroak

KILOMETRO BERTIKALEAN EZ ZUEN HAIN EMAITZA ONA ESPERO, EGITEKOA ERE EZ ZEN ETA

deseroso joatekoak izan ziren". Kortazar hasieratik jarri zen bigarren, eta "borroka psikologiko eta fisiko handia" egin zuen postu horri eusteko. Marcela Vasinovak –berak irabazi zuen maratoia ere– atzetik aurrera egin zuen lasterketan; gorantz Kortazar atzean utzi eta azken jaitsieraren aurretik hemeretzi minutu ateratzen zizkion elgetarrari; azken hamabi kilometroetan tarte handia jan zion Elgetakoak txekiarrari, baina ez harrapatzeko adina: irabazlearengandik zazpi minutu eta erdira helmugaratu zen, 4.57.48 eginda; ia sei minutu atera zizkion Marta Molist hirugarrenari. Lasterketaren lehen erdian lehen postuan joandako Blandine L'Hirondel, berriz, erretiratu egin zen, orkatilako arazoekin.

2012an, Kortazarrek irabazi egin zuen kilometro bertikala, ibilbide berarekin, eta hirugarren egin zuen maratoian –lau urtean behin izaten dira Munduko Txapelketak–.


Zapone gazi-gozonekin itzuli da Eneko Carrascal Europakotik

23 urtez azpikoen lehiaketan, finaletik kanpo geratu zen luzera-jauzian eta bederatzigarren izan zen hirukoitzean

J.I.M.Z. ARRASATE

Denboraldia aho-zapone onarekin amaitzeko asmoz joan zen Eneko Carrascal aurreko asteburuan Estonian jokatuako Europako Txapelketara, eta, tamalez, ez da guztiz horrela izan, nahiz eta aitortu duen denboraldi hasieran zalantzarik gabe sinatuko zukeela esan izan baliote egin duena egingo zuela: "Baina behin han egonda, ikusita ze maila zegoen eta zer egin nezakeen, pena apur bat dut egunean eman ez izanagatik nire maila onen-ona. Baina oso pozik nator, eta oso esperientzia onarekin". Faborito batzuek "huts" egin zutela dio, eta hori "aprobetxatu" ez izanaren arantza geratu zaio, nahiz eta jakin faborito haiek ere zerbaitegatik egin zutela huts, "egon zen haizeagatik eta".

Luzera-jauzian ez zuen Carrascalak finalerako sailkatzea lor-



Eneko Carrascal, Europakoan. GOIENA

tu; bai, ordea, hirukoitzean. 15,97 metroko jauziarekin, seigarren marka onenarekin sailkatu zen finalerako, baina finalean 15,61 egin eta bederatzigarren amaitu zuen, marka hobetzeko jauzi gehiago egiteko aukera ematen duten lehen zortzietatik kanpo.

Malen Ruiz de Azua, garaile

Pertika-jauzilari arrasatearrak federazioen arteko Espainiako Txapelketan hartu zuen parte asteburuan L'Hospitalet de Llobregaten, eta garaipena lortu zuen. Jauzi egiteko baldintza kaxkarrak izan ziren, kontrako haizearekin, eta 4,35 metroko saltoarekin lortu zuen garaipena Ruiz de Azuak. Denboraldi berrira arte atseden hartuko du orain.



GOIENA

Itxaso Plaza arrasatearra, euskal selekzioarekin

Espainiako kadete mailako txapelketa jokatuako dute asteburuan Madrilen, eta euskal selekziozko boskotean ariko da Plaza. Bergarako Bolintxo Okindegia-Lana taldean diharduen txirrindularia taldekako erlojupekorako –gaur– eta iraupen probarako –bihar– hautatu dute. Markina-Xemeingo erlojupeko igoeran hirugarren egitetik dator Plaza.



Itxaso Plaza, lehiatzen. JORGE MORALES

Dorletako Amaren helmuga, Gatzagainen

TXIRRINDULARITZA Domekan jokatu da afizionatu mailako Leintz Gatzagako lasterketa, nobedadeekin; luzatu eta gogortu egin nahi izan dute antolatzaileek: Untzillara igoko dira, eta ez da herrian amaituko, mendate puntan baizik. Igotzaileentzako lasterketa izatea nahi dute

J.I.M.Z. LEINTZ GATZAGA

Hasi eta bukatu, biak, egingo da Gatzagainen Dorletako Ama txirrindulari lasterketaren 43. aldia. Horrela erabaki dute antolatzaileek, bi arrazoigatik: alde batetik, egungo osasun egoera dela-eta lasterketaren hasiera eta amaiera herritik atera nahi izan dituzte, herrian pilaketak saihesteko; beste aldetik, lasterketa gogorragoa egin nahi izan dute, igotzaileentzako aproposagoa izan dadin eta azkartasunagatik edo ordekan nabarmen-tzen diren txirrindulariei gauzak zailtzeko.

"Azken urteetan txirrindulariek esaten ziguten esprinterrek irabazten zutela. Taldeak lan gogorra eginez gero, esprinterrek eutsi egiten dute azken malda horretan. Eta guk nahi dugu gure lasterketa mendiko lasterketa izatea, Gatzaga mendikoa delako. Eta, orduan, esan genuen: 'Aramaion aldapa apur bat jarri eta Gatzagara hiru igoera'. Eta hori ez da broma", dio antola-

kuntzako kide Joxerra Agirreurretak.

Mendatea hirutan igo eta hirugarrenean helmuga goian, beraz; eta aurretik, gainera, Agirreurretak esan bezala, Aramaioko pasaera ere gogortu egin dute apur bat; izan ere, orain arteko azken edizioan, 2019an, eraman zuten lasterketa Aramaioraino, baina aurten, hara eramateaz gain, Untzillara igotzaileentzako dute, Suñan behera berriz ere Arrasatera bidean jartzeko. 118 kilometro izango dira; 10:00etan hasiko da lasterketa, eta 13:30 alderako espero da lehena helmugaratzea.

Helmugaratzea, Gatzagainen, esan bezala, herrian ez dadin jendea pilatu, eta baita ere erra-

**HERRI BARRUAN
JENDE PILAKETAK
SAIHESTU NAHI IZAN
DITUZTE
ANTOLATZAILEEK**

zagoa delako han gaur egungo egoeragatik eta lasterketaren logistikarekin lotuta eskatzen dizkieten neurriak betetzea.

Azken igoera, erabakigarria

Euskaldun txapelketako lasterketa izango da Leintz Gatzagako, 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindularientzat. [Lerrook idazteko orduan izen-ematea oraindik irekita eta parte-hartzaile zerrenda artean zehaztu gabe egon arren] Igor Arrieta, Unai Iribar... maila handiko txirrindulariak espero dituzte antolatzaileek irteeran; eta helmugan, euren aurreikuspenak eta nahia betetzen badira, lehena, igotzaile bat. Hori bai, lasterketa Aramaioko igoerarekin gogortu eta aurretik Gatzagako mendatea beste bi aldiz ere igo beharko duten arren, guztia azkeneko igoeran erabakiko dela uste du Agirreurretak: "Igoera bakoitzean apurtuko da lasterketa, baina azkena izango da erabakigarria".



Oier Lazkano, orain arteko azken edizioko irabazlea, 2019an. GOIENA

Goienakideen txokoa

Uztaileko zozketak



Bi lagunendako bi gaueko egonaldia Altsasuko San Pedroko Bidea landa hotelean
Parte hartzeko sariaren izena: Egonaldia

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GASTELAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremendenda.org
Eskatu Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarren dagian (DFO 15/1999) agerian ezarri, jabetza dena da eta ez da pertsona bati bereziki zozketatzen. Erabaki automatikoki lotu behar da. Datu bilaketaren helburu bakarra da indarren dagian zozketatzen. Erabakia lortzearen ondoren, sariak, lehiak, azkeneko edo zozketak, helbide honetan bidaltzen dira: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

TXOPEKUA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuo aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztailek 20

943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jabetza
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntuo aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGA TU GOIENA
APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



Arrasaten jaiotako Itziar Yague musikariak eta haren taldeak zabaldu zuten Arrasate Blues jaialdia atzo, eguena. ITZIAR YAGUE

Arrasate Blues, zero kilometrokoa

Jesusi Etxebarria musika irakasleari atzo egindako omenaldiarekin hasita, musika beltzarekin lotutako bederatzi doako kontzertu izango dira domeka bitartean kalean

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Urtebeteko lanaren ostean, atzo, eguena, "ilusioz" abiatu zuten Ibai-arte merkatari elkarteak eta Arrasateko Udalak herriko hainbat tabernaren laguntzarekin antolatu duten hirugarren Arrasate Blues jaialdia. Domekara bitartean, herriko zazpi txokotan banatuta, hamar talderen emanaldiak eskaintzea zen, hasiera baten, antolatzailen asmoa, baina, osasun egoerak behartuta, eten bako aldaketak egiten ari dira egitarauan; izan ere, jaialdia abiatzeko ordu guxti falta zirela jakin zuten domekan herriko kaleetan zehar Arrasateko 8,46 Dixie Band taldeak egin behar zuen emanaldia bertan behera utzi behar izan dutela, taldekide bat konfinatuta dagoela arrazoituta.

Hasiera "hunkigarria"

Aurreko aldiek bezala, *zero kilometro* aldarria du jaialdiak. "Musikazaleen topaleku izateaz gainera, gure herriko kulturarekin eta gastronomiarekin gozatu gura duten guztientzako proposamena da. Arrasateren nortasuna berreskuratu eta, aldi berean, bertako saltoki txikien eta ostalaritzaren jardura in-

dartzen lagunduko duen ekimena da. Emanaldi guztiak doan izango dira eta edukiera mugatua izango dute, baina ez dira aurrez gonbidapenak banatuko. Agertoki bakoitzean jarritako eserlekuak bete bitartean izango da tokia", azaldu du Ibai-arte merkatari elkartearen Jon Apraizek.

50 urtean Arrasaten musika irakasten jardun duen Jesusi Etxebarria irakasleari omenaldia eginda abiatu dute aurtengoa. "Herriko musikagintzan egindako lana aitortu nahi genion eta Arrasate Musikaleko ikasleen eta Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin ekitaldi xumea besteko gozoa egitea lortu genuen, taularen gainean herriko musika harrobiari ere tokia eginda".

Tokioa eta parekidea

Hamahiru urtean Arrasaten bizi eta Etxebarriaren ikasle izan zuten Itziar Yaguek zabaldu zuten

**KONTZERTUAK DOAN
IZANGO DIRA, BAINA
EDUKIERA MUGATUA
DUTE ESERLEKUAK
BETE BITARTEAN**

kontzertuen eskaintza. Taularen gainean lagun izan zituen Paul San Martin (pianoa), Fran Serrano (kontrabaxua), Inhar Val (tronpeta) eta Dani Domingez (bateria). "Oso eskertuta nago nire jaioterrian *Delicious* lana aurkezteko aukera izan dudalako. Ikaragarria iruditut zait kartela; bertakoak, Euskal Herriko punta-puntako formazioak dira guztiak, eta, horrez gain, emakumeen ordezkari handia du, eta horrela izan behar dela uste dut; izan ere, bluesaren jatorrian emakumeek pisu handia izan zuten. Jaialdi eredugarria da!". Eta zera gaineratu du Berako Estitxu musikariak: "Asko eskertzen dut nik ere emakume musikarioi ikusgarritasuna ematea".

Iritzi berekoa da gaur, egubakoitza, jendaurrean estreinako emanaldia egingo duen Arrasateko Erromintxelak taldeko kide Iñigo Zubizarreta: "Jazz arloan jarduten dugun aspaldiko lagunak gara Jon Garcia (gitarra eta ahotsa), Aitor Moreno (kontrabaxua) eta hirurok. Pandemiaren aurretik genuen elkarrekin proiektu bat sortzeko asmoa eta itxialdian izan dugu borobiltzeko aukera eta denbo-

Jaialdian izango diren musikariak



ERROMINTXELAK

Arrasate / Dixie swinga
Euskal Herria plaza
Egubakoitza / 19:00



VOODOO CHARMS

Donostia / Swing & bluesa
Otalora Lizentziaduna
Egubakoitza / 20:30



ANIMAL JANE

Gasteiz / Bluesa, folka eta americana
Portaloia / Zapatua / 12:00



IKER PIRIS & SHEILAH CUFFY

Tolosa eta Londres/ Bluesa, soula
Jokin Zaitegi plaza
Zapatua / 13:00



NOA & THE HELLDINKERS

Donostia / Bluesa, rocka
Ferrerias kalea
Zapatua / 19:00



MISSISSIPPI QUEEN & THE WET DOGS

Bilbo / Funk-rocka, soula
Plaza / Zapatua / 20:30



ESTITXU

Bera / Musika beltza, askotariko estiloen nahasketa
Portaloia / Domeka / 12:00




MARIO FERNANDINO

Gasteiz / 50eko hamarkadako jazz
Arbolapeta / Domeka / 13:00



8,46 DIXIE BAND

Arrasate / Dixiea
Bertan behera geratu da,
taldekide bat konfinatuta



WILLY (LOS BRAZOS)

Bilbo / Bluesaren historiaren kontaketa
Arbolapeta / Domeka / 19:00

ra. Arrasate Musikaleko Big Bandeko zuzendari Zigor Martinezekin (klarinetea) osatu dugu laukotea. Dixie-jazz edo dixie-swing estiloa eskaintzen dugu, 30eko hamarkadan Europan egiten zena; akustikoa eta dantzagarria. Asko eskertzen dugu herriko jaialdian parte hartzeko emandako aukera. Pozik eta gogotsu gaude taularen gainera igotzeko".

Erromintxela taldeko kideez gainera, datozen egunetan, taularen gainean Arrasatekin lotura duten musikari gehiago izango direla kontatu du Apraizek: "Azken orduan bertan behe-geratu den 8,46 Dixie Band taldea, esaterako, Arrasate Musikaleko ikasleek eta ikasle ohiek osatutakoa da, baina, zoritxarrez, ezingo dira gurekin izan. Eta domekan Arbolapetan izango den Mario Fernandino taldeko gidari Mario Fernandez ere Arrasate Musikaleko irakaslea da. Mikel Maniega (tronpetea), Diego Belzunegi (pianoa), Gorka Gaztanbide (bateria) eta Erromintxelak taldeko Aitor Moreno izango ditu lagun".

Datorren astean, gehiago

Ibai-artek eta Udalak astebururako egin duten eskaintza opa-roa bada ere, herriko musikarien eta bestelako eragileen partetik jaso dituzten eskaerak eta proposamenak aintzat hartuta datorren astebururako Arrasate Blues jaialdiaren sinadurarekin beste bi kontzertu iragarri di-

DOMEKA BITARTEAN BEDERATZI EMANALDI IZANGO DIRA ERDIGUNEKO ZAZPI TXOKOTAN BANATUTA

tuzte: "Uztailaren 24an, zapatua, Musakolako Elkano plazan Xabi Garre (Señor No) eta Jon Gurruixaga (Sugramas, Arima Beltza) izango dira, 19:00etan hasita. Eta domekan, berri, Jokin Vitoria Sustrajazz taldea izango da Herriko Plazan, 20:00etan".

Arrasateko Jokin Vitoria bateria-joleak goi mailako musika ikasketen amaieran sortutako proiektu berria da Sustrajazz taldea. "Nire konposizioak eta nire sustraiak diren euskal kanta herrikoiak jazz estilora eraman ditut, eta horiekin sortu dut errepertorio propioa eta berezia. Zerrenda horretan daude, besteak beste, Arrasateko kanta herrikoiak diren *Maritxu nora zoaz* eta *Errementari dantza*, euskal folklora eta jazz uztartuz moldatu ditudanak. Formazioari dagokionez, gertuko lagunekin osatutako laukotea da, denak eskarmentu handiko musikari profesionalak: Nerea Arrieta (pianoa), Iñigo Zubizarreta (gitarra elektrikoa), Aitor Moreno (baxua) eta ni neu, baterian", azaldu du Vitoriak.

Arrasate Blues jaialdiaren aurtengo eskaintza borobiltzeko, uztailaren 27rako, martitzena, herriko musikari gehiagori tokia eginda, *Iluntze akustikoa* izeneko emanaldia iragarri dute: "Herriko Plazan izango da, 19:00etan hasita, eta taularen gainean izango dira Garazi Barrera, Leire Etxezarreta eta Asier Sala arrasatearrak eta Huntza taldeko Aitor Huizi".

Garagardoa eta elastikoak

Jaialdiraino hurbiltzen direnek Arrasate Blues marka duen garagardoa eta elastiko koloretsuak eskuratzeko aukera izango dute.

"Gazteek eskatutakoa ematen saiatzen nintzen"

JESUSI ETXEBARRIA MUSIKA IRAKASLEA

50 urtean izan da musika irakasle Jesusi Etxebarria. 2012an itxi zuen akademia, eta egindako lanagatik omenaldia jaso zuen atzo, eguna, Arrasate Blues jaialdiaren barruan.

Zer moduz? Pozik?

Oso pozik, sekulako sorpresa izan da; badira urte batzuk erretiroa hartu nuela, eta ez nuen inondik inora ere espero.

Musika irakastera bultzatu eta animatu zintuen Jose Maria Arizmendiarietak.

Zelan izan zen?

Nire konfesorea zen. Piano ikasketak bukatu nituenean, ea zergatik ez nintzen eskolak ematen hasten galdetu zidan. Ez nuela gura erantzun nion, baina, halako baten, nire etxera etorri zen bere loba batekin, eta "hemen duzu zure lehen ikaslea" esan zidan.

Etxean hasi zinen eskolak ematen, hortaz.

Bai; bost urtez. Pianoa nuen, eta Arizmendiarietakaren lobarekin hasi nintzen, 1962ko otsailaren 6an. Markinako lagun bat ekarri zuen gero, Bego nire ahizpa izan nuen hirugarren ikaslea, eta ondoren, beste asko. 1967an zabaldu nuen Iturriotz kaleko 32 atarian akademia, eta 2012ko ekainaren 22an itxi.

Ez zen erraza izango emakumea izanda garai hartan musika akademia zabaltzea, ezta?

Eskolak etxean ematen zituztenak bai, baina, bestela, ez



A. ARANBURUZABALA

"PIANO DA NIRE TRESNA PREZIATUENA, BAINA BAXUA, GITARRA ETA TXISTUA ERE JOTZEN DITUT"

zegoen eskaintzarik herrian. Gidatzen ere lehengoetako emakumea izan nintzen herrian. **Pianoa da zure tresna, baina gitarra ere oso maite duzula diozu. Zenbat instrumentu jotzen dituzu?**

Piano ikasketak ditut, nire instrumentu gustukoena da, baina behin oportetean mutil bat gitarra jotzen ikusi nuenean argi nuen hura ikasi gura nuela, eta, ikasleen eskaerari erantzun guran, elektrikoa eta baxua ere ikasi nituen geroago, 50 urte nituela. Aurretik, txistua jotzen ere ikasi nuen, Aretxabaletako Demetrio Iriarterekin.

Solfeoa beharrean tabularioa erabiltzen zenuen ikasleekin.

Pianoko ikasleekin solfeoa, baina gitarra edo baxua irakasteko, berri, zifretan oinarritutako teknika da hori. Solfeoa aspergarritzat zutenentzako aproposa.

Hala etortzen zitzaizkizun herri askotako gazteak.

Debagoieneko herri guztietatik etortzen ziren nire akademiara. Taldeka edo kuadrillaka ematen nituen eskolak, gehienetan.

Makina bat rock talderen 'errudun' zara, beraz?

Baliteke, bai; gazteek eskatzen zidatena irakasten saiatzen nintzen, eta gustura jarduten genuen. Urte lanpetuak baina politak izan ziren, bai.

Zelan prestatzen zenituen eskolak?

Egurdian ikasle batzuk etortzen ziren, baina gehienak, arratsaldeetan; hala ere, 08:00etarako lanean nenbilen. Ikasi nahi zuten abestiaren kasetea edo CDa ekartzen zidaten, eta jotzeko moduan prestatzen nien.

Oso kantu lasaiak ez ziren izango, bada?

Hamaika egin ditut RIP, Eskorbuto, La Polla Records eta halako taldeenak. Baita The Clash, Metallica, Ramones...

Eskatutakoa ematen saiatzen nintzen. RIPeko Jul Bolinaga lehengusua nuen, eta hark laguntzen zidan baxurako kantuak prestatzen batzuetan.

Musika hezkuntzari behar den garrantzia ematen zaiola uste duzu?

Ez nahikoa. Gurako nuke atzerrian moduan ikastetxeetan musika eta musika tresna ikasgaiak egotea.

IXONE AZKORRA, GIZARTE HEZITZAILEA

GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'

UZTAILAREN 21EAN, EGUAZTENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
ANE ZABALAK GIDATUTAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. Errentan hartu

Arrasate. Bikote ardura-tsua gara eta etxebizitza behar dugu errentan, prezio onean, ahal bada erdigunean. 680 87 38 66

2. GARAJEAK

203. Errentan eman

Bergara. Ibargarai kalean errentan emateko bi garaje: autoarentzako bat eta moto edo bizikletentzako beste bat. Telefonoa: 679 74 00 61

4. LANA

401. ESKAINTZAK

HEMEN MODULOTXOA

402. Eskeraek

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusi eta umeen zaintzan, garbiket lanetan, jarduteko prest dagoen emakumea naiz. 602 50 50 02

Arrasate. Esperientzia handia eta soziosanitario titulazioa daukan emakumea abuztutik aurrera lanerako gertu. Gidabai-mena eta erreferentzia onak. 680 87 38 66

Arrasate. Etxe barruan bizi izaten lan egin nahi dut pertsona nagusiak zaintzen. 643 41 45 38

Debagoiena. Emakumezko euskalduna lanerako gertu. 656 79 28 37

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten pertsonen zainketarako edo garbiketarako lan egingo nuke. 642 49 94 09

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: atari, base-ri eta abarrak garbitzen, nagusiei enkarguak eta

BERGARA

Zerbitzaria behar da taberna baten lan egiteko. 622 94 65 65

garraioetan laguntzen, banatzaile lanetan etab. Autoarekin. 645 72 92 87

Debagoiena. Goizetan nagusiak zainduko nituzke. Berehala hasteko moduan. 602 32 06 58

Debagoiena. Hainbat lanetan jarduteko prest nago: eraikuntzan, tabernatan, pertsona nagusien zaintzan. 612 28 05 29

Debagoiena. Lanean hasteko prest nago; pertsona nagusi edo umeen zaintzan, garbiket lane-tan. 602 02 63 03

Debagoiena. Mutila garbiketari, nagusiei laguntza ematen, banaketan edo bestelako lanetan jarduteko gertu. 643 68 73 46

Debagoiena. Neska arduratsua garbiketari, lisa-tzen eta ume zein nagusien zaintzan aritzeko gertu. Baita ospitalean ere. 611 24 26 64

Debagoiena. Neska arduratsua egunean zehar lan egiteko gertu. Sozio-sanitario, etxeko langile eta lehen sorospen ikasketekin. 653 36 85 80

Debagoiena. Pertsona arduratsua lanerako prest: tabernetan zerbitzari be-razala, pertsona nagusiak zaintzen eta abar. Telefo- noa: 603 58 06 85

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen gauz lan egingo nuke. Soziosa- nitario titulua eta legezko paperak egunean ditut. Deitu 647 31 48 17 tele- fono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Titulazioa dau- kat. Deitu 688 72 88 97 telefonora.

Debagoiena. Pertsona nagusien zainzaile beza- la esperientzia daukat eta lan egin nahi dut. Telefo- noa: 672 55 67 35

Debagoiena. Soziosani- tario titulua daukat eta petsona nagusiak zain- tzen lan egiteko prest nago. 659 90 85 13

Oñati. Neska gertu umeak zaintzeko uztailen. Bai goiz eta bai arratsaldez. Interesatuta bazaude, idatzi zenbaki honeta- ra: 636 73 64 40

Zaintza eta dendari la- nak. Uda honetan Berga- ran haurrak zaintzeko edota dendan lan egiteko prest dagoen neska gaz- te euskalduna. Telefonoa: 634 40 86 24

7. ANIMALIAK

703. Eman

Katakumeak opari. Hil- labeteko katakumeak ematen dira dira. Hiru ar eta eme bat. Bi hilabete- rekin entregatuko lirarteke. 667 94 52 12

Katakumeak. Katakum- eak ematen dira opari. 642 72 69 10

Katakumeak. Katakum- eak ematen dira opari. Bi hilabeterekin. Telefo- noa: 610 31 02 61



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Modemika, 86 m², 3 logela, berzitate, biatzera sartzeak. 150.000€ Negoziogaria.
- Modemika, 75 m², 3 logela, berzitate, biatzera sartzeak. 150.000€ Negoziogaria.
- Froislaizuri, 64 m², 3 logela, igogailua, agerkitasun. 170.000€
- Zubikurre, 58 m², 2 logela, berogailua, igogailua. Biatzera sartzeak. 105.000€
- Zubiete, 65 m², 3 logela, berogailua, biatzera sartzeak. 100.000€
- Modemika, 75 m², 3 logela, kanpoko parkea, biatzera sartzeak. 120.000€
- Mielietegi, 96 m², 4 logela, tenueserikua, igogailua. 139.500€ PREZIO JEITSIERA.
- Romerikua, 85 m², 2 logela, berzitate. 115.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Boli, 103 m², 3 logela, berzitate, biatzera sartzeak. 340.000€
- Bidekuntzeak, 46 m², logela 1, berzitateak, igogailua, biatzera sartzeak. 150.000€
- Askaruntz, 40 m², 2 logela, berzitateak, berzitateak. 45.000€
- Askaruntz, 40 m², 2 logela, berzitateak, biatzera sartzeak. 100.000€
- Modemika, 75 m², 2 logela, biatzera sartzeak. 149.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Samentonbier, 75 m², 2 logela, parkinga, txokoa, biatzera sartzeak. 175.000€
- San Antonio, 76 m², berzitateak, igogailua jabearen kontura. 99.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Urteaga, 115 m², 3 logela, berzitateak eta parkeak. Baratzakia. 73.000€
- Zubiete, 70 m², 3 logela, biatzera sartzeak, egokitua. 85.000€ PREZIO JEITSIERA.

GARAJEA:

- Igogailu, 13,42 m², garaje itxia. 18.000€ PREZIO JEITSIERA.

LOKALAK:

- Ibargarai, 78 m², lehen etxea, bi sarrera, 3 bainategia. Lehen okidegite. 125.000€
- A. Fleming, (poligonoko) 50 m², komertzio eta garajea ditza. Bi sarrera ditu. 65.000€
- Zubiete, 50 m², bi sarrera ditu, lekuak eta portakak. 42.000€

OSINTXU:

- Oñatez, 85 m², 3 logela, berogailua, berzitateak, igogailua. Biatzera sartzeak. 125.000€
- Oñatez, 64 m², 2 logela, berzitateak handienekin, igogailua. Biatzera sartzeak. 78.000€
- Oñatez, 72 m², 3 logela, berzitate, biatzera sartzeak. 85.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Oñatez, 75 m², 3 logela, berzitateak handienekin. 63.000€ Aukera ona.

UBERA:

- Boveria eta 15 hektareako lursaila (pinak, zelaiak) 340.000€ PREZIO JEITSIERA.

ANTZUOLA:

- Bolekua-azuea, 90 m², 3 log. Berzitateak eta garajea berria. Biatzera sartzeak 118.000€
- Kaleberria, 75 m², 3 logela, igogailua, berzitateak. 145.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Bolekua-azuea, 54 m², 2 logela. Berzitateak. 80.000€
- Bolekua-azuea, 60 m², 2 logela. Berzitateak. Biatzera sartzeak. 120.000€
- Erriksala, 78 m², 2-3 logela, igogailua, biatzera sartzeak. 125.000€
- Kaleberria, 79 m² - 77 m². Berzitateak. 61.000€ - 51.000€

ELGETA:

- San Rikie, duplexa, 83 m², berzitate, biatzera sartzeak. 190.000€.

SORALUCE:

- Rikale, 73 m², 3 logela, berogailua, igogailua, berzitateak. 105.000€.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'HEMEN DEBAGOIENA', ANTZUOLATIK

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA

'ERRONKA KONPLEXUEN GARAIA'

'Debagoiena eraldatzen' Eguena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 16

08:00 Hemen da Miru 49
08:30 Harmailatik
09:00 EKT: laburpena
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Galdegazte: Peru
Abarrategi
11:30 Hala Bazan: txiste
kontalari
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Hemen da Miru 50
13:30 Erreportajea:
'Ikergazte'
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 Galdegazte: Peru
Abarrategi
16:00 Albisteak
16:30 Zirikatzan 2
17:00 Albisteak
17:30 Erreportajea:
'Ikergazte'
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Hala Bazan: txiste
kontalari
19:30 EKT: laburpena
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Kontzertua: Arrasate
Musikal
22:00 Hemen Debagoiena

ZAPATUA, 17

08:30 Hemen da Miru 51
09:00 Galdegazte: Peru
Abarrategi
09:30 Hemen Debagoiena
10:30 Zirikatzan 2
11:00 Asteko errepasoa
12:00 Hala Bazan: txiste
kontari
12:30 Harmailatik
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Hileko errepasoa:
ekaina
14:30 Asteko errepasoa
15:30 Zirikatzan 1
16:00 Hemen Debagoiena
17:00 Zirikatzan 2
17:30 Galdegazte: Paul Casal
18:00 Harmailatik
18:30 Kontzertua: 'Erraiak'
19:30 Hemen Debagoiena
20:30 Hileko errepasoa:
ekaina
21:00 Hemen Debagoiena
22:00 Erreportajea:
'Ikergazte'
22:30 Hala Bazan: txiste
kontari
23:00 Kontzertua: Big Band

DOMEKA, 18

08:00 Hemen da Miru 51
08:30 Hemen da Miru 52
09:00 Hemen da Miru 50
09:30 Zirikatzan 2
10:00 Erreportajea:
'Ikergazte'
10:30 EKT: laburpena
11:00 Hala Bazan: txiste
kontari
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Asteko errepasoa:
13:30 EKT: Zalao Ipiña
14:00 Kontzertua: Big Band
15:00 Zirikatzan 2
15:30 Hala Bazan: kultura
16:00 Hileko errepasoa:
ekaina
16:30 Zirikatzan 1
17:00 Hemen Debagoiena
18:00 EKT: laburpena
18:30 Zirikatzan 2
19:00 Erreportajea:
'Ikergazte'
19:30 Zirikatzan 1
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Zirikatzan 2
21:30 Hemen Debagoiena
22:30 Hileko errepasoa:
ekaina

ASTELEHENA, 19

EMAKUMEZKOEN
SASKIBALOA
'Harmailatik'

Astelehena, 21:30/23:30

EGUNERO

EGUNEKO ALBISTE
NAGUSIAK
'Albistegia'

15:00/16:00/18:00



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/
televista
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 20



GOIENA

GALDERA-ERANTZUNEN
JOLASA
'Zirikatzan'

21:30/23:30
EGUAZTENA

IXONE AZKORRARI
ELKARRIZKETA
'Berezia'

21:00/23:00

URTEURRENA

Mikel Pagalday Aguiriano



2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.

Joan zinen egunean zure familia betiko aldatu zen.
Gaur, zure heriotzaren hamargarren urteurrenean,
bizi izandako oroitzapenekin indarbertitzen gara.
Faltan botatzen zaitugu, Mikel.

—

Igandean, hilak 18, Eskoriatzako San Pedro parrokian,
11:30ean, izango da hamargarren urteurreneko meza.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Eskoriatzan, 2021eko uztailaren 16an.

URTEURRENA

Jesusa Berasategui Raizabal



2020ko uztailaren 18an hil zen, 90 urte zituela

Lehen urteurreneko meza igandean izango da, uztailaren 18an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2021eko uztailaren 16an.

URTEURRENA

Arantzazu Amasorrain Linacisoro



1948-07-26 / 2020-07-09

Maitasuna egunero ospatzen delako,
maite zaitugu.

Eskerrik asko, Arantzazu,
eskerrik asko, ama.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 18an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunera joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2021eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Alberto Ciardegui Larrañaga



Irripar batez itxi gaittuzu / ezin zan izen bestela.
Dotore ulertuz heriotza, / bizitzan zati bat dela.
Erakutsiaz bizitzarako / indar eta gogo itzela.
Ta batera egin dogun bidaiak / merezi izan duela.

—

Emaztea: Arantxa. Seme-alabak: Mertxe-Ibon; Aitor-Bea.
Ilobak: Unax, Maddi, Nekane, Maddalen.

Ciardegui-Iriarte familia.
Aretxabaletan, 2021eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Aitor Elkoroiribe Pujana



2021eko uztailaren 13an hil zen, 55 urte zituela.

Itsasoan arrantzan eta urpekaritzan,
mendian eskalatzen...
Ez ditugu inoiz ahaztuko zure abenturak.
Azkarregi izan bada ere,
zure agurra erraztu diguzu
ospitaleko solasaldietan.
Beti izango zaitugu gogoan.

Soraluzen, 2021eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Juli Arietaleaniz Ciarsolo



Eliseo Muñozen alarguna
2021eko uztailaren 13an hil da, 89 urte zituela.

Zure irribarre eder hori gurekin gelditu da.

Ahizpa, koinatu-koinatak eta ilobak.
Bergaran, 2021eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Esther Gual Lasanta



2020ko uztailaren 19an hil zen, Elorrión, 40 urte zituela

Orain dela urtebete utzi gintuzun
eta zurekin batera
gure ametsak eta irribarreak joan ziren.
Baina oroimenean duguna eskertuz
jarraituko dugu bidea.
Betirako gure bihotzetan, Esther.

Zure familia.
Arrasaten, 2021eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Jose Luis Pereira Polo



Gure Lurdes Jauregiatzoren senarra
2021eko uztailaren 10ean hil zen.

EPA-HHko irakasle eta ikasleagoak
gure doluminak helarazi nahi dizkizugu.



Arrasaten, 2021eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Irene Arce Elizburu



2021eko uztailaren 12an hil zen,
Ciudad Rodrigón (Salamanca), 63 urte zituela.

Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza,
beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.

Arrasaten, 2021eko uztailaren 16an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 16 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 17 ALBETO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Domeka, 18 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Astelehena, 19 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 20 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 21 RUIZ: Nafarroa etorbidea / 943 79 14 09
Eguena, 22 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 16 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 17 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 18 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 19 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 20 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 21 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
ORATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 16 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 17 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 19 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 21 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 22 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2021eko abuztuaren 30era arte: ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2021 osoan: ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia
eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa
deskargatu Google Play eta
App Store dendetan.

HILDAKOAK

Alberto Ciardegui Larrañaga. Aretxabaletan, uztailaren 9an.
Jesusa Askasibar Amiano. Bergaran, uztailaren 9an. 92 urte.
Jose Luis Aramendia Arbeo. Oñatin, uztailaren 9an. 84 urte.
Mari Carmen Lopez Gonzalez.
Aretxabaletan, uztailaren 10ean. 77 urte.
Jose Luis Pereira Polo. Arrasaten, uztailaren 10ean.
M. Arantzazu Gorosabel Madinabeitia.
Arrasaten, uztailaren 10ean. 86 urte.
Loreto Del Valle Urionabarrenetxea.
Arrasaten, uztailaren 11n. 87 urte.
Irene Arce Elizburu.
Ciudad Rodrigón (Salamanca), uztailaren 12an. 63 urte.
Julian Beitia Urkia. Oñatin, uztailaren 12an. 91 urte.
Juli Arietaleaniz Ciarsolo. Bergaran, uztailaren 13an. 89 urte.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako
guztiei euren bidea aurkitzen
lagundu diegu, orain arte
bezala, eta guztiek izango
dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gurean
izan duzun konfiantzagatik
eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



TXUTXU-MUTXUAK

**1. Santi Mujika oroimenean**

Antzuolako ziklismo proba antolatzen duten Peña Aiaitui taldekoek omenaldia egin zioten Santi Mujika zenari. Bere alargun Marijo Garitanok banatu zituen sariak.

2. Aho bete hortz

Modu horretan geratu ziren 'Mikra' ikuskizunean egon ziren arrasatearrak. Oihalekin hamaika akrobazia egin daitezkeela erakutsi zuten Biteri plazan.

3. Kanpai-joleen bisita

Albaidako (Valentzia) Bianca, Zulema, Jordi eta Joel egon ziren aurrekoan Areantzako kanpai-joleekin. Meruelorako (Kantabria) bidaian geldialdia egin zuten Aretxabaletan.

4. 'Bergara Oinez'

Agorrosin-Moiua-Basarte-Agorrosin ibilaldia egin zuten 30 bat lagunek, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako gaztetxoek lagunduta. "Ederto" pasa zuten.

5. Hockeyaz gozatzen

Bergara Hiria txapelketan etxeko taldea izan zen onena. Burdinolak bi partiduak irabazi zituen: Gasteizko Sumendiri eta Segoviako Cochinitos Voladores taldeari, hain zuzen.

**6. Herminia Juradok, 100 urte**

Uztailaren 13an bete zuen mendeurrena Montillan (Kordoba) jaio eta Arrasaten bizi den amamak. Etxekoekin ospatu zuen urtebetetzea, Al-Andalus elkartearekin.

7. Galarra ezagutzen

Hainbat lagun egon ziren aurreko asteburuan Udalatxeko magalean eta Meatzerrekaren bihotzean dagoen kobazuloan. Arantza Otadui eman zizkien azalpenak.

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARAMAIO
Markel Arrizabalaga Gonzalez
Uztailaren 22an, 6 urte. Zorionak, Markel! Zure eguna ondo ospatuko dozulakuan, asko-asko gure zaitxuen tia Eneritz eta arreba Iruneren partetik. Bajondik ta Aixolatik belarri tirakada handi bat.




OÑATI
Oier Sanchez Gomez
Uztailaren 21ean, 12 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure egunean. Zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu! Segi horrela, maitia!



OÑATI
Aihoa Dorado Hernandez
Uztailaren 19an, 9 urte. Zorionak polittlenari! Jarraitu hain maitagarri izaten eta gure bizitzak alaitzen. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu.



OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, 11 urte. Zorionak, Iker! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat denon partetik!



ARRASATE
Mikel Segovia Brasa
Uztailaren 18an, 4 urte. Zorionak, txiki. Patxo handi bat. Primeran pasatu eguna eta muxu handi bat.



BERGARA
Maialen Arregi Gantxegi
Uztailaren 18an, 11 urte. Zorionak, neska handi! 11. urtebetzia heldu da. Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat etxekuon partetik.



ESKORIATZA
Iradi Aramendi Altuna
Uztailaren 18an, 8 urte. Zorionak, maitxi! Asko disfrutatu zure egunian lagunekin eta etxekoekin. Muxu erraldoi pila bat.



ARRASATE
Naia Nilsson
Uztailaren 17an, 3 urte. Zorionak, Naia! Egunderrera izan dezazula. Patxo bat, amama Anttoniren eta Donostiako familiaren partetik. Bereziki, Maialen eta Mikel.




ARAMAIO
Izar Ezkurra Errasti
Uztailaren 17an, 4 urte. Zorionak, politt hori! Lau urte potolo! Egunderrera bat euki deizula eta patxo eta besarkada erraldoi bat!



ESKORIATZA
Malen Navas Clemente
Uztailaren 16an, 5 urte. Zorionak, maitia! Segi horrela; zoragarria zara! Mila musu etxeko guztion partetik. Asko maite zaitugu! Aita, ama, Nahia eta Lai.




ARETXABALETA
Euri Arando Iturbe
Uztailaren 16an, 9 urte. Familiaren, eta baita aitiita Fideleen partetik, ondo pasatu zure urtebetetzean!



BERGARA
Nahia Alberdi Quintana
Uztailaren 16an, 10 urte. Zorionak, Nahia!



ESKORIATZA
Urtzi Kortazar Garaiurrebaso
Uztailaren 16an, 38 urte. Zorionak eta urte askotarako. Patxo erraldoi bat familiakoen eta, batez ere, Intzaren partetik. Ondo pasatu zure egunean.



ANTZUOLA
Iñigo Etxaniz
Uztailaren 15ean, 46 urte. Sorpresa, Iñi! Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak, Iñigo, zorionak beti... Ondo pasatu eguna!



BERGARA
Martxel Azkarate Lopez de Lacalle
Uztailaren 14an, 7 urte. Urte askotarako, familiako guzti-guztien eta, bereziki, Martina arrebaren partetik!



OÑATI
Malen Caro Arriaran
Uztailaren 14an, 8 urte. Zorionak, laztana! Jada zortzi urte. Ondo pasatu zure eguna. Familia danaren partetik, muxuak.



ARETXABALETA
Ander Eraña Urieta
Uztailaren 13an, 10 urte. Zorionak, Ander! Egunderrera pasa dezazula! Belarritik 10 tirakada eta mila patxo zuretzat!



OÑATI
Maren Luis Gomez
Uztailaren 13an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Primeran ospatu eta muxu asko etxeko danon partetik.



OÑATI
Xuban eta Oxel Pildain
Xubanez uztailaren 12an, 5 urte egingo ditu eta Oxelek 17an, 2 urtetxo. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen eguna. Muxu potolo bana familixa danaren partetik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 16

ANTZUOLA Puzgarriak eta jolasak
Edukiera mugatuarekin. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:00-18:00.
Sagastin, 11:00etan.

OÑATI Txokolatezko 'Guernica' ikusteko aukera
Abuztuaren 8ra arte. Edukiera mugatua, baina ez da sarrerarik behar. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 17:00-19:00.
Santa Ana antzokian.

ARRASATE Erromintxelak taldea
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Euskal Herria plazan, 19:00etan.

ANTZUOLA Preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea
Ez Dot Moztuko Bizarra taldearen eskutik.
Zurrategi plazan, 19:00etan.

ANTZUOLA Sonakay taldea
'Sonakay zuekin' diskoa aurkeztuko dute.
Eskolako patioan, 20:00etan.

ARRASATE Voodoo Charms taldea
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Otalora Lizentziaduna kalean, 20:30ean.

ESKORIATZA Trigger taldea
Eñaut Zubizarretak 'Poliedroa Vol. I' lana aurkeztuko du, biolontxeloarekin.
Santa Marina plazan, 22:00etan.

BERGARA Sinead Savage & The Shu Shu's taldea
Berumuga egitarauaren baitan.
Espoloian, 22:00etan.

ARETXABALETA 'Bad boys for live' pelikula
Aire zabaleko emanaldia.
Herriko Plazan, 22:00etan

ZAPATUA 17

ARRASATE Txakolin Eguna
Arrasateko baserritarren garaioko produktuak erosteko eta Kataideko (Arrasate), Murgialdaiko (Oñati) eta

Belaskuako (Oñati) txakolinak dastatzeko aukera.
Seber Altube plazan, 09:00etan.

ANTZUOLA Kanoiak sutzea eta txistularien goiz-eresia
Kalerik kale ibiliko dira.
Antzuolan, 09:55ean.

ARAMAIO 'Mendi Parta' Durakogainen
10:30ean, Kruzeta gainetik irteera; 11:00etan, Durakogainen txalaparta saio libreak; 12:30ean jaitsiera; eta 13:30ean, Urmugako pago zaharrean ekitaldia.
Kruzeta gainean.

ARRASATE Arrasate ezagutzeko bisita gidatua
10:30ean euskaraz eta 12:00etan, gaztelerez. Izenak emateko: 'Arrasate.eus/eu/tramiteak/izen-ematea'.
Herriko Plazan.

ANTZUOLA Bergarako Musika Bandaren kalejira
Kalerik kale ibiliko dira.
Antzuolan, 11:00etan.

ARRASATE Animal Jane bakarlaria
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Portaloian, 12:00etan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
12:30ean, auzo-lasterketa Bizkaia kalean, eta 16:00etan, mus txapelketa. Egunean zehar auzoko hormatan graffitiak margotuko dituzte.
Portasolen.

ARRASATE Iker Piris & Sheila Cuffy
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Jokin Zaitegi plazan, 13:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Herriko monumentu garrantzitsuenetan dauden ezkutuko altxorrak ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI Espeleo-txiki Arrikutzen
Pasarelaz kanpo abentura familia osoarentzat –6 urtetik

gorakoendako—. Izena emateko: 943-08 20 00.
Arrikutzen, 15:00etan.

ARRASATE Noa & The Hell Drinkers
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Ferrerias kalean, 19:00etan.

ESKORIATZA Habi taldea
2018an sortu zuten taldea Jon Ander Artolak eta Yeray Gasconek.
Inkernuko terrazan, 19:00etan.

ANTZUOLA Liher taldea
Edukiera mugatua. Bulegoren emanaldia bertan behera geratu da.
Eskolako patioan, 19:00etan.

ARRASATE Mississippi Queen & The Wet Dogs
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Herriko Plazan, 20:30ean.

BERGARA Kilimak eta On The Go taldeak
Edukiera mugatua.
Usondo parkean, 22:00etan.

DOMEKA 18

ARRASATE 'Kanpanzar-Lurgorri-Udala' ibilaldi zirkularra
Izenak emateko: 'Arrasate.eus/eu/tramiteak/izen-ematea'.
Herriko Plazan, 09:00etan.

ARETXABAL Portasolgo jaiak
12:30ean, artisau azoka Bizkaia kalean, eta 13:30ean, Luisa auzotarrari omenaldia eta 16:00etan, mus txapelketa. Egunean zehar auzoko hormatan graffitiak margotuko dituzte. Barrakak ere egongo dira.
Portasolen.

ARRASATE 8,46 Dixie Band -bertan behera-
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Herriko kaleetan, 11:00etan.

ARRASATE Estitxu Pinatxo
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Portaloian, 12:00etan.

OÑATI Alos Quartet hari laukotea
Urmuga egitasmoaren baitan.
Urbian, 13:30ean.



HABI TALDEA

ESKORIATZA Habi taldea
2018an sortu zuten taldea Jon Ander Artolak eta Yeray Gasconek, Villabonan. 'Koloareak' diskoa besapean egingo dute emanaldia. Debalde, edukiera mugatuarekin.
Bihar, zapatua, Inkernuko terrazan, 19:00etan.

ANTZUOLA 'Turistreatzen' kale antzerkia
Trapu Zaharrak taldearen lana, Jon Sagarzazu eta Leire Fresnedo aktoreekin. Debalde, edukiera mugatuarekin.
Antzuolan, 12:00etan.

BERGARA Musika Bandaren kontzertua
Edukiera mugatuarekin.
Pilotalekuan, 12:30ean.

ARRASATE Mario Fernandino
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Arbolapetan, 13:00etan.

OÑATI Espeleo-abentura
18 urtetik gorakoendako. Izena emateko: 943-08 20 00.
Arrikutzen, 15:30ean.

OÑATI Et Incarnatus orkestra eta gonbidatuak
Urmuga egitasmoaren baitan. Alex Sardui, Petti, Maider Zabalegi eta Jurgi Ekiza izango dira gonbidatuak. Edukiera mugatua. Sarrerak erosteko: 'Urmuga.eus' ataria.
Plazako frontoian, 18:30ean.

ANTZUOLA Kina-Bingoa
Anelkarren eskutik.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Los Brazos taldeko Willy
Arrasate Blues jaialdiaren baitan. Afrikatik Mississippiko deltako eskualderik txikienera doan bidaia proposatuko die entzuleei.
Arbolapetan, 19:00etan

MARTITZENA 20

ESKORIATZA Udaero: surf ikastaroa
Zarautzen egingo dute 12-16 urte artekoendako ikastaroa.
Gaztelekuan, 09:00etan.

ARETXABALETA 'Poli'-ren argazki erakusketa
Musika kontzertuetan egindako erretratuen lagin bat ipini du ikusgai, hilaren 30era arte.
Arkupen, 11:00etan.

OÑATI Adineko pertsonen elkar ezagutzeko kafe hitzordua
Begirada Adia ekimenaren baitan elkartzeko dira.
Pake Lekun, 17:00etan.

OÑATI 'Chihiroren bidaia' filma, umeendako
Hayao Miyazakiren pelikula, 7 urtetik gorakoendako. Edukiera mugatua.
Gaztetxean, 17:00etan.

OÑATI 'Porco Rosso' filma
Hayao Miyazakik zuzendutako Japoniako film animatua. Edukiera mugatua.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUAZTENA 21

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaioko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

OÑATI Noa Elvis

Elvis Presley zenaren kanta ezagunenen bertsioak entzuteko aukera, 'Esk-ult-ura' programaren baitan.

Lazarraga lorategian, 19:00etan.

ARRASATE Ibil Bedi eta The Potes taldeak

Udazabal egitarauaren baitan. Edukiera mugatua.

Santa Teresa eliza ondoan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Gazte' ikuskizuna

Hika Teatroa taldearen eta Oinkari Dantza taldearen ikuskizuna. Gazteendako egindako ikuskizuna, eta gazteei buruz jarduten duena. Herriko Plazan, 19:00etan.

EGUENA 22

ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Aretxarte merkatarien elkartearen merkealdietako azoka, egun osoan. Ostean, kontzertuak: 18:30ean, Txerrikumeak taldea; eta 19:30ean, Screammers & Sinners. Saltokien aurrealdean, 10:00etatik aurrera.

BERGARA 'Biba Voi: Dario Fo eta Franca Rame akorduan' irakurketa dramatizatua

Dramaturgo italiarren testuak euskaratuta, hainbat pertsonaia gorpuztuko dituzte Mikel Martinez eta Irati Agirreazkuenaga aktoreek. Laboratoriumeko lorategian, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 23

ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Aretxarte merkatarien elkartearen merkealdietako azoka, egun osoan. Saltokien aurrealdean, 10:00etatik aurrera.

BERGARA 'Kotoiaren emakumeak' erakusketa Garai bateko Algodoneran lan egindakoen testigantzak batu dituzte. Urriaren 10era arte ikusgai. Laboratoriumen, 10:00etan.

BERGARA 'Yes, we art' ikuskizuna

Gag Street Boys taldearen eskutik, Udazabal egitarauaren baitan, David Gutierrez eta Iñigo Salinero aktoreekin. Edukiera mugatua. Seber Altube plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA Matraka elektrotxarangaren kalejira

Loramendi elkarteak gonbidatuta, herriko kaleak girotzeko asmoz etorriko da Bidasoaldeko taldea. Udaletxe zaharretik abiatuta, 19:00etan.

BERGARA Josh Hoyer & Soul Colossal taldea

Soul eta funk doinuez gozatzeko aukera, Nebraskako taldearekin, Berumuga egitarauaren baitan. Edukiera mugatua. Espolioan, 22:00etan.

ZAPATUA 24

ARRASATE Erreka garbiketa auzolanean

Parte-hartzaileak taldetan banatuta egingo dute auzolana. Herriko Plazan, 10:00etatik aurrera.

ANTZUOLA Mural feminista margotuko dute

Andramanuelekin batera egingo dute. Parte hartzeko aurrez eman behar da izena, 943-76 60 65 zenbakian edo 'liburutegia@antzuola.com' helbidean. Ondarren, 10:00etatik aurrera.

ARRASATE Arrasate ezagutzeko bisita gidatua

10:30ean euskaraz eta 12:00etan gazteleraz. Izenak emateko: 'Arrasate.eus/eu/tramiteak/izen-ematea'. Herriko Plazan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Herriko monumentu garrantzitsuenetan dauden ezkutuko altxorrak ezagutzeko aukera. Besteak beste, unibertsitate zaharrean eta parrokian. Izena emateko: 943-78 34 53 (Turismo Bulegoa). Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ZINEMA

GASTEIZ

FLORIDA

Raya y el ultimo dragon

Egunero, domeka izan ezik: 16:50. Domeka: 12:00, 16:50.

Cruella

Egunero, domeka izan ezik: 17:00. Domeka: 11:45, 17:00.

Expediente Warren

Egunero: 22:00.

Operacion Camaron

Egunero, domeka izan ezik: 19:35, 21:50.

Domeka: 12:00, 19:35, 21:50.

Spirit

Egunero, domeka izan ezik: 17:30. Domeka: 12:00, 17:30.

Fast & Furious 9

Egunero, domeka izan ezik: 17:00 19:00, 19:45, 21:40. Domeka: 11:45, 17:00, 19:00, 19:45, 21:40.

4 chicos y esto

Egunero, domeka izan ezik: 17:00. Domeka: 12:00, 17:00.

La viuda negra

Egunero: 19:10, 21:45. Egunero, domeka izan ezik: 17:00, 19:35, 22:10. Domeka: 11:4, 17:00, 19:35, 22:10.

A todo tren! Destino Asturias

Egunero, domeka izan ezik: 16:45, 17:30, 18:40, 19:45, 20:35, 22:30. Domeka: 12:00, 16:45, 17:30, 18:40, 19:45, 20:35, 22:30.

La purga: infinita

Egunero, domeka izan ezik: 17:30, 19:45, 22:00. Domeka: 12:00, 17:30, 19:45, 22:00.

Peter Rabbit 2

Egunero, domeka izan ezik: 16:45, 18:40, 20:35, 22:30. Domeka: 12:00, 16:45, 18:40, 20:35, 22:30.

El gran camino

Egunero: 19:45, 21:40.

FLORIDA

Raya y el ultimo dragon

Zapatua eta domeka: 12:00.

Cruella

Zapatua eta domeka: 12:00.

Spirit. Indomable

Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 16.45. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:45.

Fast & Furious 9

Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 17:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

A todo tren! Destino Asturias

Egubakoitza: 17:00, 18:50, 20:40, 22:30. Zapatua: 12:00, 17:00, 18:50, 20:40, 22:30. Domeka: 12:00, 17:00, 18:50, 20:40.

Astelehena, eguaztena eta eguena: 12:00, 17:00, 18:50. Martitzena: 17:00, 20:40.

Miss Marx

Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domekatik eguenera: 20:40.

Queridos camaradas

Egubakoitza eta

zapatua: 22:30. Domekatik, astelehena, eguaztena eta eguena: 20:40.

Viuda negra

Egubakoitza: 17:00, 19:35, 22:10. Zapatua: 12:00, 17:00, 19:35, 22:10.

Domeka: 12:00, 17:00, 19:35. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:35.

Summer of soul

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:45, 22:00. Domekatik eguenera: 17:30, 19:35.

La purga: infinita

Egubakoitza eta zapatua: 17:40, 19.45, 22:00. Domekatik eguenera: 17:40, 19:45.

Peter Rabbit

Egubakoitza: 16:50, 18:45, 20:40. Zapatua: 12:00, 16:50, 18:45, 20:40.

Domeka: 12:00, 16:50, 18:45. Astelehenetik eguenera: 16:50, 18:45.

Una cancion irlandesa

Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30. Domekatik eguenera: 18:30, 20:30.

Ama

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 18:50, 20:40. Domekatik eguenera: 17:00, 18:50.

Las aparencias

Egubakoitza eta zapatua: 19:40, 22:00. Domekatik eguenera: 19:40.

Cascarrabias

Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD

La purga: infinita

Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 16:00. Egunero: 18:10, 20:20. Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Egunero, martitzena izan ezik: 19:10, 21:20. Martitzena: 19:10.

Peter Rabbit 2

Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 16:00. Egunero: 17:05, 18:05, 19:10,

20:10, 21:15.

A todo tren!

Destino Asturias Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 16:00. Egunero: 18:00, 19:00, 20:00.

Viuda negra

Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 16:15. Egunero: 17:15, 19:15, 20:15, 21:00, 22:15. Martitzena: 20:15.

Fast & Furious

Egunero: 17:00, 18:00, 20:00, 21:00, 22:00.

Spirit

Egunero: 17:00.

Expediente Warren

Egubakoitza eta zapatua: 22:15.

Cruella

Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 16:00.

Operacion Camaron

Egunero: 17:15, 19:45.

Un lugar tranquilo

Egubakoitza eta zapatua: 22:15.

4 chicos y esto

Astelehena, martitzena eta eguena: 17:00

KRITIKA

Las cosas que decimos, las cosas que hacemos ★★★★★

Zuz.: Emmanuel Mouret. Herr.: Frantzia (2020). Aktoreak: Camelia Jordana, Niels Schneider. Iraupena: 122 minutu.

Amodioaren gorabeherak

ANTONIO ZABALA

Zuzendari frantsesek, orokorrean, maisutasun handia erakusten dute maitasun sentimenduak eta istorioak jorratzerakoan. 'Las cosas que decimos, las cosas que hacemos' komedia sentimentala da. Pertsonaia ugari nahasten dira euren artean sortzen eta puskatzen diren amodio istorioetan. Gorabehera asko izaten dira: egiak eta aitortpenak; gezurrak eta traizioak; norberekeria eta eskuzabaltasuna; trikimailuak

eta estrategiak; zalantzak eta alhadurak. Hori guztia agertzen da Moureten pelikulan. Maitasuna joko iheskorra eta aztoratzailea da. Pertsonaia batek esaten duenez, "ez dakigu zeintzuk diren erregelak, eta, beraz, ez dakigu nola jokatu". Zuzendariak tonu egokia aurkitzen du istorioa kontatzerakoan. Batetik, badu 'vaudeville'-aren eta nahasketa komediaren duen ukitu arina; bestetik, nabarmena da duen kutsu erromantikoa eta

malenkoniatsua. Film fina eta dotorea da. Elkarriketak oso landuak daude: argiak eta sakonak, pedanterkerian erori barik. Azaltzen diren harreman guztiak bi pertsonaiaren elkarriketen bitartez heltzen zaizkigu. Maitasuna sentimendu kutsakorra omen da. Horri buruz berba egiterakoan sentimendu berriak sor daitezke —irudimenak eta fantasiak zerikusi handia dute maitasun eta amodio kontuetan—. Gozamina da film hau ikustea eta entzutea.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Areago

Ikusteko dago ea egunotan pandemia erakusten ari den mehatxua noraino gauzatzen den. Txertoen harresia eraginkorra izaten ari da, eta badirudi ez garela iritsiko aurreko olatuen larritasunera. Hala bedi.

Ikusteko dago, halaber, behin osasun fisikoa parametro ohikoetara errenditzen dugunean, zer-nolako eraginak antzematen diren beste osasunetan, mentalean eta sozialean.

Pandemiak bakartu egin gaitu, beldurtu, ahulago sentiarazi. Pertsona sendoak izateko bidean atzerapausoa izan da. Bakoitzak bere baitan eta hurbilenekoekin egin beharko dugu gure emozioen analisia eta kalteak gainditzeko ariketa. Umetu egin gara, aginduak goitik eta halabeharrez jasotzen eman dugu denbora luzea eta gihar soziala atrofiatu egin zaigu. Ahaztu egin dugu arazo kolektiboak ere baditugula, eta horien alde elkarrekin egin behar dugula, berriro kalean eta plazetan.

Lesio luzea izandako kirolarien antzera, entrenatzen hasi beharrean gaude, poliki eta etengabe, taldean elkar animatuz, berriro indarra hartuko dugun konfiantzarekin. Berriro pertsona sendo eta sozialak izan arte; eta, ahal bada, lehen ginena baino areago.

GOIENA OKM GIDA

"Hemen errotuago dago furgonetan bidaiatzea"

MIKEL LOITI TXAPIME AUTOAK

Paraje ikusgarri batean geratu eta gaua bertan pasatzea ikaragarria dela uste du Loitik: "Hurrengo egunean esnatu eta bistaz gozatzea plan izugarria da"

Jone Olabarria ARRASATE

Geroz eta ohikoagoak dira furgoneta kanperizatuak errepidean. Opor sasoirako alternatiba "askeagoa" eta "naturarekin harreman estuagoa" mantentzea ahalbidetzen duela uste du Mikel Loitik. Mendiaren eta hondartzaren artean argi du zein aukeratu, baina bost izarreko hotelaren eta furgonetaren artean "zailtasunak" dituela aitortu du. **Zer eduki behar du kanper bateko errotuago ahal izateko?**

Tamainaren arabera da, baina eserleku birakariak, mahai osagarria eta kalefakzioa bai. Gainontzekoak, ba, aurrekontuaren arabera da; sabaia jarri edo ez, esaterako, aurrekontuan asko eragiten duen faktorea da.

Uste duzu furgonetaren moda bat dela edo errotuago dago?

Euskal Herrian errotuago dago beste leku batzuetan baino, hemen bagaude mendiarekin eta naturarekin inguratuta bizitzera ohituta. Pandemiak ere aisialdi ereduak aldatu egin duela iruditzen zait.

Furgonetarekin joateko leku bat?

Hemen gertuan Arantzazura joatea gomendatuko nuke, eta, urrunago, Pirinioetara.



Mikel Loiti, salgai dituzten bi furgoneta kanperizatu erakusten. J.O.

Auto saltzailea baino gehiago

"Gurean berdin da zer ordu den, telefonoa jotzen aritzen da etengabe. Jendeak uste du 24 orduz gaudela hemen. Askotan gertatzen zaigu istripuren bat edo matxuraren bat izaten denean; eta, are gehiago, egoera zailan edo oso konplikatu izan bada; herritarrek oso urduri egoten dira, ez dakite oso ondo nora jo eta guri deitzen digute, aseguru-etxera edo asistentziara deitu beharrean. Halakotan, lasaitzen saiatzen naiz, zer egin azaltzen".

Hortaz, mendizalea izango zara.
Gustatzen zait; hondartzara joatea baino gehiago bai, behintzat. **Gurera datorrenari zer gomendatuko zenioke?**

Hemen mendi inguru ederrak ditugu. Arantzazura joan eta bertako parajeaz gozatzeko esango nioke, mendi buelta batzuk egin, edo, bestela, Gorbeia ingurura joatea. Aukera politak ditugu kanperraz gozatzeko Debagoienean bertan.

Bost izarreko hotelaren eta kanperren artean, zer nahiago?

Ez dakit zer esan. Kanperrak ematen duen askatasuna asko baloratzen dut: paraje ikusgarri batean geratu eta bertan lo egin; eta hurrengo egunean jaiki eta dagoen bista hori izugarria da. Hotelean lo egitearena ere eroso da, dena eginda. Lekuen eta planen araberakoa da, nire ustez.

Furgoneta bidaiatzearen okerreana?

Ez diot alde txarrik ikusten; zerbait esatekotan, tamaina. Tamaina aldetik, horrelako bolumenaren duen ibilgailu batekin eguneroko bizitzan mugitu eta aparkatzea ikusten dut zailago. **Gazteak ala familiak dira furgoneta-tazaleenak?**

Egia esanda, denetik. Azken Berlingo familia bati entregatu diogu. Eguneroko bizitzarako nahi zuten; ez oso handia, astean zehar erabili ahal izateko, eta asteburu-pasa joateko aukera ematen diena ere bai.

Interneten ere bazabiltzate...

Sareetan argitaratzen ditugu nobedadeak, garrantzitsua da.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

ERRONKA KONPLEXUEN GARAIA

GOIENA TELEBISTA, 'DEBAGOIENA ERALDATZEN'
UZTAILAREN 22AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

